# Goienkaria

2006ko martxoaren 10a > Egubakoitza > VI. urtea > 235. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Bake prozesurako bi su-eten behar ditugu: ETArena eta Espainiako Gobernuarena"

**Rebeka Ubera** > 09

**G2a** Gazteek lan egin eta ikasi atzerrian > 43

**DEBAGOIENA** Ume sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina egin dute > 05

**DEBAGOIENA** Oihal bakeroen liderra izango den enpresa sortu du Tavexek > 07

**BERGARA** Euskara gehiago erabiltzeko konpromisoa eskatu du Berbak > 25

**HIRIGINTZA** > DEBAGOIENA

## Eguzki-plaken derrigortasunari aurre hartzen gure eraikinak

**DERRIGORREZ** Eraikin mota guztietako ura berotzeko eguzki-plakak ipintzera behartuko du arau batek

**DEBAGOIENEAN** Jaurlaritzak eta Udalek elkarlanean ipinitako plakak badituzte ibarreko hainbat eraikinek

**SEKTOREA** Gurean badaude material egile eta instalatzaileak ere, eta ondo ikusten dute neurri berria > 02-03




**JENDETSUAK** Igor Angulo eta Roberto Saizen heriotzen harira deitutako kale bilkurak jendetsuak izan ziren, Arrasatekoa, esaterako. AMAGOIA LASAGABASTER

### Ohikoak baino kale bilkura jendetsuagoak greba egunean

Manifestazio jendetsuak egin zituzten ibarreko herri nagusietan atzo, eguena, LABek eta Batasunak deituta. Greba eta mobilizazio eguna deituta zuten atzorako, *Konponbide demokratikoaren alde eta dispertsio politikaren kontra*. Grebaren erantzuna askotarikoa izan zen herritik herrira eta baita sektoreka ere. Dendak eta tabernak itxita izan ziren: Arrasaten egun osoz eta Bergaran eguerdi eta gauez. Lantoki batzuek itxi egin zuten eta beste batzuetan normal lan egin; eta eskoletan beste horrenbeste.

**ESKORIATZA** > AZPIEGITURAK

### Udala eta Bidegi batzartuko dira gaur

Autobidearen gainean jardungo dute bi aldeek > 35

**ZIKLISMOA** > PARIS-NIZA

### Markel Irizar erori egin zen

Markel Irizar Euskalteleko txirrindulari oñatiarra erori egin zen eguaztenean, Paris-Niza proba ospetsuaren hirugarren etapan. Helmugara iristeko 30 kilometro falta zirenean jausi zen. "Sekulako kolpea hartu dut", adierazi dio GOIENKARIAri. Gorputz osoa minduta dauka, baina ondorioak ez dira larriak izan. > 40

**BERGARA** > HEZKUNTZA

### Bergaran egingo da Kilometroak

Aranzadi ikastolak antolatuko du jaia 2007an; ibilbidea laua izango da > 25

AURKIBIDEA


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Sakonki** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55



miren barrena
arropa denda
neurri bereziak



Laster zabalik

Kalezaharra, 12 B
20560 Oñati
628 526 265

TOYOTA
Orain Bergaran.
EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

**ERAIKUNTZA** > ERAIKIN BERRI ETA ERABERRITU GUZTIETAN EGUZKI-PLAKAK IPINI NAHI DITU MADRILEK

# Eguzki-plakak ugaritu egingo dira, baina ibarra bazihoan bide horretatik

**ERAKUNDEAK** Eusko Jaurlaritzak eta udalek urratu dute gehien eguzki-energiaren bidea, eraikin publiko eta ikastetxeetan plakak ipinita

**URA** Etxebizitza eta eraikin berri guztiek ura berotzeko plakak izan beharko dituzte, eta horrek erregai gastua %60 murriztuko du

**BULTZADA** Gurean interesa handia da, baina sektorea hasieran dago, batez ere arlo pribatuan; arauak hori bultzatuko duela diote adituek

**LEIRE KORTABARRIA** > DEBAGOIENA

Espainiako Ministro Kontseilua gaur, egubakoitza, zen onartzekoa eraikuntza guztiei eragingo dien neurri sorta bat. Tartean, edozein motatako eraikin berri eta eraberrituetan eguzki-plakak ipintzearen derrigortasuna dago. Etxebizitza Saileko arduradunak eguenean batzartu ziren Espainiako Etxebizitza Ministerioarekin, eta aukera handiak daude arau horiek EAEn eta, beraz, Debagoienean, ere aplika daitezen, gutxieneko araudi moduan: hemengo erakundeek hortik gorago joan ahal izango dute.

Araudi berriarekin ala ez, Debagoienean ere goraka doa, pixkana-pixkana, eguzki-plaken gaineko interesa eta ekintzak. Gero eta eraikin gehiagok dituzte eguzki-plakak, eta sektore hori gero eta biziago dago gurean.

Errealitatea legearen aurretik doa, baita Debagoienean ere. Izan ere, esaterako, Babes Ofizialeko Etxebizitzetan derrigorrezkoa izango da eguzki-plakak ipintzea, eta gurean orain egiten ari direnek badituzte plaka horiek. Bestetik, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) hitzarmenak sinatuz joan da udalekin, eta udal eraikin askok instalazio horiek dituzte dagoeneko. Hezkuntza Sailaren eskutik, Debagoieneko ikastetxe asko eta askotan ere ipini dira eguzki-plakak.

**BI PLAKA MOTA**

Espainian eztabaidatzen ari diren Eraikuntza Kode Teknikoak (EKT) agintzen du eguzki-plakak ipintzea eraikin horretako energia-gastua jaisteko.

Bi plaka multzo handi dago: batetik, eguzki-plaka termikoak. Horiek eraikineko ur sanitarioa berotzeko erabiltzen dira. Plakez gain, barne-instalazioa eta ura gordetzeko depositua ipini behar dira. Etxean erabiltzen den ura, eta kalefakzio sistemak erabiltzen duena ere, berotzen ditu neurri bat arte; hortik gora berotzeko, ohiko sistemak erabiliko dira. Baina aurrezpena eginda dago: EEEren datuen arabera, ohiko erregaien –gas naturala edo gasolioa– %60 aurrez daiteke panel horiekin. Hortaz, etxebizitzan ipini gura dituztenek gastua izango dute, baina, adituen esanetan, 10 bat urtean amortizatuta geratzen da inbertsioa. Eguzki-plaka termikoak dira errentagarrienak, eta horiek dira Espainiako arauak derrigortuko dituenak. Eraikuntzako ur-bero premiaren %30-%70 bitartean aseko dute.

Bestetik, plaka fotovoltaikoak daude. Horiek bai, elektraindarra sortzen dute. Oraingoz, Debagoienean landa eremuetan erabiltzen dira batik bat, bordak edo aldi bateko etxebizitza txikiak elektraindarrez hornitzeko. Bigarren motako aplikazio bat ere badute, eta hori doa goraka: eraikinetan ipin daitezke, ez eurak hornitzeko, baizik eta sare orokorrera joango den energia sortzeko. Energia hori elektraindarenpresa bati saltzen diote, elektrizitate tarifaren %575eko plusa duen preziora. Plaka horiek dira, hain zuzen, ikastetxeetan daudenak. Bigarren plaka mota hori ez da plaka termikoak bezain errentagarria, hala ere.

**UDALEN ESPERIENTZIA**

Debagoieneko udalek badute eguzki-plaken inguruko esperientzia. Aurrekarietako bat Arrasateko Udala izan zen: 2002. urtean, Mojategiko igerilekuetako dutxetako ura berotzeko plakak ipini zituen. Emaitzak onak dira, Rafa Ugarteren, Udal Ingurumen teknikariaren esanetan: "Eraginkortasuna handiagoa da plaka termikoetan fotovoltaikoetan baino: jasotzen den eguzki energiaren %35 aprobetxatzen da".

Plaka fotovoltaikoei dagokienez, Arrasate horiez beteta dago: Udalako Ingurumen Eskolan, ikastolaren eta herri eskolaren hainbat eraikinetan… daude. Laster, Uarkape atzeko erabilpen askotako eraikinean (Emakume Txokoa dagoenean) jarriko dituzte martxan bi instalazio. Horko energia Iberdrolak erosten du. Plaka mota hau ez da hain eraginkorra: jasotzen duten eguzki-energiaren %16 aprobetxatzen da.

Hori, Arrasateko egoera; baina Eusko Jaurlaritzaren politika, EEEren bidez, udalekin elkarlanean aritzea denez, bide horretatik doa ibar osoa.

**GUREKO ENPRESEI, MESEDE**

Eguzki-energia aprobetxatzea ez da bakarrik udalen eta herritarren onurarako, baina: azken urteotan, sektore berri bat sorrarazi du Debagoienean, material sortzaileena eta instalatzaileena, hain zuzen ere. Izan ere, arau berriak izango duen eragin bat da ekonomia-sektore horri bultzada handia ematea, eta gauza bera gerta daiteke Debagoienean.

Hala, MCCk Ekisun enpresa sortu zuen orain bi urte, sistema fotovoltaikoak merkaturatzeko. Materiala saltzeaz gain, instalatzaileei laguntza ematen diote. Javier Lara da negozio horretako gerentea eta, bere esanetan, "goraka doan sektorea da; urtean, %30 hazten da". Hala ere, Debagoienean oraindik ez dago behar adina zabaldua: "Mendiko bordatan ikusi ditugu batik bat instalazio horiek; orain hasi da jendea gero eta gehiago instalatzen. Debagoienean, oraintxe hazten ari den sektorea da". Araudi berria aplikatzen bada, sektoreak nabarmen igarriko du.

LABUR

**> ARAUA**
Espainiako Etxebizitza Ministerioak proposatutako arauak energia aurrezteko neurriak ematen ditu: besteak beste, eguzki-plakak derrigorrezkoak izatea.

**> DEBAGOIENEKO EGOERA**
EAEk ez du arau propiorik, baina ia segurua da Espainiakoa aplikatuko dela hemen. Hala ere, horko alde batzuk dagoeneko aplikatzen dira gurean.

**> DERRIGORTASUNA**
Ura berotzeko eguzki-plakak eduki beharko dituzte eraikin guztiek, edozein motatakoak. Kontsumorako ura eta kalefakzioak erabiltzen duena berotuko du. Ibarrean egiten ari diren babes ofizialeko etxebizitzek badituzte plakok.

**> AURREZPENA**
Erregai kontsumoan gaur egun gastatzen denaren %60 aurrez daiteke.

**> EGURALDIA**
Gurean dugun klima nahikoa da plakak errentagarriak izateko.

**> FUNTZIONAMENDUA**
Berotutako ura depositu baten gordetzen da. Tenperatura jakin batera arte berotzen dute plakek.

**> SALBUESPENA**
Arauak aurreikusten du salbuespen bat: errentagarria ez den tokietan. Hala ere, horiek gutxiengoa izango dira.

**Haritz Etxaniz** > Eguzki-plaka instalatzailea

## "Sektorea bultzatuko du, eta jendeari konfiantza eman"

**L.K.** > BERGARA

**Haritz Etxaniz bergararra Alet Taldeko sortzaileetako bat da. Eguzki-plakak instalatzen dituzte eta Bergaran dute enpresa.**



**Ibarrean ezaguna da eguzki-energiaren alorra?**

Nahiko ezezaguna da oraindik, baina interes handia dago. Hala ere, oraindik jendeak ez ditu ondo bereizten eguzki-plaka termikoak eta fotovoltaikoak, adibidez. Orain hasten ari da jarduera hau gurean.

**Zer iruditzen zaizu Madrildik datorren arau berria?**

Gurean ere aplikatuko da, baita Babes Ofizialeko Etxebizitzetan ere. Oso mesedegarria iruditzen zait: sektoreari bultzada garrantzitsua emango dio, eta jendeari konfiantza emango dio. Horrez gain, energia garbia da, CO2-rik ez du isurtzen…

**Zenbat kostatzen da instalatzea?**

1.800-3.000 euro artean egon daiteke, edo hortik gora. Baina 10 urtean amortizatu egiten da. Urtean etxeko ura berotzeko erregaiaren %60 aurrezten da, eta hileko fakturan igartzen da.

**Etxebizitza blokeetan zailagoa izango da ipintzea, ezta?**

Bai: barne instalazioa, depositua… jarri behar dira. Bizilagunak ados ipini behar dira. Horregatik, oso interesgarria da etxebizitza berrietarako.

**Zelan funtzionatzen du plaka termikoak?**

Ura bero dezake, demagun, 25 gradura; neguan, hortik gora beharko da, baina udan tenperatura hori nahikoa izan daiteke.

**Zer egin behar da instalatzeko?**

Enpresa instalatzaile batengana edo EEErengana jo.



**AURREKARIA** Arrasateko Mojategiko igerilekuetan 2002. urtean ipini zituzten ura berotzeko plakak. Ibarreko lehenengoetarikoak izan ziren. L.K.

**Eguzki-plaka termikoek eraikineko ura berotzen dute, eta ohiko berotze-sistemekin osagarriak dira**

**Eguzki-plaka fotovoltaikoek energia elektrikoa sortzen dute, baina ez etxea hornitzeko, saltzeko baizik**

Aldea igarriko duen beste sektorea instalatzaileena da. Orain, sistema hauek, termikoak nahiz fotovoltaikoak, enpresa txikiek instalatzen dituzte. Gipuzkoan hainbat daude; Debagoienean ere badaude instalatzaileak, eta horiendako ere mesede handia izango da araudi berria.

Ekonomiak berak, osotasunean, onera egingo duela esaten dute adituek. Fernando Frechoso Ingeniaritza Elektrikoko irakaslea da, eta hauxe dio: "Herrialde baten, premia ekonomikoaren erdia etxebizitzetako energia kontsumoa da. Eguzki-energiak, etxebizitza ondo isolatzearekin batera, urtearen buruan herrialde horretako energia-faktura txikiagoa izatea dakar".

Bukatzeko, ingurumenari ere on egingo dio eguzki-plaken aldeko politika berriak.

**EUSKADIN, GORA**

Energia berriztagarriak erabiltzea, eta beroiek sustatzeko egiten diren arauak, bat datoz Europako Batasunak emandako ildoekin. Izan ere, klima-aldaketaren arazoari aurre egiteko neurri moduan, gas-isurketak %15 jaisteko helburua ipini zuen Europako Batasunak. Hala, energia politika ildoak berritu zituen, tartean, eguzki-energia aprobetxatzeko planekin.

Horrez gain, eguzki-energia erabiltzeak burujabetasun handiagoa ematen dio Europari. Izan ere, Europako Batasunak energiaren %50 inportatu egiten zuen. Helburu berri moduan ezarri zuten 2010. urterako Europako barne energia gordinaren kontsumoaren %12 energia berriztagarrien iturrikoak izatea.

Euskadin, gora egin du eguzki-energia erabilpenak. 2005ean, 1.008 instalazio zeuden, 329 Gipuzkoan, 2.824 kWp-ko potentzia ematen zutenak; 2001ean, 364 ziren instalazioak. Eguzki-plaka termikoek joera berbera izan dute, eta 2005 bukaeran 309 instalazio zeuden Euskadin (2001ean, bakarrik 124); Gipuzkoan, 121 ziren.

ERAIKUNTZA KODE TEKNIKOA

## Eraikitzeko eta bizi izateko moduan iraultza

Madrilen onartzekoak ziren kodeak eraikitzeko eta bizi izateko modua iraultzatu egingo du. Izan ere, etxebizitzak eta bestelako eraikuntzak egiteko ikuspuntu berria planteatzen du, ez bakarrik eguzki-plakei dagokienez.

Kodearen helburu nagusia da "etxebizitza hobeak, seguruagoak, hobeto bizi izatekoak eta ingurumenarendako hobeak" egitea, M. Antonia Trujilloren, Etxebizitza Ministroaren, esanetan. Hala, neurriak ipintzen ditu etxeak intsonorizatzeko –adituen esanetan, Estatuko etxeak Europako intsonorizazio-maila baxuenekoak dira– edo suteen arriskua murrizteko. Kodea onartu eta berehala jarriko da indarrean, eta ez bakarrik etxebizitzetan, baita ikastetxe, areto eta industrialdeetan ere.

ZIFRAK

## Eraikuntza txarrak, galera izugarriak

Eraikuntzaren Kode Teknikoak eraikuntza txarrak dakartzan galerak murritz ditzake. Galera horiek zenbaterainokoak diren ikusteko, hauxe esan daiteke: Estatuan, urtero 12.000 milioi eurokoak dira galera horiek, eraikuntza sektorearen ekoizpenaren %10: urtean 80.000 etxebizitza berri egiteak kostatuko lukeena, hain zuzen.

Eraikuntza prozesuan gertatzen diren akats nagusiak hauek izaten dira: kasuen %40-50ean, obra proiektuko akatsak; %25-35, lanak zelan egiten diren da arazoa; %10-15, erabili diren materialek dute errua; eta %5-10 bitartean, bukatutako eraikinak zelan erabiltzen diren eta mantentze-lanak zelan egiten diren.

GREBARAKO DEIALDIA > LAB SINDIKATUAK ETA EZKER ABERTZALEAK DEITUTA

# Igarri egin zen grebaren eragina, baina herri bakoitzean desberdin

Leku batzuetan egun osoko greba egin zuten, beste batzuetan, ordu batzuetako itxierak

"Konponbide demokratikoaren alde, dispertsio politikaren kontra" zen leloa

UBANE MADERA > DEBAGOIENA

Egun osoko greba edo mobilizazioak. Biak hala biak izan ziren atzo gure ibarrean. Izan ere, herri bakoitzean grebarako deialdia desberdina izan zen.

Orokorrean begiratuta, hezkuntzan greba egin zuten goi mailetako ikasle gehienek. Halaxe gertatu zen, esaterako, Arrasateko eta Bergarako institutuetan eta Lanbide Heziketako eskoletan. Mondragon Unibertsitatean ere kalera atera ziren ikasleak. Beheko mailetan, berriz, normaltasunez jardun zuten; esaterako, Arrasateko Arizmendi ikastolan eta Bergarako Aranzadi ikastolan.

Irakasleei eta eskoletako bestelako langileei dagokienez, berriz, lanean ibili ziren gehienak.




MANIFESTAZIOAK Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan mobilizazioak egin zituzten; argazkian, Bergarakoa. ENEKO AZKARATE

### LANTEGIETAN, PARTZIALA

Bestalde, lantegiei begiratuta, denetarik izan zen. Fagorren bertan, Fagor Ederlanen eta Fagor Arrasaten langileak kalera atera ziren; ez, ordea, Fagor Etxetresna Elektrikoek Gasteizen, Eskoriatzan, Garagartzan eta Oñatin dituzten lantegietan eta ezta Fagor Automationen ere.

Lantegi handiekin segituz, Oñatin, Ulmak dituen zazpi negozioetatik bitan egin zuten greba. Antzuolan, Elayn ezezkoa nagusitu zen bozketan. Bergaran, Candyn ordubeteko lanuztea egin zuten goizean eta Geyserren, bozketan greba egitea atera zen arren, langileen %30 baino gehiago joan ziren lanera. Aretxabaletari dagokionez, Coprecin greba egitea atera zen bi botogatik.

Lantegi txikiei begiratuta, berriz, lanuzte partzialak nagusitu ziren. Bestelako askotan lanean izan ziren beharginak, normaltasunez.

### SALTOKIAK-ETA ITXITA

Saltoki eta tabernei dagokienez, Arrasaten itxita izan ziren ia guztiak, egun osoan. Bergaran, berriz, eguerdian eta iluntzean itxi zituzten.

### ADMINISTRAZIOA

Bukatzeko, administrazioan, LAB sindikatuak emandako datuen arabera, Arrasateko, Bergarako, Antzuolako eta Eskoriatzako udaletan lanuzte partzialak egin zituzten; baita Debagoieneko Mankomunitatean ere.

### PIKETEEN ERAGINA: PESA

Bestalde, istilu bat ere aipatu beharra dago. Hala adierazi zigun Herrizaingo Sailak. Aretxabaletan pertsona bat atxilotu behar izan zutela, "desobeditzearren", eta istiluak izan zirela, "agenteei eraso egiten ahalegindu zirelako". Aipatu beharra dago, baita ere, Pesa autobus enpresak Arrasaten duen egoitzan 25 autobusi egin zietela eraso: besteak beste, 112 gurpil zulatu zizkieten. Ondorioz, goizeko lehen orduko zazpi zerbitzu eten egin behar izan zituzten eta herritar ugari geratu zen ibarrean lanera iritsi ezinda.

### LAB SINDIKATUA OSO POZIK

*Konponbide demokratikoaren alde, dispertsio politikaren kontra* zen grebaren leloa. LABek eta ezker abertzaleak deitu zuten. LABek zera adierazi zion GOIENKARIAri: "Kontuan hartuta greba guk bakarrik deitu dugula, oso balorazio positiboa egiten dugu. Esaterako, Arrasate guztiz itxita egon zen". Greba egiteaz gainera, manifestazioak izan ziren zenbait herritan. LABen arabera, Bergaran 500-600 lagunek parte hartu zuen eta Arrasaten, 1.500 inguruk.

Bestalde, Ertzaintzaren jarrera kritikatu du LABek, "Aretxabaletan mobilizazioak oztopatzearren eta pertsona bat atxilotzearren eta Arrasaten pertsona bat identifikatzearren"; ondorioz, isuna izango dutela uste dute.

### ADEGIREN USTEZ, ERAGINIK EZ

Patronalak, berriz, bestelako iritzia du: "Industrian, eraikuntzan eta zerbitzuen arloan ez du orokorrean eraginik izan, Gipuzkoan; bakarrik zenbait herritan igarri da". Halaber, zenbait komertziok piketeak eta mehatxuak jasan zituztela salatu dute.

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

> BERGARA

### 'Txapi'-ren aurkako agiriak ez direla agertu onartu dute

18/98 epaiketako epaimahaiburuak onartu du Xabier Arregi *Txapi*-ren aurkako agiriak ez direla agertu. *Txapi*-ren abokatuak eskatu zuen martitzenean erakusteko Ekin-eko kide bergarararen etxeko miaketan atzemandako agiriak, baina ez ziren agertu. Paperak bilatzeko eten egin zuten arratsaldeko saioa, baina *Txapi*-ren ordenagailuan atzemandako agiriak ez zituztela aurkitu onartu zuen epaimahaiburuak.

> OÑATI

### Gaur zortzi egingo dute babestutako etxebizitzen zozketa

Datorren egubakoitzean, martxoak 17, egingo dute Ugarkaldeko babes ofizialeko lehen 75 etxebizitzen zozketa. Kiroldegiko pilotalekuan egingo dute, 17:00etan. Oñatiko notarioak jasoko du ekitaldiaren akta eta Lourdes Idoiaga alkatea eta Sukia eraikuntza enpresako ordezkariak ere egongo dira. 530 lagun sartuko dira zozketan. Kiroldegiko ateak 16:30ean zabalduko dituzte.

**ELKARTASUNA** > OPORRAK BAKEAN PROGRAMA

# Saharako umeak gurera datoz udan

Arrasateko Nubi eta Bergarako Bubisher elkarteek zabaldu dute dagoeneko kanpaina, eta 7 eta 12 urte bitarteko umeak ekarriko dituzte



**SAHARA** Eskualdeko familietan pasako dute uda ume saharar batzuek. GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

7 eta 12 urte bitarteko ume sahararrak ekarri gura dituzte aurtengo udan ere Debagoienera. Arrasateko Nubi eta Bergarako Bubisher elkarteak hasi dira dagoeneko umeak jasoko dituzten familien bila. Martxoa bukatu arte iraungo du kanpainak.

Fronte Polisarioak sortutako Oporrak Bakean izeneko programaren bidez ekarriko dituzte ume sahararrak Debagoienera, eskualdeko bi talde horien eta hainbat udalen elkarlanari esker.

**18 UME**

Lehen zortzi ume sahararrak 2003an etorri ziren Arrasatera. Hurrengo urtean 12 etorri ziren eta kopurua 18 arte iritsi da azken urtean. Aurten, berriz, 18 ume ekarri gura dituzte eskualdera, gutxienez.

Nubi elkartea Arrasaten sortu zen 2004an, baina Leintz Gatzagara, Eskoriatzara, Aretxabaletara, Arrasatera eta Oñatira umeak ekartzen arduratuko da hura. Bergarako Bubisher elkarteak, bere aldetik, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako familietara ekarriko ditu. Gainera, hainbat hitzaldi eta bilera egingo dituzte gaiari buruzko informazioa emateko edo interesa duten familiei laguntzeko. Atzo, eguena, adibidez, Oñatin izan ziren; hilaren 20an Eskoriatzako kultura etxera joango dira Nubiko (685 72 48 16) ordezkari batzuk; eta Bubisher elkarteak (670 41 76 07) martxoaren 22an egingo du bilera Bergarako kultura etxean.

**ELIKADURA ETA OSASUNA**

Lau urtez jarraian etor daitezke Euskal Herrira ume sahararrak, eta batzuendako laugarren uda izango da aurtengoa. Uholde handiak izan dituztelako eta errepublikaren 30. urteurrena bizi dutelako, ume asko ekarri gura ditu aurten Euskal Herrira Fronte Polisarioak. Elikadura hobea eskaintzeko eta osasun azterketak egiteko helburuarekin ekartzen dituzte, batik bat.


Menchu Gal

**Margo erakusketa**

Bergarako Aroztegi Aretoan / 2006ko martxoaren 17tik apirilaren 30era

**Kirmen Uriberen**
**“Poesia eta abar”**
Apirilaren 1ean, larunbata, 19:00etan

Ordutegia
Asteartetik ostiralera: 18:30-21:00
Larunbatak: 12:00-14:00 / 18:30-21:00
Igandeak: 12:00-14:00

Aste Santuko Ordutegi berezia
Apirilaren 13 eta 14an: 12:00-14:00
18:30-21:00
Apirilaren 17an itxita



AROZTEGI JAUREGIA
BERGARAKO UDALA




**BAKEROAK** Tavexek eta Santisak bat eginda, bakero ehuna ekoitziko duen munduko talderik handiena izan nahi dute. I.A.

**ENPRESA** > IBARREKO HAINBAT LANTEGIREN GORABEHERAK

# Tavex Brasilgo enpresa batekin elkartuta sektorean nagusi da

Ibarreko enpresak gustura daude makina-erremintaren biurtekoan egindako harremanekin

Fagor Arrasatek Tisco enpresa txinatarrarentzat mozketarako bi lerro egingo ditu

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Ibarreko enpresetatik hainbat berri iritsi zaizkigu azkenaldian.

Elorregin (San Prudentzio) lantegia duen Tavex Algodonera taldeak bat egin du Brasilgo Santisa ehun-enpresarekin. Hala, bakero ehuna ekoitziko duen munduko talderik handiena izan nahi dute.

Tavex Algodonerak 5,9 milioi euroko irabaziak izan zituen 2005ean, aurreko ekitaldiarekin konparatuz %36,68 gutxiago. Jaitsiera horren arrazoietako bat da Asiako herrien lehia.

**MAKINA-ERREMINTAREN BIENALA**

Bestalde, astelehenetik zapatura bitartean Bilbao Exhibition Centerren makina-erremintaren biurteko edo bienala egiten dihardute. Produktuak erakustera eta bezeroekin harremanak egitera ibarreko hamar enpresatako ordezkariak joan dira.

Azokan zutabe mugikorreko fresatzeko eta mandrinatzeko makina horizontala ipini dute, besteak beste. Hori da, euren esanetan, azokako makinarik handiena. Soraluze kooperatibako Iker Goenaga pozik azaldu da lortutako emaitzekin: "Nahiko ongi joan zaigu orain artekoa. Uste baino kontsulta gehiago jaso eta hainbat makina saldu ditugu. Aurtengo azoka kualitatiboki baxuagoa izan bada ere, kalitate altuagoa eduki duela esan genezake".

Orni enpresakoak ere gustura daude azokan lortutakoarekin: "Jende berriarekin egin ditugu harremanak, eta aurrerantzean enpresak bisitatu eta proiektuak garatzea izango da gure lana. Izan ere, gu ez gara etorri ezer saltzera, bezeroak geureganatzera baizik", esan digu Orniko Aitor Salaberriak. Haren esanetan, astelehen eta martitzenean jende gutxiago ibili da azken egunetan baino. Goizez bisitari gehiago sumatu dituzte. "Gu lehenengo pabiloian gaude eta baliteke ibilbidea hemendik hastea".

**MCC ETA FAGOR**

MCCk iazko gorabeheren berri eman du. 2005ean 542 milioi euro irabazi zituen, 2004an baino %8 gehiago. Aipatzekoa da 2004an lortutako %22ko igoerarekin alderatuz oso txikia izan dela. Jesus Catania MCCko presidenteak *Tu Lankide* aldizkarian "ontzat" jo du azken ekitaldia, eta hurrengoa hobea izango dela aurreikusi du.

Azpimarratzekoa da MCCk langile kopuruan izan duen gorakada: 80.000 langile zituen 2005 amaieran, aurreko ekitaldian baino 7.500 gehiago. Hala ere, kooperatibista kopurua ez da igo.

Fagor Arrasatek Tisco enpresa txinatarrarentzat 20 milioi euroko mozketarako bi lerro egingo ditu, automatizazio eta errendimendu handikoak biak. Tisco munduko altzairu herdoilgaitzeko fabrikatzailerik nagusienetakoa da. Tiscorena da Fagor Arrasatek inoiz hartu duen eskari handienetakoa.

Fagor Arrasatek 2005ean 118,3 milioi euro fakturatu zituen, aurreko ekitaldiarekin alderatuz %20 gehiago. Kopuru horretatik %67 nazioarteko salmentatik etorri zen. Aurtengo aurreikuspena 147 milioi euro fakturatzea da; aurreko ekitaldian baino %24 gehiago.

Fagor Ederlan Fit Automocioneko langileak kooperatibista bihurtzeko prozesua sustatzen ari da. Fit Automocionen, Fagor Ederlanek eta MCCk %66ko partaidetza dute eta Alemaniako Continental enpresarena da gainontzeko %34. Lantaldeko 83 langileetatik 78k azaldu dute kooperatibako kide izateko borondatea.

Fit Automocionek Elkarte Anonimo izaten jarraituko du, baina Fit-eko 78 langile Fagor Ederlaneko bazkide izatera pasako dira; era berean, Fit-en eguneroko jardueran kudeaketa eredu kooperatiboa eta balio kooperatiboak barneratuko dira.

Horrekin, Fagor Ederlanek 2005-2008 Plan Estrategikoan jasotako helburuetako bat garatuko da: "Enpresa partaideak kooperatiba bihurtzeko eta enplegu kooperatiboa garatzeko konpromisoa hartzea".

DATUA

**542**

**MILIOI EURO**

MCCk 2005ean %8 gehiago irabazi zuen 2004an baino: 542 milioi euro, hain zuzen. Bestalde, aipatzekoa da iazko urtearen amaieran 80.000 langile zituela, aurreko urtean baino 7.500 gehiago.

DATUA

**78**

**LANGILE**

Fit Automocioneko 83 langileetatik 78 Fagor Ederlaneko bazkide izatera pasako dira. Fit-ek, hala ere, Elkarte Anonimo izaten jarraituko du, nahiz eta izaera kooperatiboa barneratzea den asmoa.

## Kazolak bidali dituzte Nikaraguara Fagorreko langileek

Fagor Etxetresnak saileko etxetresna txikien Eskoriatzako lantegian 430 kazola egin dituzte Nikaraguara, Managuako auzo marjinaletara bidaltzeko.

Ideia langileek eurek izan zuten. Hainbat langile boluntariok akats txikiak dituzten eta saldu ezin diren eltzeetako osagaiak hartuta egin dituzte kazola horiek. Langileak muntatzeaz eta enbasatzeaz arduratu dira, eta Fagorrek materiala, lanerako azpiegitura eta kazolak Zaragozara bidaltzeko kostuak hartu ditu bere gain.

Ondoren, Mariaren Lagundiko Nazioarteko Fundazioaren bidez helarazio dituzte eltzeak Nikaraguara, proiektu horretarako jaso dituzten beste hainbat materialekin batera.



**ELKARRI** > BERRADISKIDETZE SOZIALEAN OINARRITUTAKO DISKURTSOA SENDOTZEA DA ASMOA

# Domekan Elkarri erakunde berria aurkeztuko dute Bilbon

Elkarri berriaren lehen ekimena martxoaren 18an Bilbon egingo duten manifestazioa izango da

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Domekan, martxoaren 12an, Elkarri berriaren aurkezpena egingo dute, 12:00etan, Bilboko Euskalduna jauregian.

Elkarrik VIII. Batzar Nagusian hartutako erabakiaren ondorioz, Elkarri erakunde berri bilakatuko da; hemendik aurrera, akordio anitzaren, herri kontsultaren eta berradiskidetzearen aldeko herritarren sarea izango da, hain zuzen ere.

Elkarri berriaren lehentasuna berradiskidetze sozialean oinarritutako diskurtsoa sendotzea da, "garaile eta garaituen" ordezkoa izango dena.

Egun horretan, Elkarrik orain arteko jarduera zikloa itxi eta erakunde berriak bere ibilbideari ekingo dio. Horretarako, batzar eratzailea egingo dute: sorrera-txostena onartu eta sarearen izena, logotipoa eta zuzendaritza-taldea jakingo dira.

**MANIFESTAZIOA**

Elkarri berriaren lehen ekimena martxoaren 18ko manifestazioa izango da ,17:30ean, Casilla plazatik abiatuta.

*Guztion artean. Bakea - akordioa - kontsulta* lelopean egingo dute. Lelo honek gizartearen gehiengoaren borondateen isla diren lau aldarrikapen biltzen ditu, manifestazioaren antolatzaileen esanetan.




## kontsumoa



Espainian bidaien %5 saltzen da Internet bidez. GOIENKARIA

## Bi milioi espainiarrek Internet bidez kontratatzen dituzte bidaiak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Ikerketa baten arabera, Espainian gero eta gehiago dira bidaiak Internet bidez kontratatzen dituztenak. Ordenagailuko pantailaren aurrean jarri eta zerbitzu turistikoetara jotzen dutenak bi milioitik gora dira.

Iaz 2.000 milioi eurotik gorako irabaziak lortu ziren Internet bidez kontratatutako bidaiekin. Igoeraren zergatiak dira Interneten erabileraren gorakada eta turismo zerbitzuen Interneteko eskaintza igo egin dela. Hala ere, Espainiako bidaien %5 baino ez dira saltzen Internet bidez; kopuru txikia, beste herrialde batzuekin alderatuta.

Hegazkin konpainiek eta turismo egoitzek euren webguneen bidez egindako salmentek pisu handia dute sareko salmentetan. Beraz, garrantzitsua da webgune propioa izatea turistak erakartzeko.



### Oliba-olioa, oinarrizko elikagai garestia

Oliba-olioa da oinarrizko elikagaien artean gehien igo dena. Izan ere, litro bakoitza batez beste 4,25 euro kostatzen da. Azkeneko urtean igoera % 37,2 izan da, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren arabera. Arrazoi nagusia da ekoizpenean izandako beherakada.



### Aluminiozko laten erdia baino ez da birziklatzen

Aluminiozko Produktuak Birziklatzeko Elkarteak jakinarazi duenez, 2004an aluminiozko 24.000 milioi edari lata kontsumitu ziren Europan; birziklatu, ordea, %48 baino ez. Fabrikatzaileendako garrantzitsua da birziklatzea, materialarekin latak egin daitezkeelako berriro ere.

### Kontsumitzailearen Eguna martxoaren 15ean izango da

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak hainbat jarduera antolatu ditu Kontsumitzailearen Eguna dela-eta. Besteak beste, kontsumoari buruzko jokoak izango dira Bilbon, Gasteizen eta Donostian, eta postuak ipiniko dituzte informazioa zabaltzeko.

### Jaki ekologikoen kontsumo urria ezjakintasunagatik

Espainia hirugarren herrialdea da Europan jaki ekologikoen ekoizpenean. Hala ere, espainiarren %62k ez ditu horrelako jakiak kontsumitzen: %33,3k, ezagutzen ez dituelako; %31,2k aurkitzen ez dituelako; eta %28,1ek, ohikoak baino garestiagoak direlako.

**gure artekoak**

**LAM3** > Hiru bazkide gordetzen dira izen horren atzean. Bergaran dute egoitza eta billarrekin, mahai-futbolekin eta joko automatikoekin jarduten dute. Horiek ipintzeaz eta euren mantentze-lanez arduratzen dira.

Xabier Muxika

# "Makinak guk erosten ditugu eta gero tabernetan ipini"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Hiru bazkidek eta guztira sei langilek dihardute Lam3 enpresan. Orain dela 15 urte hasi ziren mahai-futbolekin eta gaur egun euren jarduna billarrekin eta joko automatikoekin osatu dute. Makinak ipini ez ezik, konpondu ere egiten dituzte.**


Xabier, Antonio eta Karlos mahai-futbolekin hasi ziren. I.A.

**Nola bururatu zitzaizuen enpresa abian ipintzea?**

Donostian ikasten genbiltzala, mahai-futbolean (futbolina) jolasten ginen. Bergaran ez zegoen mahai-futbolik eta pentsatu genuen hiru lagunen artean erostea; gaztetxean ipini genuen. Txapelketak antolatu eta herri askotan ezagun egin eta mahai-futbolak ipintzen hasi ginen. Gero etorri ziren bestelako makinak.

**Gaur egun zein makina mota eskaintzen dituzue?**

Makina txanpon-jaleak, bideo-jokoak, petakoak, mahai-futbolak, billarrak eta dardoak.

**Mantentze-lanez ere zuek arduratzen zarete, ezta?**

Bai, makinak guk erosten ditugu eta tabernetan instalatzen ditugu. Gure ardura da mantentze-lana; tabernariak zaintzen du eta arazoren bat dagoenean guri deitzen digu. Ondoren, irabaziak banatu egiten ditugu.

**FITXA TEKNIKOA**

**> GIPUZKOAN ETA ARABAN**
Bergaratik Donostiara eta Donostiatik Gasteizera, herri gehienetan dituzte makinak.

**> LEGEAK**
Arauak gero eta zorrotzagoak dira jokoen arloan. Horien arabera, abiadura, prezioa... aldatzen dira.

**> HIRU BAZKIDE**
Karlos Lasa, Antonio Astiazaran eta Xabier Muxika dira bazkideak. Enpresan sei langile daude guztira, eta batzuetan, gehiago.

**Zein dira zuen lanaren alde onak eta txarrak?**

Gure zaletasuna zena ofizio bihurtu dugu eta bide horretan harreman asko eta onak egin ditugu. Alde txarrak, negozio guztiek dituzten gorabeherak.

**Sumatu duzue Interneten eragina zuen lanean?**

Lehen jolasteko aukera bakarra zegoen; baina orain ordenagailu eta sakelako telefonoen bidez etxeetara iritsi dira. Horren adibidea da lehen herri gehienetan zegoela joko-aretoa eta orain apenas ikusten direla.

**etxeko leihotik**


**Iban Arantzabal** > Telematika zuzendaria

## Euskalkixen biharra

Ikastolak lan haundixa egin dabe, euskara elkartiak bizi ibilli dira Debagoienian, umiekin lan dezente egitten da, gaztetxietako kartelak ez dittugu imaginatzen euskera barik, administraziñuetan jarri dira martxan planak, euskara ikasliak ez dira falta, komunikabidiak euskeraz dihardue. Erabilleran dago oin nun lan egin. Eta hori, zuzenzuzenian lotzen da euskalkixakin.

Eta zergaittik egon euskalkixaren alde? Ba badagolako zer hobetu ahozko euskeraren egokittasun eta bizittasunaren aldetik. Tokiko euskera asko hobetu geinke ahozkuan eta zainddu eta landu biharko litzake, duda barik idatzizkuan be.

**"Herriko euskeriaren alde jardutia ez da batuaren kontrakua"**

Herriko euskeriaren alde jardutia gaizki ulertu da askotan eta pentsatzen dot horregaittik dagozela kontrako iritzixak be. Baiña argi laga deigun: herriko euskeriaren alde jardutia ez da euskara batuaren kontrakua; aldrebes, batuak eta euskalkixak eskutik juan bihar dabe.

Lanak izango dittugu, berbakeriari eusten, ahozko euskeria bizi eta egoki erabiltzen… Eta emon biharko dittugu pausuak ahal dan bizkorren, batuaren onerako be badalako, bestiak beste. Euskaltegixetan, eskoletan… Eta, zelan ez, komunikabidietan. Etxeko lanak badakauz bai.

**> Euskeria salbauta dagonik ezin esan, ondiokan, behintzat. Ezta atzeraka doianik be, Debagoienian. Boladan dago euskeriaren alde egittia, baiña oin ondo berba egittera salto egin bihar.**

**> Hezkuntza. Euskalkixarekin lotuta demaseko lana egitten dihardue ikastola batzuk, esaterako Bergara aldian, *Gehixao eta hobeto* egitasmuarekin. Eta adin tarte hori hain da garrantzitsua…**

**begi-bistan**




**Ibaia hazi-hazi eginda (Arrasate)**
**2006/03/08**

**Argazkia:** Xabi Urtzelai
**Testua:** Irati Agirreazaldegi.

Udaberria gero eta gertuago dugun arren, euria eta elurra bota du azken egunetan. Horrek eragin du besteak beste errekak gainezka egotea. Urkuluko urtegia ere ia beteta dago (%96an).

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

**izen propioak**



**Jon Andueza**
ZINEMA ZUZENDARIA

Jon Andueza arrasatearrak *Bilintx* film laburra filmatu du. Atzegi elkartearendako egin du lan hori. Gorka Zufiaurre urretxuarra da aktore nagusia. Gidoia ere Anduezarena da. Bertan, down sindromea duen mutil bat atzera botako dute *casting* batean, bere urritasuna dela-eta.



**Jokin Laspiur**
SHANGAIKO EUSKAL ETXEKO PRESIDENTEA

Jokin Laspiur arrasatearra Fagorrekin Txinara joan zen lanera orain dela urte eta erdi inguru. Orain, Shangaiko Euskal Etxeko presidente izendatu dute Juan Ignacio Motiloa ordezkatzeko. Iaz, urtarrilean zabaldu zuten Txinako lehen Euskal Etxea.



**Tomas Igartzabal**
APAIZA

Igartzabal monsinoreak 100 urte bete ditu. Zubillagan jaioa, 50 urte Argentinan egin zituen, abade. Euskal Herrira itzulita Donostian egon zen. 14 urte dira Oñatira bueltatu zela, eta oñatiarrekin ospatuko du 100. urtemuga apirilaren 30ean parrokian.

Irakasle ikasketak egin zituen Rebeka Ubera elgetarrak. Elgeta aldatzeko lanerako gertu sartu zen Udalean, baina azken 10 hilabete hauetan politika kontuekin ari da lanean buru-belarri: Aralar alderdiak Gipuzkoako Batzar Nagusietan duen kide bakarra eta Gipuzkoako exekutibako kide ere bada, zinegotzi izateaz gain. Gizarte gaiak lantzea gustatzen zaio gehien.

**Rebeka Ubera** > Aralar

# "Bake prozesuak eta normalizazioak ezin dute autodeterminazioa baldintzatu"

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

**Erakundeetako ateak herritarrendako sarri itxita egoten direla uste du Rebeka Uberak, "baina Aralarrek beti ditu ateak zabalik edonorendako", dio. Horregatik dio: "Gizartearen hainbat sektoretako jendearekin hitz egiten dugu, euren iritziak eta kezkak ezagutzeko".**



Rebeka Ubera elgetarra da Aralarrek Gipuzkoako Batzar Nagusietan duen ordezkari bakarra. GOIENKARIA

**Eraginkorrak edo sinbolikoak dira Batzar Nagusiak?**

Guztiz eraginkorrak. Bertan eztabaidatzen dira gobernuak egiten dituen proiektuak. Alderdi bakoitzak bere iritzia ematen du, bere emendakinak aurkezten ditu eta hantxe hartzen dira erabakiak. Gipuzkoako parlamentua Batzar Nagusiak dira eta hortxe hartzen dira Gipuzkoarako erabaki garrantzitsuak. Herritarren botoekin aukeratutako ordezkariek osatzen dute. Batzar Nagusietako eskumenak dira, besteak beste, errepideak, zerbitzu sozialak eta fiskalitatea.

**Zergatik dira hain ikusezinak Batzar Nagusiak?**

Foru Aldundiak indar handiagoa hartu duelako, agian. Hala ere, hainbat kolektibok edo herritarrek ezagutzen dituzte. Legealdi honetan, ordea, gehiengo absolutua du EAJ-EAk eta zailagoa da eragitea edo adostea, gauzak oso ondo definituta dituztelako.

**Ze gai dituzue orain mahai gainean?**

Gai bat baino gehiago ditugu. Zabor kudeaketa da gaietako bat, adibidez. Gipuzkoar guztiondako da garrantzitsua gai hori eta geldi dagoen gai bat da. Plangintza bat badago, baina oso txarra da. Pasaiako portu erraldoiaren gaia ere esku artean dugu: ez dago inongo azterketarik ideia hori sustengatzen duenik, proiekturik ere ez dago, ekonomikoki ez du euskarririk. Bilboko portua ere ez da iritsi aurreikusten zuten mailara eta uste dut adibidetzat hartu beharko litzatekeela, bideragarritasuna ikusteko. Aztertzen ari garen beste gai bat da zerbitzu sozialena: mendekotasuna dutenei laguntzeko behar diren zerbitzuek nolakoak izan behar duten. Guk argi dugu unibertsalak eta publikoak izan behar dutela zerbitzu horiek. Uste dugu zerbitzu horiek etxe inguruak eskaini behar direla, eta mendekotasuna duen pertsonarengandik ahalik eta gertuen egon behar dutela zerbitzuok.

**Kosta egiten da arazoak konpontzea?**

Bai, kosta egiten da. Gaiak behin eta berriz datoz bueltan.

**Ze puntutan dago bake prozesua?**

Ez dakit, baina garbi dago bake prozesuan gaudela. Denok egin behar ditugu eginahalak bakea gauzatzeko, bakoitzak dagoen aldetik eta duen erantzukizun mailatik.

Presoen inguruko azken gertakizunak oso larriak izan dira. Egoera okertu egin da, eta kezkatuta gaude. Uste dugu presoen egoerak izan behar duela lehenengo puntuetako bat bake prozesu horretan.

**Hitz egin behar da bakeari buruz, edo dagokienei lanean utzi behar zaie, isilik?**

Bakea denon arazoa da. Horren inguruan jendeak esperantza handiak ditu eta ilusio hori gauzatu egin behar da lehenbailehen. Bake prozesurako, ordea, bi su-eten behar ditugu: ETArena eta Espainiako Gobernuarena.

Bestalde, bake prozesuaren eta normalizazioaren bideak ez du baldintzatu behar autodeterminazioa. Hori da guk dugun eskubide bat eta horren alde egin behar dugu lan, bideak jorratzen eta adostasunak lortzen.

BATZAR NAGUSIAK

**"Gipuzkoarako erabakiak hartzen dira, Gipuzkoako parlamentua dira"**

EZKERRA

**"Egin beharko genuke indarrak batu, adostasunak lortu eta elkarrekin lan egin"**

PRESOAK

**"Presoen egoerak lehenengo puntuetako bat izan behar du bake prozesuan"**

**Zelan ikusten duzu ezkerreko pentsamendua Euskal Herrian?**

Aralar mugimendu horren barruan dago, horretan sinisten dugu eta ilusioa dugu. Politika egiteko orduan, gai bat erabaki behar denean, baiezkorik ez dugu ematen ez badago trukean hobekuntza sozialik. Horren adierazgarria da, esaterako, Ibarretxeren inbestidura. Ezkerra, berriz, nork bere moduan ulertzen du zer den ezkerra eta askotariko iritziak ditugu. Egin beharko genuke indarrak batu, adostasunak lortu eta elkarrekin lan egin ezkerretik. Uste dut iritsiko den normalizazio garaian hori ere lortuko dugula.

**Jarraitzen duzue haserre EAJ-EArekin Elgetan eta minduta EBrekin Arrasaten?**

Elgetan ia ez dugu harremanik EAJ-EArekin, udalean lan egiteko ditugun moduak oso ezberdinak direlako. Inoiz ez gaituzte errespetuz tratatu. Arrasaten, ez dugu ulertu EBren jokaera; han konponduko dira.

**Diote zaila dela emakume izatea eta kargu publikoa edukitzea. Nola moldatzen zara zu?**

Oso zaila da. Egungo gizartean emakume guztiek dute zaila familia bizitza eta lana uztartzea, ez dagoelako erraztasunik.

**Datorren urtean dira udal hauteskundeak. Hasi da kanpaina?**

Aztertzen ari gara zer egingo dugun eta non. Ordurako bake prozesua oso aurreratuta egotea espero dut eta denok kanpaina normaltasunez burutzea.



zabalik

Markos Balentziaga

# Kaleko erretzalleak bihurtu gara

Ez neuke esango aurtengo negua epel goxuan doianik; bai zera! Kalian pasiatzeko barrurako egun apraposaguak emoten dihardoskuna dalakuan nago. Dana dala, norbaitek besterik uste badau, eztabaidatzia be badauka... berotzen hasteko!

Ba hotz guztien gañetik kaleetako espaloi bazterretan, lantegi, eskola eta halakoen aurrian, batian eta bestian, ikusten dan jende-mota batek nauka lur eta zur. Zer egiten jok jende horrek batera eta bestera pasiadatxo motzak egiñez, hotz demonio honekin, hor kalian? Ez ote jak paraje atsegiñagorik inguru guztian?

Erretzen dihardu. Haize-zirimola petralen batek emendatuko dotsan bildurrez, hor dabil, gure zigarro zalea, zigarroari keia hurrupada luzetan tira eta tira. Tarteka-tarteka eztul-kate batek arnasia trabatzen dotsa, ez erretzeko miña.

> **"Hor dabil, gure zigarro zalea, zigarroari keia hurrupada luzetan"**
>
> **"Orain xigarro xixtrin baten poxa izateko kale gorriraño jatsi bihar"**

Egunon agurrari egunotz! erantzuten dotsa, dardara baten. Ondoren, kiribilletan botako dau keia haizetara.

Eta neguan zihar, holaxe, egunero-edo, kale-zain bezain hotzzain, zigarro piztu baten pertxa bihurtuta.

Ez dago giro kalian erretzeko, legiak lehenagoko erretzeko girua bera kizkaldu dau eta.

Danon goguan dira sasoi bateko laneko, sindikatuko, auzokuen arteko edo bestelako batzarrak. Hareetan arrazoiak eta keia batera zabaltzen ziran batzarkidien artian, eta kontrarrazoien leungarri, ke-putzada luze-luzia botatzen zebanik be bazan.

Orain xigarro xixtrin baten poxa izateko kale gorriraño jatsi bihar, inguruan tabernarik ez dagoalako. Alde guztietan dira ez eguraldixak eta ez denboriak tenplautu ezin dituan militantziak.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martinez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## NOIZ IZATEN DIRA TENPORAK?

**Elgetar batek deitu digu galdetzeko ea noiz diren tenporak.**

Pello Zabala da gurean kontu hauetan aditua, baina sarean ere aurki daiteke tenporen gaineko informazio ugari. Hara jo dugu eta hantxe topatu dugu erantzuna. Tenporak izaten dira urtaro berriaren aurreko astean, hain justu ere eguazten, egubakoitz eta zapatua hartzen dira aintzat. Egun horietako eguraldiak markatzen du, hainbaten ustez, hurrengo urtaroan egingo duen eguraldia edo zein izango den joera. Eguaztenean egin duen eguraldiagatik jakingo dugu urtaroko lehen hilabeteko eguraldia; egubakoitzean egin duenagatik, bigarren hilabetekoa, eta zapatuan egin duenagatik urtaroko azkeneko hilabetekoa.

Negua amaitzera doan honetan udaberriko tenporak gain gainean ditugu. Datorren astean izango dira: martxoaren 15ean, eguaztena; 17an, egubakoitza, eta 18an, zapatua. Egun horietako eguraldiak (gauerdira arte itxoin behar da horretarako) esango digu apiril, maiatz eta ekaineko eguraldia zelakoa izango den. Udaberria martxoaren 21ean hasiko da.

## OÑATITIK ARANTZAZURA AUTOBUSA

**Zenbat kostatuko da Oñatitik Arantzazurako autobusa? Horixe galtzen digu irakurle batek.**

Joan zen asteko GOIENKARIAn aurreratu genizuen Oñatiko Udalak erabakita zeukala apirilaren 2tik azaroaren 1era arte autobus zerbitzua ipintzea. Prezioa ere zehaztu genuen: euro 1. Domeka eta jaiegunetan ibiliko da gora eta behera autobusa eta ordu oro aterako da Oñatitik, 07:30ean hasita; Arantzazutik, 19:30ean jaitsiko da azkena. Oñatin, ohiko hiru bus geltokietan egingo du parada.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## EPELE-KASKONATEGI ERREPIDEA NOIZKO?

**Oñatitik Arrasatera joan-etorria egunero egiten duen irakurle batek galdetu digu noiz zabalduko duten Epeletik Kaskonategirainoko errepide zatia.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideetako prentsa arduradun Oscar Rekalderi galdetu diogu eta zera erantzun digu: "Orain azken lanak egiten ari dira, asfaltatzea eta pintatzea, eta horretarako, derrigorrezkoa da eguraldi ona izatea. Bestela, ezin da lan mota hori modu egokian egin. Eguraldi ona baldin bada, hau da, zaparrada larregirik ez badugu bitartean, lanak Aste Santurako bukatuko dira. Bestela, apirilaren amaierarako.

marrazkiz

Alex Ugalde




# 27 galdera

**Edu Mendibil**
www.goiena.net/blogak/edu

Ruperren kantu politx haren izenburuari jarraituz, horra hor 27 galdera (hamar jan egin ditut, badaezpada) pantailaz bestalde diren ikusleei:

Ezagutzen duzue etxean audimetroa duen norbait? Botoa eman duzue sekula Iparragirre sarietarako? Noiz amaituko da *Goenkale*? Nork hil zuen Laura Palmer? Mundiala irabazi barik erretiratuko al da Jose Angel De la Casa? Zein da Felix Linaresen eztarri sakona? Erosi al du inork ordu txikietan iragartzen dituzten fitness produktuak? Baiezkotan, non gordetzen dituzue trasto horiek? Non dira Canal Pluseko porno film deskodifikatuak? Graziosoa iruditzen zaizue Carlos Sobera? Nolatan ez dira banatzen Hommer eta Marge? Zeinek askatuko du Estepan Aldamiz bere kaiolatxotik? Badago Los Morancosen jarraitzailerik gure artean? Pilotarik gabe zer egingo luke ETBk asteburuetan? Psikoanalista al da Jesús Quintero? Zenbat lifting egin ditu Jordi Hurtadok? Inork badauka Argiñanoren bibliografia osoa? Zenbat pleito jarri dizkiote *Aqui hay tomate*-ri? Monacoko Printzesa izaterik izan zuen Anne Igartiburuk? Oscar Terol eta konpainia faltan botatzen dituzue? Perurena, kantari ala tertuliano? Sardak zer ikusten du gauetan? Nork tirokatu zuen Paradaren pianista? Eta Garci, Casablancara joan al da Elene Lizarralderen bila? Zergatik ez dituzte errespetatzen filmetako kredituak inon? Noiz berreskuratuko dugu *Sautrela*? Non ikus daiteke garai bateko *carta de ajuste* hura?

plazara

Oñatiko alkate aldaketaren kontua hitz hartuta, lehenagoko oroitzapenak ekarri ditu gogora autoreak, etorkizunari begiratzeko. Mundu globalizatu honetan, datorrenari aurrea hartu eta, aldi berean, herri honek dituen nortasun ikurrei eustea zein garrantzitsua den azpimarratzen du, eta dio: "Gu bezalako herri txikiek ezin dute herrigintzarako galdutako belaunaldirik izan".

**Iñaki Galdos Irazabal ***

# Alkate berriaren hitzak aitzakia hartuta

Jakina da alkate berria daukagula Oñatin. Lasai egon: ez naiz hemen aldaketaren zergatiak aztertzen hasiko, ez eta iritsi berriari batzuk ukatzen dioten zilegitasuna defendatzen. Ez. Gai horiei buruz dagoeneko asko berba egin eta eztabaidatu da dagoeneko, gehiegi, herritar askoren ustez. Lerro hauetan, zinegotziok Lourdes Idoiaga aukeratu genuenean esan zituenak eragin zidaten gogoeta izan nahi dut hizpide.

Gaztea da alkate berria (ez horregatik, Lourdes!), baina eskarmentu handikoa. Herrigintzari eskaini dizkion urte luze eta oparo horien zertzelada batzuk eman zizkigun alkatetza hartu ondorengo hitzaldi labur baina hunkigarrian. Besteak beste -eta bereziki- Oñatz eta Oñatiko Ikastola aipatu zituen, hauen sorrera eta garapen zail baina aberatsa.

Eta une horretan hasi nintzaion nire buruari galdezka ea gure oroitzapen historikoan ezer geratzen den herriaren garapenerako hain garrantzitsuak izan ziren mugimendu haien inguruan. Edo, are garrantzitsuago dena, oroitzapen historikoan ez ezik, gure egungo izaeran ere zerbait geratu den orduko izaera gartsu eta grinatsutik.

Ez naiz nostalgikoa. Erabat garbi daukat arlo gehienetan izugarri aurreratu dugula Euskal Herrian, guztion lanarekin, azken hamarkadetan. Baina horrekin batera kezkatuta ere banago, belaunaldi luzez gure herri izaera taxutu duten eta herri gisa bizirauteko ezinbestekoak izan ditugun hainbat ezaugarri galtzen ari garelako.




MIKEL ARROIABE

Garai berrietan sartua dago mundua eta ezin diegu garai berriei muzin egin. Alderantziz, etorkizunean zerbait izan nahi badugu, gure ekonomia, gure hizkuntza, gure unibertsitateak, gure azpiegiturak... garai berrietan txertatzen asmatzea da aurrera begira daukagun erronka nagusienetakoa, nagusiena ez bada. Baina mundu globalizatu honetan herri txikia izanik, garai bateko herrigintza berrindartu beharreko tresna da. Molde berriekin, ikuspuntu berriekin... baina berrindartu.

Duela egun batzuk euskal soziologo batekin berba egiteko aukera izan nuen, abertzale eta euskaltzale ezaguna bera. Nire kezka bertsuak zituen baina, bere ustez, globalizazioak eragindako aldaketa orokorraz gain, badago beste arrazoi bat Euskal Herrian egoera honetan murgildu gaituena. Soziologo honen esanetan, Euskal Herria herri gisa XXI mendera bere hizkuntza eta guzti iritsi bada, bere baitan hiru komunikazio sare garrantzitsu izan dituelako iritsi da: familia, auzoa eta lantokia. Eta komunikazio sare horiek krisian sartu direnean, ez dugu asmatu ez sare horiek konpontzen, ez sare horiek ordezkatzen.

**"Mundu globalizatu honetan herri txikia izanik, garai bateko herrigintza berrindartu beharreko tresna da. Molde berriekin, baina berrindartu"**

**"Ohiko komunikazio sareak krisian sartu direnean, ez dugu asmatu ez sare horiek konpontzen, ez sare horiek ordezkatzen"**

Beraz, Euskal curriculumaz hitz egitea oso modan dagoen honetan, belaunaldien arteko komunikazioa hobetuz, tokian tokiko curriculum txikiak ere aldarrikatu nahi ditut nik. Euskal Herriaren geroa bermatzeko Nafarroako Erresumako benetako historia ezagutzea eta ezagutaraztea garrantzitsua den bezala, oso garrantzitsua da belaunaldi berriek jakitea herriko ikastola ez zela zerutik eroritako opari bat izan, garai gogorretan herrietan kultur mugimendu garrantzitsuak gauzatu zirela. Agian horrela jabetuko dira (gara) gu bezalako herri txikiek ezin dutela herrigintzarako galdutako belaunaldirik izan.

Bitartean, ez nahi beste eta nahi bezain indartsuak, baina zorionez egon badaudelako, euskalgintzan, kulturan, kiroletan eta beste hainbat esparrutan eguneroko lanarekin herria, nazioa, eraikitzen diharduten talde eta pertsonen lana aitortu, eskertu, txalotu eta laguntzea derrigorrezkoa da.

* Gipuzkoako Eusko Alkartasuneko presidentea

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Lurzoruaren Legea da irtenbidea?

| | |
|---|---|
| BAI | %50 |
| EZ | %50 |

**> ZAILA KONPONTZEA**
Etxebizitzaren arazoa oso konplexua da. Zelan merkatuko ditugu etxebizitzak, udalak eurak badira espekulatzaileak?
**Jokin**

**> GUSTATU ZAIT LEGEA**
Legearen gainean irakurri dudan apurra gustatu zait. Aukera gehiago emango digu babes ofizialeko etxeak erosteko eta baita etxeak errentan hartzeko ere.
**Aitziber**

**> EZ DA SOLUZIOA**
Lurzoruaren Legea ez da soluzioa.Betikoek aginduko dute aurrerantzean ere: lurren jabeek, eraikuntza enpresek, bankuek... Ez dago beste soluziorik: okupazioa!
**Mikel L**

**> ONGI ETORRI LEGEA**
Lurzorua arautzeko legea egitea ondo deritzot. Gainera, etxebizitza babestuen alde egingo ei du legeak eta hori ona da prezioak merkatzeko.
**Marta**

**DATORREN ASTEKOA: Gustura zaude zure herriko kultura eta kirol instalazioekin?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

blog-top

## "Gobernadore zibilaren pare"

**Imanol Murua Uria**
www.berria.info/blogak/imanol

Juan Mari Olanok kontatua, elkarrizketaren ondoren baina argitaratzeko baimenarekin.

"Santurtzin Igor Anguloren harrera eta omenaldia egiteko baimenak-eta gestionatzen ari ziren bitartean, badakigu egon zirela telefono elkarrizketak Santurtziko alkate sozialistaren, Paulino Luesma espainiako gobernuko ordezkariaren eta Javier Balza segurtasun kontseilariaren artean. Elkarrizketa haietan, aluzinantea bada ere, Balzak zirudien frankismoaren gobernadore zibila, planteatu zuelako Santurtzira sartuz gero, edozer gauza eginez gero, matxakatu egingo zuela jende guztia, eta zerraldoa ere botako zuela. Baude lekukoak hori ziurta dezaketenak. Egia da Santurtziko alkateak egoera ulertu zuela eta herritarrekin hitzartu zuela harrera egitea udaletxeko plazan, eta badakigu baita ere gobernu espaniarreko delegatuak ere onetsi zuela planteamendu hori eta bere gain hartu zituela ondorio guztiak, baina Balza izan zen horren gainetik pasatu eta guztia debekatu zuena, oso hitz itsusiekn gainera. Santurtziko alkatea bera ere harrituta zegoen Balzaren jarrerarekin".

Beste kapitulu tamalgarri bat, istorio negargarri honetan.

## Tio Felix

**Joxe Arantzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Larunbatean hil zen Felix Aranzabal, Angiozarko Itsua, guretzat tio Felix, aitaren anaia baitzen. Umetan nire heroietako bat zen tio Felix. Urtero pare bat aldiz ikusiko genuen elkar, maiatzaren 15ean, sanisidroetan —orduan gurean egiten zuen lo—, eta abuztuaren 24an, sanbartolometan, Aguleta baserrian, Angiozarren.

Haren etorrera festa seinale izaten zen gurean. Sozietatean, kioskoan eta baita kalean zehar ere, berak ipiniko zuen musika. Askotan, gainera, bertsolariak izaten zituen inguruan, haiek ere festa girotzen. Alaia zen, baina gainerako guztiok uju eta aja genbiltzan bitartean, bera lanean zintzo demonio.

koplak

**Aretxabaletako bertso-eskola**

## Eskatzea libre

Eskatzen diogu guk
udaletxeari
zinea falta zaio
gure herriari.

Jolastu ta bainatu
edo egin dantza,
Loramendin jarriko
genuke hondartza.

Eskolaren parean
akuariuma falta,
eskatzen gabiltza gu
hori libre da ta.

# Zabalotegiko auzotarrek Mikel Aranzabali

**Aitor Gantxegi** (Bergarako Zabalotegiko auzotarren izenean)
Bergara

Bergarako Zabalotegiko auzotarrok gure kalea zeharkatuko duen errepidearen aurkako jarrera egoki azaldu ez izana sentitzen dugu. Esan nahi dizugu inoiz ez dugula proposatu errepide hori beste leku batetik egitea, gure jarrera errepide hori ez egitearena da, ez dugulako beharrezkotzat jotzen, eta Bergarako Udalaren aldetik oraindik ez dugulako berau egiteko justifikaziorik jaso (herriko jauntxoen alde egitearena ez bada), eta guretzat nahi ez duguna ez dugulako besteentzat nahi.

Guk eskatzen duguna da proiektuek oinarri bat edukitzea, denon onerako izango direnak, beharrizan erreal bat dutenak, eta ez Udalarekin tratuak egin dituzten pertsona partikularren interes ekonomikoendako onak bakarrik izango direnak.

Ohartzen bazara, errepidearen proiektuaren helburu bakarra eraiki nahi dituzten hiru etxe multzo berrien arteko lotura izatea da. Udalak lurzoru horien jabeekin paktatua du hori dagoeneko. Etxe multzo hauek hemen eraikiko dira: Mariaren Lagundia, prezio libreko etxebizitzak; Iraburu baserriko lursailak: prezio librekoak hauek ere; Errekalde parkearen lurretan, bai, parke publiko baten lurretan, prezio libreko etxebizitzak eraikiko dira.

Gure ustez, pertsona hauen interesek herriaren interesarekin topo egiten dute, etxebizitza promozio guztietan Udalak zerbait eman baitu trukean. Esan diezaiotela Bergarako herriari ea zer ateratzen duten onuran Udalaren aldetik lurzoru hauen jabeek. Baita ere proiektu honek topo egiten du ingurugiro eta garapen jasangarriaren printzipioekin, eta Zabalotegi, Bolu eta herriko alde zaharraren bizilagunen bizi kalitatearekin. Bolurentzat kaltegarria izango da alde honetatik: Koldo Eleizalde kaleko aparkaleku guztiak desagertuko dira, eta kale hau bi aldeko errepide bihurtuko da, Elosura bidea izango dena.

Alde zaharrentzat ere kaltegarria izango da. Nahiz eta zuk diozun moduan herri erdialdea oinezkoentzako izatea aurreikusten duten proiektuak egon, momentuz bakarrik aurreikusita dagoena da Artekalea eta Arruriaga izatea oinezkoentzat, eta proiektu hau aurrera irteten bada, Madalena plaza desagertu egingo litzateke (Mizpirualde egoitzaren aurrean dagoena), eta Mizpildi, Komenio eta Bidekurutzeta kaleak herriko sarrera bihurtuko lirateke.

Ikus dezakezunez, hau ez da, alkateak esan zuen bezala (bere alderdiak eta EAk ez du gurekin bildu nahi), gaizki ohituta dauden auzotar batzuen haserrealdi bat, dezente konplikatuagoa da.

Espero dugu zeneukan zalantzak argitu direla, baina dena ezin da eskutitz batean laburtu; beraz, prest gaude zurekin egon eta oraindik eduki ditzakezun galderak pertsonalki erantzuteko.

# Euskaltzaindia eta zentsura

**Patxi Olabarria** > Antzuola

Duela aste batzuk *Antzuolako Toponimia* liburua aurkeztu zen. Herriko toponimia biltzeko beka bat deitu zuen Udalak eta gure herritarra den Kristina Pavok egin du liburua. Kristinaren lana benetan txalogarria izan da; 755 orriko liburu mardulean 1.700 leku-izenez gain, 170 argazki bildu ditu. Liburua argitaratzeko ardura, berriz, Euskaltzaindiarena izan da, zehazki Euskaltzaindiaren Onomastika Bildumako 25. liburua izan da hau.

Liburuko argazkietan herriko kale, etxe eta baserriak ageri dira. Baina, hau da ustekabea hartu duguna! *Euskal Presoak Euskal Herrira* lema duten ikurrak etxeetako balkoietatik kendu egin ditu Euskaltzaindiak! Sinestezina dirudien arren, liburuko argazkiak faltsutu dituzte, euskara arautzeaz gain, Photoshop zentsuratzailea erabiltzen benetan trebeak direla erakutsiz.

Gertakari hau benetan larria delakoan nago; beraz, zera eskatu nahi diot Euskaltzaindiari: batetik, azalpen bat ematea, eta bestetik, argitaratutako liburu guztiak lehenbailehen erretiratu eta argitalpen berri bat egin dezala baina errealitatea ezkutatu gabe, Antzuola den bezala azalduz.

# Nazkatuta!

**Irati Arantzabal Zuloaga**
(Etxerat-en izenean)
Arrasate

Nazkatuta, haserre eta inpotentziaz beterik; horrela aurkitzen naiz (eta ni bezala beste horrenbeste pertsona), azken egunetako gertaeren bilakaera ikusirik.

Pasa den astean bi urtez espetxean preso egon ondoren, ikaragarri maite dudan lagun bat itzuli zen azkenean etxera (fidantzapean, hori ere zehaztu behar), nolako poza, emozioa, ikaragarria berriz bera besarkatzea... Baina, poz horrek bi egun iraun zuen, bi besterik ez. Izan ere, beste etxe baten ez zutelako gehiago besarkatuko 10 urtez etxetik kanpo, preso zeramatzan senide eta laguna zen Igor Angulo santurtziarra. Hau astelehenean gertatu zen eta ostiralean Portugaleteko preso zen Roberto Sainz agertu zen hilik. Robertok bi urte zeramatzan preso, oraindik epaiketaren zain, egoera prebentiboan.

Bi hildako bost egunetan, Igor itxura denez bere buruaz beste eginda; itxura denez diot, bai mediku, abokatu eta senideek ikaragarrizko zalantzak dituztelako honen inguruan, ez dago batere argi bertan gertaturikoa. Igor Cuencako espetxean preso zegoen euskal preso politiko bakarra zen, horrela izan dute hainbat urtez eta honek ez dio laguntzen bere kasua argitzeari. Hori izan da Madrilek ezarritako espetxe politikaren ondorioz Igorreri gertaturikoa, gaur egungo espetxe politikaren ondorio.

Roberto Igorren heriotza salatzeko Aranjuezen burutzen ari zen enkarteladan gaizki aurkitu eta hil zitzaigun. Igorrek bihotzeko arazoak izan arren ez zituen Aranjuezko espetxean beharrezko tratamendu medikoak jaso. Bera ere espetxe politikaren ondorio garbia.

Larunbatean Santurtzin genuen zita, bizirik eraman eta hilik itzuli dizkiguten bi senide eta laguni gure maitasuna helarazteko, beraien senideei elkartasuna adierazteko, eta gure barrenean sentitzen dugun saminarekin aurrera egiteko. Baina EAJren agindupean dagoen Ertzaintzak ez zigun gure dolu une hori errespetatu! Bertan bildutako milaka eta milaka pertsonen aurka aritu zen, bortizki, karga neurrigabeekin, zaurituak edonon utziz... Lotsagarria! Lotsagarria da Balza Barne sailburuaren jarrera, bere adierazpenak eta orokorrean EAJ osoarenak. EAJkoentzat, atzoko eta aste honetako beste egunetako ertzainaren jarrera neurrikoa izan da. Neurrikoa? Beraiek pasatu diren edozein herri, kaletik zaurituak besterik ez dute utzi eta? Neurrikoa da atzo, adibidez, Robertoren herriko beste adinedun senide bati pilotakada batek buruan jo eta begia galtzeko arriskuan egotea?

Hiru urtetan Oihane Errazkin, Jose Angel Altzuguren, Igor Angulo eta Roberto Sainz senide presoak hil zaizkigu. Eta denbora honetan ere, Argi Iturralde, Iñaki Balerdi, Sara Fernandez, Leo Esteban, Karmele Solaguren senideak dispertsioaren eraginez. Gaur egun martxan jarraitzen duen dispertsioaren eta espetxe politikaren ondorio dira, ez dago zalantzarik, eta egoera honekin noiz arte jarraituko dugu? Zein izango da hurrengo hildakoa, senide bat, lagun bat, preso bat? EAJk berehala egin zituen egin beharreko gestioak bere momentuan sakabanaketa martxan jartzeko eta ez al du ezer egin behar horrekin bukatzeko? Heriotza hauen arduradunak direla ez dezatela ahaztu, ez dezatela ardura dena Madrilera zuzendu; eta gainera, zaurituak utzi dituzte maite ditugunak agurtzeko unean! Lotsagarria, gure hildakoei ezin negar egiteko aukerarik izatea, eta batzuentzat gure biziak horren balio gutxi izatea!

Agur eta ohore, Igor, Roberto! Gure bihotzetan aske zarete!

# Gauza batzuk argitu

**Xabier Sarasua**
Kultura Zunegotzia Aretxabaletan
Aretxabaleta

Joan den asteko GOIENKARIAn argitaratutako gutunak ez zuen argitaratu behar, horren ordez bidalitako beste batek baizik. Hanka sartzea izan zen beste batzuk esan omen dituztenei buruzko aipamenak egitea eta, horregatik, barkamena eskatzen diet.

Bestetik, 23F+3 ekimenekoek haien testuan zinegotzi bezala izan ez dudan jarrera leporatzea ustekabeko akatsa izan zela azaldu didate eta zuzenketa egiteko asmoa zutela. Neure aldetik, "manipulazioa" egon ote zeneko susmoa genuela adierazi nuen baina, azalpenen ondoren, horrelakorik ez dela egon uste dugu eta zoritxarreko akats bat izan dela. Horregatik, barkamena eskatzen diegu koadrilei eta gure adierazpenengatik minduta sentitu ahal izan direnei. Gertatuak gertatu, ea aurrera begira herriko jaiak elkarlan bidetik hobetzeko ahaleginean asmatzen dugun.

# Iturbide egoitzako familia

**Agurtzane Gaintzarain**
(Milagros Herizen familiaren izenean)
Arrasate

Hainbat urte pasa dira Milagros Iturbide egoitzara bizitzera joan zela. Hasieran kostata, norberaren etxea utzi behar eta beste batera joan beharra gogorra baita. Adaptazio epea gogorra izan zen, baina urteak pasatu ahala bere lekua aurkitu zuen eta familia handi hartako beste kide bat izatea lortu zuen.

Iturbide egoitzan profesional talde on bat aurkitu zuen Milagrosek, zaindu, apaindu, garbitu... egiten zutena. Baina hori baino gehiago eta garrantzitsuagoa dena ere aurkitu zuen, bigarren familia bat, bizilagunek eta bertako langileek osatutakoa.

Izeba Mila joan egin zaigu eta Iturbideko egoitzako lagunei eskerrak ematea nahi dugu, bihotzetik eskerrak Milagrosen familiaren zati bat izan zaretelako. Arrasateko herria pozik egon daiteke bere nagusientzat duen zerbitzuaz; profesional oso onak izateaz gain, bihotzarekin lana egiten dute eta hori diruaz ez da ordaintzen.

Eskerrak bertako bizilagunei ere, eman diozuen laguntzagatik. Jarraitu horrela eta mila esker denoi.

# ZUZENKETA

## Populazioak behera

Joan zen asteko GOIENKARIAn argitaratu genuen albiste bat non aipatzen baikenuen populazioak gora egin duela azken bost urteotan Debagoienean. Albistea ez zen zuzena; izan ere, 2005eko Arrasateko datua okerra zen: behar zuen 22.640 biztanle eta jarri genuen 23.640; hau da, mila gehiago. Horrek dena aldatzen du. Batetik, Debagoienean gaur egun bizi garenon datua: 53.329, eta ez 64.329; bestetik, datuetatik ateratzen den ondorioa, hau da, populazioak behera egin duela 2001etik hona. Hain justu ere, 550 biztanle galdu ditu Debagoienak epe horretan, eta azken urtean 237 bakarrik galdu ditu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


PRESTA ZAITEZ
UDAKO OPORRETARAKO!
Martxoaren 31 baino lehenago
bidaia erreserbatuz gero...
KARIBEA - IA '2x1'
Bavaro hondartza, Punta Cana, Puerto Plata, Cancun,
Maia Erribera, Varadero, Esmeralda hondartza...
ITSAS BIDAIAK - %50erainoko deskontua
Mediterraneoa, Adriatikoa eta Greziako Uharteak, Karibea...
KOSTA - %20rainoko deskontua
KANARIAR UHARTEAK ETA TUNISIA
%10erainoko deskontua
Eta Aste Santurako ere...
EUROPA ETA UHARTEAK
martxoak 18a baino lehenago
bidaia erreserbatuz gero...
Deskontu bereziak
Zure konfiantza saritu nahi dugu!
Postal bat bidaltzen badiguzu, urte amaieran egingo
dugun zozketan parte hartzeko aukera izango duzu:
bainuetxe baten aste bukaera zoragarria!
BIDAIA HANDIETAN ESPEZIALISTAK GARA
Costa Rica, Argentina, Australia, Zeelanda Berria...
Arrasate Bidaiak
CIE 2214
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA
marsans
viajes
Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es

# Ziorla Autoak

PEUGEOT



## Zabaldu berria
## Salmenta eta tailer zerbitzua

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE
Tel: 943 77 01 44



## Angela Estetika Zentroa

**Udara begira, laser tratamenduak hartzeko azken egunak**
**Ez galdu aukera!**

### LASER DEPILAZIOA

| | |
|---|---|
| Goiko ezpaina | 35 € |
| Kokotsa | 45 € |
| Besapea | 91 € |
| Izterrondoa | 91 € |
| Izterrak | 225 € |
| Hanka Erdiak | 191 € |
| Hanka osoak eta Izterrondoa | 450 € |
| Besoak | 90 € |
| Sorbalda | 166 € |
| Bularra Gizona | 166 € |

Prezioak saio bakoitzeko
Tratamendua bat baino gehiago hartuz gero, prezio bereziak.

## Angela Gorputz Zentroa

**Argaltzea eta gorputz tratamenduak**
**Medikamentu eta orratzik gabe**

• Zelulitisa eta “laranja azala” izeneko efektua dira emakume askok izaten dituzten arazo antiestetiko handienak. Hauentzat ere badugu irtenbidea: loditasuna, tinkotzea, tonifikazioa, hanka nekatuak eta denetariko gorputz arazoak.

• Lan egiteko modua oso erraza da. Problematika mota hori lantzeko 5 aparatu ditugu. Astean bi aldiz landu ostean irtenbidea ematen diogu (gehienez 8 saio hileko).

• **Tarifa finkoa: 60 € hileko.**
**Hilabete honetan, matrikula doan** (40 €).

• Eskatuz gero, zure zerbitzura egongo diren bi dietistaren aholkularitza jasotzeko aukera izango duzu.



angela estetika zentroa

**Angela Estetika Zentroa**
**Ferrerias 35 - ARRASATE**
**943 79 88 23**
**Angela Gorputz Zentroa**
**Iturriotz 35 - ARRASATE**
**607 59 64 29**
**www.angelaestetika.net**

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39




**> BERGARA**
Euskaraz jakin arren, dakitenen erdiak egiten du berba **> 25**



**> ARETXABALETA**
Herriko argazkiak gordeko dituen artxiboa egiten dabiltza **> 31**




**> ANTZUOLA**
Udalak 2.581.386 euroko aurrekontua aurkeztu du **> 36**



**> ARAMAIO**
Kultura etxeko itoginak konpontzeko lanak egiten dabiltza **> 38**

**ARETXABALETA** > ISUNAK

# Isunek erakusten dute orokorrean gaizki aparkatzen jarraitzen dugula

**ARINAK**
1.170 isun ipini zituzten 2005ean, gehienak arau-hauste arinengatik

**GAIZKI APARKATUTA**
Aretxabaletan gehien errepikatzen duten arau-haustea da autoa gaizki aparkatzea




**ESPALOIAN** Argazkiak erakusten duen moduan, ohitura handia dugu ibilgailuak espaloi gainetan lagatzeko. MIRARI ALTUBE

**UBANE MADERA** > ARETXABALETA

Aretxabaletako Udaltzaingoak jakinarazitako datuen arabera, 2005ean 1.170 isun ipini zituzten udalerrian, 2004an baino 153 gehiago: "Igoera normala da, urtetik urtera igotzen da isun kopurua, ibilgailu gehiago daudelako". Halaxe adierazi digu udaltzainburu Martin Garaik.

Isun gehienak arinak izan zirela gaineratu digu, ibilgailua gaizki aparkatzeagatik ipinitakoak: "Batez ere, espaloi gainetan, aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan, zebrabideetan… uzten dute autoa". Halaber, Garaik esan digunez, denetik egon arren, jeneralean, behin isuna ipiniz gero, arau-hauste hori egin duenak eskarmentua hartzen du eta ez du errepikatzen.

Isunen zenbatekoari begiratuta, berriz, Trafiko zuzendaritzak zehazten dituela kontatu digu, eta, haren arabera, isun arina 90 euro ordaindu behar dela eta larria bada, 300 bat euro.

**GARABIA IPINTZEKO ASMORIK EZ**

Garabiari dagokionez, Aretxabaletan ez dute halakorik eta aurrera begira ez dutela aurreikusten adierazi digu: "Ez dugu ipintzeko asmorik, momentuz ez behintzat. Ez da horren erraza, ibilgailua gordetzeko lekua behar da, pertsonala…" Beraz, badirudi orain arte moduan segituko dutela: "Molestatzen duenean, etxera abisatzen diogu jabeari, ibilgailua ken dezan; eta bestela, badugu tramankulu bat autoak mugitzen laguntzeko, baina hori erabiltzen dugu kasu larrietan bakarrik".

Albiste on bat ere eman digu udaltzain-buruak: azkenaldian horrenbestetan gertatzen diren oinezkoen harrapatzerik ez dela egon eta gainera, herriko zebrabideen egoera eta kopurua egokia dela orain dagoenetan.

**BESTELAKO KEXUAK**

Bestelakoen artean, udaltzaingoaren jarduerarekin lotuta, Martin Garain esan digu herritarrek aurkezten dituzten kexa gehienak daudela lotuta zaratekin, txakur-kakekin eta auzotarren arteko liskarrekin. Eta zirkulazioarekin lotutakoez gainera, Hirigintzarekin lotutako egintza salagarriak gertatzen direla gehien: "Fabriken isurketak, baimen barik egiten diren lanak, txakur-kakak… Halakoetan Udalari informatu egiten diogu eta hark erabakitzen du zer egin".

**ASTE BARRUAN ETA ZAPATU GOIZEAN**

Gaur egun lau udaltzain eta udaltzain-buru batek jarduten dute Aretxabaletan: "Horrek ez du esan nahi egunero bostok egiten dugula lan; oporrak, bajak… hortxe daude". Aste barruan eta zapatu goizetan egoten dira. Eta etorkizun hurbilean, behintzat, hala segituko dutela esan digu.

KONTUAN HARTZEKO

## Isunak gogortzeko joera

Datuek diote gaizki aparkatzea dela herri barruko zirkulazioarekin lotuta dagoen arazo nabarmenena, beraz, ez dirudi larria. Baina hala ere, ibarrean geroago eta herri gehiagotan dabiltza isunak gogortzen (azkena, Bergaran). Izan ere, gaizki aparkatzea arau-hauste arina den arren, askotan traba dezente eragiten du, batez ere, bigarren ilaran uzten ditugun ibilgailuek, nahiz eta unetxo baterako izan. Espaloi gainetan ere ikusten da ibilgailu asko, "hor ez dute molestatzen" esaten dugu sarri. Baina ez da horrela izaten, galdetu, bestela, ume txikien ume-kotxeekin dabiltzan gurasoei, edo zailtasunak dituztenei, gurpildun aulkiarekin handik pasatzen ahalegintzen direnean. Bestalde, orokorrean isunei begiratuta, azkenaldian gehien entzuten den kexu bat da txakur-kakek eragiten dutena. Legea egin zuten halakoak arautzeko eta arau-hausterik badago, zigortzeko. Baina, eskuzabaltasunak eraginda-edo, oraindik ez dituzte isun larregi ipini ibarrean. Hori bai, Arrasaten eta Aretxabaletan, behintzat egoera dezente okertu da eta Arrasaten abisatu dute isunak ipintzen hasteko asmoa dutela.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 11 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 12 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 13 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 14 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 15 | Español | Araba etorbidea | 943 79 18 65 |
| Eguena, 16 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Egubakoitza, 17 | Zabola | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 11 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 12 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 13 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 14 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 15 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 16 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 17 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 11 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 12 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 15 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 16 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 17 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 11 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 12 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 13 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 14 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 15 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 16 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 17 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| Osakidetza (Larrialdia) | 943 46 11 11 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria (Elorregi) | 943 76 55 76 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | 943 53 47 20 |
| Osasun etxeak | |
| Arrasateko ospitala | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 77 12 64 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 15 12 |
| Nekazaritza ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Hondakindegi alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 11**
Goizean laino grisak zeruan izango ditugu eta euria egingo du, batez ere arratsalde partean. Hori bai, tenperaturak apurtxo bat igoko dira.



**Domeka, 12**
Goizetik zeruak estalita izango dira. Eta arratsalde partean, batez ere, euria egingo du. Gainera, adi ibili, tenperaturak jaitsi egingo dira-eta.

### EUSKAL HERRIAN

Badirudi neguaren azken txanpa honek gogor samarra izaten jarraituko duela. Egun grisak eta euritsuak aste guztian eta baita asteburuan ere. Gainera, iragarpenen arabera, datozen egunotan dezente behera egingo dute tenperaturek, beraz, berokiak eskura izatea komeni da.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Eguaztena, 1 — **1 ºC**

**MAXIMOA** Zapatua, 4 — **16 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **75,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 1 | 10 ºC | 1 ºC | 7,2 l/m² |
| Eguena, 2 | 16 ºC | 1 ºC | - l/m² |
| Egubakoitza, 3 | 16 ºC | 7 ºC | - l/m² |
| Zapatua, 4 | 16 ºC | 10 ºC | 24,8 l/m² |
| Domeka, 5 | 8 ºC | 2 ºC | 17,6 l/m² |
| Astelehena,6 | 9 ºC | 5 ºC | 14,9 l/m² |
| Martitzena, 7 | 12 ºC | 4 ºC | 11,3 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MARTXOAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 22 | 29 | 6 | 14 |

## oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA
**> Internetez lana bilatzearen gainean**
*Enplegu bat lortu* delako ikastaroa emango dute eguaztenean, hilak 15, KZgunean, 16:00-18:00.

BERGARA
**> Atzerrian lan egitearen gainean**
*Lan eta ikasi atzerrian* delako hitzaldia egingo du Mertxe Bilbaok gaur, egubakoitza, kultur etxean, 19:00etan.

DEBAGOIENA
**> Capoeira erakustaldia eta ikastaroa**
Capoeira ikastaroa emango dute Brasilgo bi irakaslek hilaren 24an eta 25ean Eskoriatzan. Egubakoitz horretan, hilak 24, erakustaldia egingo dute 3.60 aretoan. Argibideak, *senzalaeuskadi@hotmail.com* helbidean edo 625 77 22 95 telefonoan.

OÑATI
**> *Via Michelin* delako Internet ikastaroa**
Bidaiatzeearen gaineko ikastaro hori emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 11:00-13:00.

DEBAGOIENA
**> Bizkaiera idatziaren gaineko mintegia**
Bizkaiera idatziaren inguruko mintegia antolatu du Topaguneak, eta izenematea zabalik dago hilaren 24ra arte. (94 475 16 18 da telefonoa).

ARRASATE
**> AED, Txatxilipurdi eta Ekinen batzarra**
Batzar orokorra egingo dute eguenean, hilak 16, AEDren txokoan, 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.

ARETXABALETA
**> Nork bere hazkundea lantzeko tailerra**
Nork bere hazkundea lantzeko terapia taldearekin lan egingo du Encarna Mendez Gestalt terapeutak. Izenematea, 616 96 57 95 telefono zenbakian.

ARRASATE
**> Bigarren Hezkuntzara pasatzearen gainean**
*Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzea* delako hitzaldia egingo du Txus Congil hezitzaileak hilaren 13an, astelehena, Monterronen, 18:00etan.

ESKORIATZA
**> Aratusteen balorazioa eta jaien antolakuntza**
Aratuste jaiak baloratzeko eta San Pedro jaiak antolatzen hasteko, batzarra deitu du Udalak eguaztenerako, hilak 15, kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE
**> 'Parkinson eta gizartea' hitzaldia**
Hitzaldi hori egingo du Aspargui elkarteak hilaren 15ean, eguaztena, Monterronen, 17:30ean.

OÑATI
**> Gurasoendako hitzaldia Elkar Hezin**
*Zigortzen eta saritzen jakitea* delako hitzaldia izango da hilaren 16an, eguena, Santa Eskolastika ikastetxean, 18:30ean.

BERGARA
**> Triki-poteorako izena eman daiteke**
Triki-poteoa antolatu du Jardunek hilaren 24rako, eta izenematea zabalik dago. Poteoaren ondoren, Artatse elkartean afalduko dute, eta Euskal Herriko kantuak abestuko dituzte.

DEBAGOIENA
**> Dendariendako ikastaroak hasiko dira datozen egunotan Arrasaten eta Oñatin**
Dendartean, Ibai Arte eta Txanda elkarteek dendariendako ikastaroak antolatu dituzte: hilaren 13an Oñatikoa hasiko da. Word, Excel, Access eta beste programa batzuk errepasatuko dituzte. Hilaren 15ean, Arrasateko ikastaroa hasiko da, bezeroak fidelizatzeko tekniken gainekoa. Argibideak: 943 42 55 57.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

ARRASATE
**> KZguneko ikastaro eskaintza**
Internetez lana bilatzeko (09:00-11:00) eta egunkaria irakurtzearen gaineko (19:00-20:00) ikastaroak emango dituzte hilaren 16an.

BERGARA
**> Alpeetara eski irteera antolatu dute**
Tignesera, Alpeetara, eski irteera antolatu du Pol-Pol Mendi Taldeak Aste Santurako. (943 76 48 51).

ARRASATE
**> Batzar Orokorra egingo du Abaroa elkarteak**
Erretiratu eta pentsiodunen Abaroa elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 16an, eguena, 17:00etan.

DEBAGOIENA
**> Bataio eskaera-orriak bi herritan**
Aretxabaletan edo Eskoriatzan, apirilean umea bataiatu gura dutenek parrokian dituzte eskaera-orriak.

ARRASATE
**> Etorkinendako autoestimu tailerra**
Etorkinei zuzendutako autoestimu tailerra antolatu du Caritasek. Pepa Bojo psikologoak emango du. Bihar, zapatua, Iturriotz kaleko lokalean izango da, 16:00etan.

kale inkesta

# Krisi ekonomikoa datorrela uste duzu? Igarri duzu?



**Mariano Pato**
Langilea
Eskoriatza

Nik ez dut uste ibarrera krisi ekonomikoa datorrenik. Ez naiz askorik irteten eta agian ez naiz oso informatuta egongo, baina nik, behintzat, ez dut halako krisirik datorrenik igarri.



**Ainitze Luzero**
Langilea
Eskoriatza

Nik momentuz ez dut ezer igarri, baina esaten dutenaren eta entzuten dutenaren arabera badator. Txinatarren konpetentzia aipatzen dute, baita kooperatibak gero eta gutxiago saltzen duela.



**Jabier Egaña**
Erretiratua
Eskoriatza

Dagoeneko heldu da krisia. Nik ez dut askorik igartzen, erretiratuta nagoelako, baina gero eta gutxiago saltzen da; hemen bi enpresa itxi dituzte eta gainbeheran doaz gauza asko.



**Alberto Calvo**
Langilea
Aretxabaleta

Hemen oraindik ez da igartzen krisia datorrenik. Fabrikak gaizki dabiltzala entzuten da behin eta berriro, baina oraindik jendea lehengo moduan dabil, gura duen gauzetan dirua gastatzen.



**Guruzne Antxia**
Langilea
Aretxabaleta

Krisia ez dakit, baina ekonomia apur bat beherantz doala igartzen da. Eta alde batetik normala da ekonomia ziklikoa izatea: batzutan oso ondo gabiltza, eta beste batzutan txarrago.

txaloak eta txistuak



UBANE MADERA

## Baranda berriarekin, hobeto

Bergarako Matxiategi kaleko bizilagun askok pozik estreinatu dute farmazia parean ipini duten baranda. Halaxe esan digu irakurle batek. Argazkian ikusten duzuen moduan, altueratxoa dago kalearen eta hango saltoki eta atarien artean, eta kontuz ibili beharra zegoen.

usteak uste

**Ubane Madera**

## Krisi usaina barreiatzen hasi da

Aspaldian dabiltza esaten fabriketan lanak dezente egin duela behera. Zurrumurruek diote ibarrekoak ere hasi direla hori igartzen. Baina halakoetan ohi denez, norberari tokatu arte, ahalegintzen gara betiko bizimoduarekin jarraitzen. .

Orain, berriz, badirudi errealitate hori gainera datorkigula. Ibarreko kaleetan krisi usaina hasi da igartzen. Batean zurrumurruak direlako, bestean fabrika batzuetan aldi baterako langileen egoera kaskarra delako. Edo enpresek uste baino irabazi gutxiago eskuratu dutelako.

Kontuak kontu, zerbait badator.Batzuk esango dute normala dela, halakoak ziklikoak izaten direla; beste batzuek, berriz, egoera ez dela horren kaskarra.

Nik ez dut ezkorra izan nahi. Baina egoerak okerrera egin duela uste dut. Espero dut askoz gehiago ez okertzea. Baina adi ibili beharko dugu. Lehiakor izatea geroago eta zailago da gure ekonomia globalean. Eta gure ibarrak industriari esker lortu du orain daukan indarra eta ongizate egoera. Beraz, daukagun hori apreziatzen ahalegindu beharko gara, akaso orain inoiz baino gehiago. Eta badaezpada, poltsatxoren baten aurrezkitxoak gordetzen hasi.

bertako berbak

**Juan Martin Elexpuru**

## "Edur-maluta"

Edur-mataza.
- *Txapelan lakotxe edur-malutak jausten zien gaur goizian.*



**Marrazkia** > Jon Iraegi

asteko datua

# 325

Ikaslek parte hartu dute Arrasaten egin duten Hezkidetza Jaiko ginkana ez sexistan, LHko 6. mailakoak eta DBHko 1. mailakoak. Hezkidetza Programan, berriz, 1.700 ikasle dabiltza, Lanbide Heziketa eta ikastetxe guztietakoak.

5 galdera...

# Ernesto Murgiondo

Mankomunitateko kultura Saila
Oñati

**1. Bergaran zinema aretoa jartzeko eskaera dago; Arrasaten, multizinemak ipiniko dituztela entzun dugu askotan; bada aukerarik?**

Oñatiren gainean egin ahal dizut berba nik. Herri txikiok bizi dugun egoera benetan da zaila eta larria. Oñatin, hiru urteotako bilakaerari erreparatuta, 2.500 ikusle galdu ditugu, 14.500etik (2003an) 12.000ra (2005ean). Jaitsiera nabarmenenak izan dira haur zineman eta komertzialean. Zine-klubean, berriz, igoeratxoa izan da. Dena dela, uste dut kultura arloan eskaini beharreko zerbitzua dela.

**2. Beraz, eskaerak egon arren, gero jendeak ez du erantzuten...**

32.000 euroko diru galerak izan genituen iaz. Oraingo eskaintzari ezin zaio aurre egin eta ez dakit noiz arte eutsi ahal izango diogun egoera horri. Ekimen pribatutik ez ezik, ikuspuntu publikotik ere bai. Bestalde, kontraesanetako bat hori da: denok gura dugu herrian bertan areto bat izatea, baina asteburua iristean jendea ihesi doa.

**3. Aztertu da, esaterako areto txikietan DVD edo bideo saioak egitea?**

Herri bakoitzak ikusi behar du. Oñatin, kultura etxea egin zenean, ez genion muzin egin gura izan pantaila handiari. Baina ulertzen dut herri txikiei geratzen zaien aukera bakarra dela DVD-edo erabiltzea. Baina hor beste arazo batekin egiten dugu topo: ikuspuntu juridikotik aztertuta, ilegala ez bada, alegala, behintzat, izan daiteke egoera hori.

**4. Gauzak horrela, zein etorkizun ikusten diozu zinemari?**

Zinemak eta horrek sortzen duen guztiak dirutza mugitzen du. Enpresa handi eta multinazionalak sekulako monopolioak sortzen dabiltza, orain arteko kudeatzaile txikiagoen kaltetan.

**5. Bukatzeko, zer pentsatu zaizkizu aurtengo Oscar sariak?**

Ustekaberen bat edo beste egon arren, orekatu samar.





LAU ERAIKIN Fotomuntaketak erakusten du *Gelmako etxeek* izango duten itxura; igartzen ez den arren, etxeok zazpi solairu izango dituzte, eta dorrea falta da. OBENERREKA

HIRIGINTZA > GELMAKO ETXEAK

# 'Kalitate altuko' etxeak egiten dabiltza Gelman

Lartzabal: "Herriari era guztietako hobekuntzak ekarriko dizkioten etxeak eraikitzeko konpromisoa dugu"

"Konbentzituta gaude hor etxebizitza bat erosten duena oso pozik geratuko dela"

UBANE MADERA > ARRASATE

Gelmako orubean egiten dabiltzan etxebizitzek ika-mika piztu dute, batzuen esanetan, prezio altuegiak dituztelako. Esaterako, Ezker Batuak joan den asteko osoko bilkuran salatu zuen prezioak "eskandaluzkoak" direla. Bada, bestelako iritzia dauka etxeak eraikitzen dabilen Obenerreka enpresako Juan Lartzabal kudeatzaileak: "Prezioak merkatuak ezartzen ditu. Orokorrean prezioek igo besterik ez dute egiten. Dena dela, gure etxeetako prezioak ez dira antzerako ezaugarriak dituzten Gipuzkoako bestelako herrietakoak baino garestiagoak (Beasain, Bergara, Azpeitia...). Gainera, bi urte barruko prezioak dira. Horrez gain, mota guztietako etxebizitzak eraikiko ditugu, baita ere 131 babes ofizialekoak. Etxebizitza libreei dagokienez, ulertzen dugu kopuruak handiak diren arren, kalitate-prezioa oso interesgarria dela; izan ere, kalitate altuko etxebizitzak saltzen gabiltza".

### ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

Etxebizitzen ezaugarriei dagokienez, zera argitu digu Lartzabalek: "Ekipamendu maila ezohikoa dute: domotikoak dira, konexio mota guztiak egin ahal dira eta materialen kalitatea ere oso altua da. Kanpoko zein barruko itxura kalitate handikoa da. Kanpoari dagokionez, IFAMeko etxebizitzen antza izango dute, arkitektoa bera da-eta".

Eraikitzen dabiltzan gunea ere aipatu du: "Pribilegiatua da, zoru laua, erdialdetik gertu, sartu-irteteko komunikazio ona, ospitale eta anbulatoriotik gertu... Gainera, tranbia egiten dutenean, aurre-aurrean izango du geralekua".

### EZ HORRENBESTE IRABAZI

Urbanizazio kontuei begiratuta, besteak beste, ertzain-etxetik aurrera dagoen zubia zabalduko egingo dutela jakinarazi digu eta oinezkoendako zubitxoa eraikiko dutela, ospitalera joateko.

Bestalde, orain arte Gelma lantegiko bulegoak izan dituen dorrea Udalarendako dela argitu digu Lartzabalek: "Hitzarmenaren arabera, erabilera publikorako izango da. Hain zuzen ere, hitzarmenaren arabera, Udalari ordaindutako diru sarrera oso handia izan da, aprobetxamenduen, baimenen eta halakoen ondorioz. Horrez gainera, Udalak lortu du Gelma lantegiaren jarduera herrian geratzea, langileen eta herriaren onurarako.

Bestalde, EBk salatu zuen etekin handiak izango dituela Obenerrekak. Horren harira zera esan digu kudeatzaileak: "Kontuan izan behar dira gastuak (lursaila erosi genuen, lantegiaren zorrak ordaindu ditugu, inbertsioak ere egin ditugu lantegian eta lekualdaketak eragindako kostuak ez dira txikiak izan). Tamalez, ez dugu irabazi behar EBk esaten duen beste".

DATU ESANGURATSUAK

**> AURRENEKO FASEA**
131 etxebizitza babes ofizialekoak; 143 libreak eta 900 aparkaleku itxi.

**> ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK**
2-3 gelakoak dira (gehiago hirukoak). 67,20 m²-105,36 m² artean. Prezioak: 306.000 euro eta 537.000 euro pasatxoren artean.

**> GUNEAREN EZAUGARRIAK**
20.000 m² pasatxo ditu orubeak. Lau eraikin egingo dituzte, bat VPOrako.

**> BIGARREN FASEA**
Beste 194 etxebizitza libre eraikiko dituzte, bi urte geroago.

**> URBANIZAZIO OBRAK**
Erreka ondoan pasealekua, barruko aldean parke bat eta besteak beste, oinezkoendako zubia eraikiko dute, ospitalera joateko.

**> EPEAK**
Lehenengo faseko etxeen giltzak 2008ko lehen seihilekoan.

TABERNETAKO ZARATAK

# Arrogoi tabernari zigor espedientea

Hilabetez sonografoa ipini eta gero, 23 arau-hauste atzeman dituzte

U.M. > ARRASATE

Herritar asko joan da azken hilabeteotan udaletxera, Zarugalde kalean dagoen Arrogoi tabernarengatik kexua aurkeztera. Legeak ezarritako ordutegia eta zaraten muga errespetatzen ez dituela-eta etorri dira herritarren kexuak.

Hala, udaletxean jakinarazi digute azaroaren 15etik abenduaren 17ra bitartean sonografoa ipini zutela Arrogoi tabernan, eta 23 arau-hauste atzeman dituztela. Eta hori oso kopuru altua dela esan digute.

Horren harira, oraingo asteko gobernu batzarrean aztertu dute gaia eta erabaki dute espediente zigortzailea zabalduko diotela. Udal teknikariak jakinarazi digunez, horrek esan gura du isunak ipiniko dizkiotela: "23 arau-hauste egin ditu; hala, bakoitzeko 300 bat euroko isuna ipiniko diogu".

Hori da Udalak erabaki duena. Orain, kontua da burokrazia prozeduraren eraginez isunak pagatzen hasi arte sei hilabete pasatuko dira. Horrenbestez, galdera da ea zer gertatutako den bien bitartean. Izan ere, eta zenbait herritarrek salatu dutenez, kexua aurkeztu arren eta Udaltzaingoa tabernara joan arren, tabernak bere horretan segitu du orain arte. Horren harira, udaltzain-buru Jose Luis Etxebarriak esan digunez, "ordutik kanpora badabil, itxi egin dezakegu taberna, baina kontua da tabernan sartuz gero, askotan arazoa handiagoa izan daitekeela. Dena dela, norbaitek deitu izan duenean, gu beti joan izan gara".

PUB HAIZEA




OSORIK PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**POLITIKA** > EZKER BATUAREN PROPOSAMENA

# "Bizilagunen parte-hartzea erregulatzeko" eskatu du EBk

Erreferenduma eta herri galdeketa erregulatzea ere gura du Ezker Batuak

Datorren osoko bilkuran aurkeztuko dute proposamena, bozkatzeko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Udal Araudi Organikoaren aldaketa eskatu du Ezker Batuak prentsaurreko baten bitartez. EBko bozeramaile Ander Rodriguezen esanetan, aldaketa horrekin zera gura dute: "Bizilagunen eta gizarte erakundeen parte hartzea erregulatzea eta baita erreferenduma eta herri galdeketa ere". Eta hori lortzeko, besteak beste, 11 ekimen gauzatzea proposatu zuten.

**OSOKO BATZARRAK ARRATSALDEZ**

Tartean, esaterako, Ezker Batuak proposatu du Udaleko osoko bilkurak 09:00etan egin beharrean, arratsaldez egitea "herritarren partehartzea eta informaziorako eskubidea bermatzeko". Proposatu du, baita ere, erakundeek eta elkarteei zinegotziekin izateko aukera bermatzea, hitzordua eskatu ostean, hiru egun pasatu baino lehen.

Bestalde, udalean izena emanda dauden erakunde eta elkartendako honako eskubideak eskatu dituzte: "48 ordu lehenago osoko bilkuretan eta batzordeen gai ordena jasotze eta edozein informazio edo dokumentazio eskatuz gero, hamabost eguneko epean beraien esku izango lukete".



EZKER BATUA Rodriguez eta Ugalde, prentsaurrekoan. A. LASAGABASTER

**ERREFERENDUMA**

Bestalde, EBk eskatzen du gai garrantzitsuenetan erreferenduma deitzea: "Aldez aurretik herri ekimen batek eraginda, erroldaren %10 baino handiagoa denean bidalitako sinadura kopurua. Erabakia loteslea izango litzateke". Eta herritarren partehartzerako eta udal gestioa kontrolatzeko eskubideak bermatzeko "Arlo Kontseilua" izeneko organoak sortzea.

Ander Rodriguezen esanetan, araudi horrek lagunduko luke, besteak beste, ilegalizatutako taldeek udaletxean parte hartzea.

**KASURIK EZ**

Hori guztia aurkezteaz bat, EBk salatu zuen proposamen hori udaletxean aurkeztu dutela. Esandakoaren arabera, batzordean esan zuten ez dutela gaia aztertu ere egingo. Gauzak horrela, EBk erabaki du udaletxean egingo duten hurrengo osokoan aurkeztea gaia. Bide batez, eta ikusita jasotako erantzuna, salatu gura izan dute alkateak ez duela esandakoa bete esan zuenean ahaleginduko zela ilegalizatutako taldeen partehartzea bideratzen eta udaletxea herritarrei gerturatzen.

> SUTEA

## 2007ko urtarrilean zabalduko dute erre zen lokala

Arizmendi Ikastolak jakinarazi duenez, oraindik ezin da jakin zenbateko kalteak izan dituen ikastolako teknologia gelak. Halaber, esan dute konponketek luze joko dutela eta aurreikusten dutela gela hura berriro erabili ahal izango dutela 2007ko urtarrilean. Bien bitartean, ARLAn enpresak lokal modular bat eskaini dio, doan, eta hantxe emango dituzte eskolak. Arizmendik hori eskertu gura dio.

Gogoratuko duzuenez, otsailaren 19an sua piztu eta erre egin zen gela hura.

> ONGIETORRIA

## Gaur egingo diete ongietorria Altzuari eta Azkarateri

Gaurko, egubakoitza, 19:00etarako egin dute hitzordua, Saioa Altzua eta Gaizka Azkarate Kasko preso ohiei ongietorria egiteko. Herriko Plazan egingo dute ekitaldia eta horren ostean, 21:00etan afaria egingo dute, Saran.

Gaizka Azkarate eta Saioa Altzua 2003ko azaroan kartzelaratu zituzten, ustez ETAri laguntzearren. Orain, 30.000 eurona ordaindu eta fidantzapean utzi dituzte aske. Edozelan ere, oraindik epaitu egin beharko dituzte.

**GAMEI** > BITARTEKARITZA EGOKIA

# "Argia ikusten" hasi dira Gameikoak

Arrasateko alkatearen bitartez, konponbidea lor dezakeen bitartekari egokia aurkitu dute

**U.M.** > ARRASATE

Gameiko arazoa konpontzeko aukeratutako bitartekariari esker, auzi horretan parte diren guztiek onartu dute batzar bat egitea egoera konpontzen ahalegintzeko. Eguaztenean jakinarazi ziguten hori. Halaber, esan ziguten, gainera, Gameiko Enpresa Batzordekoak itxaropenez ikusten dutela batzar hori: "Batzar horren bitartez egoera desblokeatu ahal izango litzatekeela uste dugu. Behintzat, bitartekari horri esker lortu dugu alde guztiek baietz esatea batzar bati. Ahaleginduko gara batzarra lehenbailehen egiten, gainera". Gaineratu digunez, aurreikuspenen arabera Fagor Arrasateko ordezkari bat, gutxieneko bazkideen ordezkari bat, gehiengo bazkideen beste bat, bitartekaria eta seguru aski, Inazio Lakuntza alkateak parte hartuko dute batzarrean.

Hori bai, bien bitartean eguneroko mobilizazioak egiten segituko dutela esan digute "baina intentsitate baxukoak izango dira, ez horrenbeste zaratarekin". Betiko moduan, kale ageraldien hitzordua 18:00etan da, Laubide plazan. Gero, manifestazioa ere egiten dute langileek.

**BITARTEKARIA**

Rafa Gomez arrasatearra aukeratu dute bitartekari lanak egiteko. Gamein 35 urte pasatxoan lanean ibili da Rafa Gomez, "hortaz, ondo ezagutzen du Etxebarriaren kasua eta langileen egoera ere bai". Besteak beste, Al Andalus kultura elkarteko presidentea da.

**IKUSPUNTU DESBERDINAK**

Proposamenei dagokienez, berriz, ikuspuntu desberdinak dituzte: "Etxebarriak gura duena da Fagor Arrasatek erostea akzioak. Guk, berriz, uste dugu Gameiko langileek erosi beharko genituzkeela". Badirudi, beraz, horixe izango dela bitartekariak konpondu beharreko puntuetako bat.

> ZUHAITZ EGUNA

## Astebetez atzeratu egin dute, eguraldi txarrarengatik

Gaurko, barikua, zegoen deituta Zuhaitz Eguna. Baina, eguraldi oso txarra iragarri dutela-eta, antolatzaileek erabaki dute atzeratzea. Hain zuzen ere, Udaleko Ingurumen Sailak jakinarazi digunez, gaur zortzi egingo dute Zuhaitz Eguna, martxoaren 17an, beraz. Gainera, ziurtatu digute datorren barikuan eguraldi txarra egin arren, Zuhaitz Eguna egin egingo dutela "lan handia ematen du-eta berriro atzeratzeak".

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

arbolapeta
arrasate
beinke

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak



**SEIKOTEA** Arrasateko eta Aretxabaletako sei lagunek osatzen dute talde indartsu hori. DENIAL

**MUSIKA** > DEATH-METAL TALDEAREN DISKOA

# Denial taldeak diskoa kaleratu du bere kabuz

## Death-metal melodikoa egiten dute, eta Anestesiako Mikelekin grabatu dute diskoa

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Denial death-metal taldea Arrasateko eta Aretxabaletako sei lagunek osatzen dute. 2000n sortu zuten eta gaur egunera arte hainbat aldaketa egin dituzte.

Egunotan albiste dira *Phobia* izeneko diskoa kaleratu dutelako. Euren kabuz grabatu eta ekoiztu dute, baina promozio lanak egiteko Ortots diskoetxearen babesa jaso dute.

Denialek musika gogorra egiten du eta taldea sortu zutenetik soinuak zelanbaiteko bilakaera izan du: "Estilo askoren nahasketa da eta gaur egun teklatuak eta biolinak sartzen ditugu, baina guk death-metal melodiko moduan sinplifikatzen dugu. Gaur egun egiten duguna azkarragoa da, baina aldi berean melodia handiagoa dauka", azaldu ziguten.

**MIKEL ANESTESIAREKIN**

Diskoko bederatzi kantuak Mikel Anestesiak Zarautzen daukan Fidelenea estudioan grabatu dituzte. "Gustuko ditugu Mikelek egin dituen taldeak (Estigia eta Anestesia, batez ere) eta haren proposamena aproposa iruditu zitzaigun".

Grabazio estudio baten sartu diren lehenengo aldia izan da, baina gustura gelditu dira emaitzarekin. "Aurretik maketa lokalean grabatu genuen, baina hortik estudiora alde handia dago".

**HITZ GOGORRAK**

Taldekoek *phobia* diote "sistemari eta gizarte hau zelan egituratuta dagoen". Horregatik, agian, hitz oso gogorrak idatzi dituzte: barne bakarrizketaren beharra, mendekua, fobia, gerrak... Horrez gain, *Heriotzaren deia* izeneko kantuan amalurraren eta naturaren aldarrikapena egiten dute: "Gure mendietan egiten dabiltzan sarraskiek arduratzen gaituzte, ez dago eskubiderik!".

Orain dela bi urte Danbakarako sailkatu ziren, eta pozik daude lortutakoarekin. "Promoziorako on egin zigun, nahiz eta jakin guretako moduko lehiaketa ez zela izan".




**ANTZERKIA** > 'NESKA POLITAK, ARTASORO ALAIAK'

# Kulturen arteko harremana irudikatuko dute etzi

**I.B.** > ARRASATE

Etzi, domeka, Agerre taldeak *Neska politak, artasoro alaiak* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

Antzerkia, ikus-entzunezkoak eta zuzeneko musika batuko dituzte. Maite Agirre idazlearen *La baladilla de San Sebastian* liburuan oinarrituta dago. Hiru argitaletxeak kaleratu zuen liburua, eta Agerre taldeak antzokietara eraman du moldaketa.

**AFRIKA ETA HEMENGO KULTURA**

Protagonistak *Ixi* barazki saltzailea (Arantxa Garmendia) eta Afrikako *Norden* musikaria (Jon Gaubeka) dira. Euren eta kulturen arteko harremana irudikatuko dute. Gaubekaren Freenetik funk-rock taldeak ere esku hartuko du.

> ERAKUSKETA

## Grabatuak, eskulturak eta idatziak ikusgai egongo dira hilaren 26ra arte Harresi aretoan

Gaurtik, egubakoitza, hilaren 26ra arte erakusketa jarriko dute Eskoriatzan bizi den Iraia Artzamendi arrasatearrak eta Ane Miren Agirre aretxabaletarrak. Artzamendik 10 bat serigrafia eta lumatxoz eta tintaz egindako 40 bat lan batu ditu, eta Ane Miren Agirrek hiruzpalau eskultura. Horrez gain, Iñaki Bastarrikak poesia batzuk egin dizkie erakusketarako.



I.B.

## Irudigintzaren gainean ikasten

Asteon, irudigintzaren gaineko tailerrak egin dituzte Udal Liburutegian, *Irudiz irudi liburu ibiltari* lelopean. Astelehenetik egubakoitzera bitartean Lehen Mailako Hezkuntzako 5. mailako zortzi taldek esku hartu dute. Galtzagorri elkarteko Maider Kalonjeren laguntzarekin, liburuak ilustratzen ikasi dute eta taldeka liburuak egin dituzte.

Monte Taberna
Maalako Errabala 2 Tel.: 943 79 20 56



ORAIN PINTXOEZ GAIN,
ASTELEHENETIK DOMEKARA

OGITARTEKOAK ETA
PLATER KONBINATUAK!

ZATOZ ETA PROBA ITZAZU!




Amagara
Erdiko kale 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

*Eguzkia hartzen ikastea da brontzeatzeko modu egokiena*

Aste Santurako
promozio berezia
6 saio+ 1 doan
42 € bakarrik!

Zentro honek betetzen ditu 1002/2002 (BOE 243, 2002/10/10) Errege Dekretuan ezarritako araudia eta 265/2003 (EHAA 222, 2003/11/13) Dekretua.

*Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberakoak izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sentsibilitatearen araberakoa ere.*



**ESKUBALOIA** > IGOERA FASEA JOKOAN

# Donibaneren bikotekidea izan gura du Ford Mugarri Arrasate taldeak

Lehenengo postuan dago Donibane, eta talde hori dagoeneko sailkatu da igoera faserako. Ford Mugarri Arrasate eta Urola dabiltza bigarren postuagatik lehian


**AZKENA** Arrasatek Donibaneren kontra amaituko du Liga Txapelketa. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Bikoteen arteko harremanetan, normalean hirugarren laguna soberan egoten da. Bada, Territorial mailako eskubaloi txapelketan berdin gertatzen da. Donibane dagoeneko sailkatu da igoera faserako, baina bikotekidea behar du: Ford Mugarri Arrasate ala Urola, bi horietako zein dago soberan? Urolak dagoeneko ezer gutxi du egiteko, asteburuan deskantsua izango dute-eta. Hala, Zumarragako taldekoak Iturripen egongo dira, Ford Mugarriren eta Donibaneren arteko *affaire*-a gertutik zaintzen. Argi esanda: Arrasatek Donibaneren kontra irabazi ala berdindu egin behar du. Galduz gero, Urola sailkatuko litzateke, Zumarragakoek aldeko dute-eta gol aldea.

**ZELAN ETORRIKO DA DONIBANE?**

Hori da Arrasateko taldeko entrenatzaileak jakin gurako lukeena: "Talde horrek ez du ezer jokoan. Bueno, Gipuzkoako txapeldun izatea, baina igoera faserako sailkatzea da garrantzitsuena. Hala, ni Donibaneko entrenatzailea izango banintz, ez nituzke jokalari onenak kantxaratuko. Kontuan izan igoera faserako sailkatu den Bizkaiko multzokoren bat egongo dela norgehiagoka jarraitzen, eta ez da komeni taldeak zelan jokatzen duen erakustea. Hainbat jokalari on utziko nituzke aulkian, gero sorpresa ematéko". Batek daki, baina, hori den komenigarriena: "Akaso, ordezkoak kantxaratuz gero okerrago izango da, besteek baino motibatuago jokatuko dute-eta".

Kontuak kontu, kontrarioari begira egon barik, Andoni Arandok badaki etxekoek izan behar dutela partiduko erritmoa ezarri behar dutenak, eta hasiera-hasieratik gogor jokatu beharko dutela: "Azkar ibili behar dugu, kontraerasoan min eginez, hori daeta aurrera iristeko modu azkarrena. Ezin gara egon Donibane zein asmorekin etorriko den pentsatzen".

> SASKIBALOIA

### Askartzaren kantxan du Mugarri Alkesak hurrengo malda

Joan den asteburua ezin biribilagoa izan zen (Zurututzaren mutilek mendean hartu zituzten Zornotza eta Urdaneta). Eta, Mugarri Alkesak bigarren postuan dagoen Askartzaren kantxan jokatuko du domekan. Azken boladako emaitza onei esker, aurrealdean zebiltzan Consmetal eta Askartza eskura ditutze dagoeneko. Azken talde hori da hurrengo helburua.

> FUTBOLA

### Seigarren lekuan dagoen Pasajes Atxabalpen

Oriotik puntu bat ekarrita (0-0), Mondrak Pasajes taldearen kontra jokatuko du asteburuan. Idiazabalen zelaian eten zuen Mondrak bolada txarra, baina Aloñaren kontrako porrotak eta Orioko gatzgabeko norgehiagokak ez dute mesederik egin.

Hala, geratzen diren 11 norgehiagokek aukera ematen dute aurrealdera gerturatzeko; oraindik bai.

> ATLETISMOA

### Jon Ander Amado eta Etxagibel Espainiako Txapelketan

Asteburuan egingo dute Anoetan gazte mailako Espainiako Atletismo Txapelketa, eta Jon Ander Amado eta Iñaki Etxagibel izango dira hantxe (17 urte), esku hartzeko gutxieneko markak gainditu eta gero.

Iñaki Etxagibel 60 metroko lasterketan lehiatuko da, eta 200 metroko lasterketan neurtuko ditu indarrak Jon Ander Amadok.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Arrano Taberna - Abokajarro | **1-2** |
| HLB 108 - Lasagabaster | **1-5** |
| AT Celaya - Fuxxion | **1-3** |
| Tomahawk - Billy & The Cowboys | **6-5** |
| Iluntz - Irish Pub | **7-4** |
| THC - Betrayer | **2-9** |
| Saukelu Scream - Txoponbeixek | **7-4** |
| AC Surcos - Iriztu Taberna | **5-7** |
| Dribling - Berdes Bremen | **9-2** |
| Pippol - Aurrera Bolie TMT | **11-5** |

**PARTIDUAK**

**Martxoak 11, zapatua**

| | | |
|---|---|---|
| **09:50** | THC - Abokajarro | **Tomahawk** |
| **11:00** | Tomahawk - Txoponbeixek | **Aboka.** |
| **12:00** | Betrayer - Berdes Bremen | **Txoponb.** |
| **13:00** | Iluntz - HLB 108 | **Betrayer** |
| **16:00** | Saukelu Scre, - Aurrera Bol. | **Arrano** |
| **17:00** | Arrano Tab. - AC Surcos | **Aurrera Bol.** |

**Martxoak 12, domeka**

| | | |
|---|---|---|
| **10:50** | Pippol - Fuxxion | **Lasagabaster** |
| **12:00** | AT Celaya - Lasagabaster | **Pippol** |
| **13:00** | Iriztu Tab. - Irish Pub | **AT Celaya** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Betrayer | 31 | 12 |
| **2.** | Dribling | 31 | 12 |
| **3.** | Pippol | 25 | 12 |
| **4.** | Lasagabaster | 25 | 11 |
| **5.** | Saukelu Scream | 22 | 12 |
| **6.** | AT Celaya | 21 | 12 |
| **7.** | Iriztu Taberna | 19 | 10 |
| **8.** | Fuxxion | 19 | 11 |
| **9.** | Iluntz | 18 | 12 |
| **10.** | Arrano Taberna | 18 | 11 |
| **11.** | Abokajarro | 17 | 11 |
| **12.** | AC Surcos | 15 | 11 |
| **13.** | Billy & The Cowboys | 15 | 12 |
| **14.** | Irish Pub Dublin | 15 | 11 |
| **15.** | HLB 108 | 15 | 12 |
| **16.** | Aurrera Bolie TMT | 12 | 11 |
| **17.** | Tomahawk | 12 | 12 |
| **18.** | Berdes Bremen | 6 | 11 |
| **19.** | Txoponbeixek | 6 | 12 |
| **20.** | THC | 0 | 12 |

### Arrano tabernaren gainbehera

Lehenengo zortzi postuen artean sailkatzeko lehian, beherakada nabarmena izan du Arrano taberna taldeak. Orain arte, talde hori aurrealdean ibili da, lehenengo postuetan. Bistan da, baina, 2006 urteak ez diela on egin, hilabete baino gehiago daramate-eta norgehiagokarik irabazi barik. Ondo estutu beharko dute, sailkatu gura badute.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

nire bidai hura

**Jose Antonio Urionabarrenetxea**
Argentinara > 2005eko udan

# "Zaleek taldeari baino gehiago animatzen zioten harmailetan zegoen Maradonari"

**X.U.** > ARRASATE

**Aurtengo udan izan dira Jose Antonio Urionabarrenetxea, Iñaki Urionabarrenetxea, Adeli Porcel eta Karmele Ajuria Argentinan. Ondoko erretratuan Jose Antonio azaltzen bada ere, egia esateko, anaiak kontatu digu bidaia, Adelik lagunduta. Anaien artean konpon daitezela gero.**


Jose Antonio Urionabarrenetxea.

Bi bikote horiek 25 egun egin zituzten Argentinan. Buenos Airesera iritsi eta osaba Luisengana joan ziren bisitan: "Hasteko, derrigorrez esan behar dugu osaba Luisek eta haren lagun Rafa Zeziagak zein ondo hartu gintuzten. Han bizi dira eurak, eta gustura hartzen dituzte bisitak. Eta noski, guretako eurak han izatea luxua izan zen, leku mordoa erakutsi zizkiguten-eta".

Hala, *Uriona* anaiak futbol zelai batetik bestera zebiltzan bitartean, Adeli eta Karmele konpainia ezin hobean geratu ziren: "Leku bitxietara eraman gintuen Rafak, tangoak eta bestelako ikuskizunak ikustera".

**ARGENTINAN BARRENA**

Argentinako hiriburua abiapuntu hartuta, Arrasatekoak hara eta hona ibili ziren, iparraldean Bolibiarekin mugan dauden herrietatik, hegoaldeko glaziarretaraino: "Iparraldean harrituta geratu ginen jendearen jatortasunarekin. Dena zuten emateko, eta beti zeuden laguntzeko prest. Igartzen da azken urteotan Argentinak kolpe ekonomiko gogorra jasan duela, baina hiriburuan igartzen da hori gehien. Iparraldean dauden herritxo horietan lehen ere ez zuten askorik izango, eta ez zuten horrenbeste galduko".

Arrasateko laukotea 4.000 metrora ere egon zen. Garaierak eraginik ez izateko kokaina hostoak mastekatu zituzten: "Kokeatu esaten diote han. Karmele izan zen kokeatu ez zuen bakarra, eta zorabiatuta egon zen, mendiko gaitzak jota. Guk, berriz, ez genuen ezer ere igarri. Ez dakit esaten kokaina hostoek zenbaterainoko eragina izango duten. Esango nuke psikologikoa dela".

**"Iparraldeko herrietako jendearen jatortasuna azpimarratuko nuke, beti laguntzeko prest"**

**"Kontraste handiko lurraldea da Argentina: desertua, oihana, glaziarrak..."**

Egunak joan eta egunak etorri, hara eta hona ibili ziren Jose Antonio, Iñaki, Adeli eta Karmele: Valdes Penintsula, Kalafate... Hala, horietako hegaldi batean Iñakik Arrasateko 17 lagun zenbatu zituen hegazkinean: "Eta, beste herritxo batera iritsi eta Eskoriatzako jendearekin egin genuen topo".

Aconcaguako inguru lehorretik Iguazuko ur-jauzietara, edo Patagoniako itsas bazterrera: "Kontraste handiko lurraldea da Argentina, desertua alde batean, oihana bestean...". Bidaiaren azkeneko egunak hegoaldean egin zituzten, baleen eta itsas txakurren artean: "Bale mordoa ikusi genituen, gertu, baina abuztua ez ei da itsasoko animaliak ikusteko urteko sasoirik onena. Itsasontzian ibili ginen han, glaziarrak ikusten; ederra izan zen. Gainera, Batistuta (futbol jokalaria) ere ikusi genuen; itxuraz, lurralde horren gaineko publizitatea egiteko kontratatu zuten".

Bistan da futbol jokalariek Argentinan duten indarra: "Maradonak telebista saioa estreinatu zuenean Argentinan ginen, eta ikustekoa izan zen; mundu guztia telebistari begira, ezer esan barik. Horrekin batera, Boca Juniors taldearen partidu bat ikusi genuenean ere, zaleek taldea baino gehiago animatzen zuten harmailetan zegoen Maradona". Hegoaldean egiten zuen hotza atzean utzi eta Buenos Airesera joan ziren berriro ere, azkeneko eguna igaro eta agurtzera. Futbol norgehiagoka bat ikusteko astia eman zien, nahiz eta horretarako hegaldia aldatu behar izan zuten.


Adeli, Jose Antonio, Iñaki eta Karmele hondartzan, itsas txakurren konpainian.

bere ustez


Antxon Mendizabal

## Debagoieneko deuseztapen sostengarria

XIX. gizaldiaren hasierako urteetan, Humboldt intelektual ospetsuak bisitatu zuen Euskal Herria. Zaldi baten gainean ibili zen Humboldt, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa Garaia eta Iparraldeko zenbait lekuetan. Hemengo gizarte eta kultura bitxia ikusi nahi zuen. Bisitaren ondoren, Humboldtek euskaldunen herriaren edertasuna goraipatu zuen eta bereziki bi leku aipatu zituen: Bilbo eta Barakaldo. Berrehun urte pasatu ondoren, askorendako, Bilbo eta Barakaldo, ez dira ez, hiri egokiak bizitzeko.

**"Humboldt-ek Bilboko eta Barakaldoko edertasuna azpimarratu zituen"**

Karlisten porrotarekin batera, eskubide kolektiboen zapalkuntzan eta interes enpresarialen nagusitasunean oinarritutako desarrollismoa sustraitu zen Euskal Herrian eta gure mundu-ikuspegian. Horrela, Eibarrek Barakaldo modukoa izan nahi du. Arrasatek Eibarren eredua jarraitzen du. Aretxabaletak eta Oñatik Arrasate dute eredu, eta Eskoriatzak Aretxabaletari jarraitzen dio. Norgehiagoka dabiltza gainera. Mendietako bioaniztasuna, baserriak, hirietako denda txikiak, lan finkoa, etxebizitzarako eskubidea... desagertzen doazen bitartean, leku guztietako obrak ugaldu dira hemen. Deuseztapen iraunkorra, eta, gure ezusterako... sostengarria.

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE



GURPILDUN AULKIAK Bederatzi lagunendako tokia du eta gurpildun aulkiak sartzeko egokituta dago. OIHANA ELORTZA

**ZERBITZUAK** > ELBARRIENDAKO TAXIA

# Gutxituendako eskualdeko taxi zerbitzua abiarazi dute

Egokitutako taxia Bergarako geltokian dago, baina Debagoien osoan emango du zerbitzua

Eskolako umeendako garraio zerbitzua ere egingo du, auzoetan bizi diren ikasleak garraiatzeko

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Dagoeneko abian dago elbarriendako eskualdeko taxi zerbitzua. Bergarako taxi geltokian egongo da, baina Debagoien osoan emango du zerbitzua.

Furgoneta bat da taxi berezi hori eta gurpildun aulkiak sartzeko prestatuta dago. Bederatzi lagunendako tokia du. "Elbarriendako ez ezik, eskolako umeendako garraio zerbitzua ere eskaintzen dut", dio Pegerto Blanco taxi gidariak, "auzoetan edo baserrietan bizi diren ikasleei zerbitzu emateko pentsatuta ere badago".

**24 ORDUKO ZERBITZUA**
Pegerto Blanco duela 25 urte inguru hasi zen taxi gidari lanean. Orain arte bost lagunendako tokia duten autoak erabili ditu lanerako, "baina erronka berriak ere probatu behar dira eta horregatik erabaki dut elbarriendako egokitutako autoa ekartzea orain", dio. Aste honetan bertan hasi da lanean eta 24 orduko zerbitzua eskainiko du, eskualde osorako. Haren telefono zenbakia da: 690 90 02 38.

**PREZIOAK**
Bergaran 14 taxi gidari daude eta 38 eskualde osoan. Guztiek berdin kobratzen dute, tarifa berak dituzte. Tarifa horiek Agitax enpresak Mankomunitateari proposatutakoak dira eta hark eskualdeko udalei. Egokitutako taxi horrek ere tarifa berak ditu; egunez: 2,78 euro irteteagatik, 0,87 euro kilometroko eta 16,64 itxarote ordu bakoitzeko; gauez, domeka eta jaiegunetan: 2,78 irteteagatik, 1,38 kilometroko eta 26,15 itxarote orduko.

**ERABILTZAILEAK POZIK**
Agustin Toledo bergararrak esan digunez, oso pozik hartu dute taxi zerbitzu horren notizia. "Orain arte ez zegoen gurpildun aulkiak sartzeko moduko taxirik hemen, eta bazen ordua".

**EUSKARA** > BERGARAKO HIZTEGIA 'ONLINE'

# Elexpururen hiztegia sarean jarriko dute

22.000 sarrera eta 1.000 argazki izango ditu; urtea bukatu baino lehen egongo da sarean

**O.E.** > BERGARA
Juan Martin Elexpuru idazleak egindako *Bergara aldeko lexikoa* hiztegia sarean jarriko dute urtea bukatu baino lehen. Juan Martin Elexpuruk berak egingo ditu egin beharreko moldaketak. 7.000 euro ordainduko dizkio Udalak lan hori egiteko. Gero, Udalarenak izango dira datu-basearen gaineko autore-eskubide guztiak, nahiz eta inoiz ezingo duen saldu datu-base hori.

Dagoeneko lanean dabil Elexpuru. Lana iraila bukatu baino lehen amaitu behar du eta handik gutxira gura dute hiztegia sarean jarri; egilea ere *online* ari da lan egiten, eta uste dute bukatu eta gutxira egongo dela denok kontsultatzeko moduan.

**22.000 SARRERA**
Sarean egongo den Bergarako hiztegia orain arte esku artean erabili dugun bera izango da: 22.000 hitz izango ditu, azpisarrerak barne, eta 1.000 argazki koloretan. Bada, dagoeneko hasi da Elexpuru datu-base guztia sarean sartzen.

**CD-ROMA ERE BAI**
Hiztegia sarean jartzeaz gain, Euskara Sailak komenigarritzat ikusten du CD-ROMa ere ateratzea, egin beharreko oinarrizko prestaketa sarean jartzeko bera delako.

Juan Martin Elexpuruk egindako Bergarako hiztegia 2005eko hasieran aurkeztu zuten eta 3.000 ale atera zituzten.




Harrera ona izan du hiztegiak.

> ERREPIDEAK

### Mugertzako gaina 10 egunez egongo da itxita ibilgailuendako

Mugertzako gaina itxita egongo da hamar egunez ibilgailuendako. Gaineko estugunean oinezkoen segurtasuna bermatu gura du Udalak, eta semaforo bat jarriko dute horretarako. Noranzko bakoitzean semaforo bana jarriko dute. Oinezkoak pasa gura duenean, semaforoko botoi bat sakatuko du trafikoa gelditzeko. Noranzko bateko trafikoa bakarrik gelditukoda, oinezkoek zein ibilgailuek batera pasa ahal izateko.

> IRISGARRITASUNA

### Barandak eta arrapalak jarriko dituzte kaleetan

Irisgarritasun baldintzak hobetzeko, barandak eta arrapalak jarriko dituzte herriko hainbat kale, parke eta auzotan. Torrekua plazan, adibidez, barandak eta arrapalak, biak jarriko dituzte; Herri Lagunak kalean baranda eta Usondo eta Osintxuko parkeetan ere irisgarritasun lanak egingo dituzte. 6.275,44 euro erabiliko dituzte horretarako. Oraindik ez dute zehaztu lanak noiz hasiko dituzten.

> PRESOAK

### Presoen egoera ezagutzeko taldea sortu gura dute

Herritar talde batek gura du presoen egoera ezagutzeko talde ireki bat sortzea. Hainbat gaien inguruko hausnarketak egin gura ditu: zergatik dauden kartzelan, zergatik ukatzen zaizkien oinarrizko eskubideak, tortura nola baimentzen duten eta egoera horren aurrean norberak zer egin dezakeen, adibidez. Hilaren 16an, bilera egingo dute guzti honetaz berba egiteko, Pol-Pol elkarteko aretoan, 19:30ean.

> MANIFESTAZIOA

### Zabalotegikoek manifestazioa egingo dute zapatuan

Zabalotegiko auzotarrek manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, eguerdian. Artzamendi eta Koldo Eleizalde kaleak lotuko dituen Zabalotegiko errepidearen aurka daudela adierazteko egingo dute manifestazioa. 12:00etan abiatuko dira Zabalotegi kaletik eta erdiguneko kaleetan zehar egingo dute. Zabalotegiko bizilagunek herritar guztiei dei egiten diete parte hartzeko.

**EUSKARA** > KONPROMISOA HARTZEKO KANPAINA

# Dakitenen erdiek soilik egiten dute euskaraz

## Euskararekiko konpromisoa guztiona dela gogorarazi gura die Berba bilguneak herritarrei

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Bergarako Euskaltzaleon Bilguneak, Berbak, kanpaina bat du martxan euskara denon konpromisoa dela gogorarazteko. Nork bere eguneroko bizimodua euskaraz egiteko konpromisoa hartzeko eskatzen du Berbak. Bilguneak dituen datuen arabera, Bergarako herritarren %70ek euskalduntzat dute euren burua, baina erdiek soilik erabiltzen dute euskara eguneroko bizimoduan: sakelako edo etxeko erantzungailuek gaztelaniaz hitz egiten dute, faktura eta poliza aseguru gehienak ere gaztelaniaz daude, haur, gazte nahiz helduek ez dute beti euskaraz jarduten eta hainbat zerbitzutako bulegoetan ere gaztelaniaz egiten dute, besteak beste.

Duela aste pare bat, esku-orri batzuk banatu zituen Berbak, herritarrek egunerokotasunean euskara erabiltzeko konpromisoa har dezaten. Konpromiso hori hartzen duenak herriko komertzioetan jarri dituzten kaxetan sar dezake esku-orria. Bihar, zapatua, bestalde, esku-orriak batzen eta kanpainaren berri ematen egongo dira Berbako kideak Osintxun, Angiozarren, Uberan eta San Juanen, 12:00etatik 13:30era bitartean.

**EKITALDIA EKAINEAN**

Berba bilguneak *Hizkuntza eskubideak denon konpromisoa* kanpainarekin jarraituko du datozen asteotan ere. Datorren martitzenean, martxoak 14, bilera egingo dute kultur etxean, konpromisoa hartu duten herritar eta talde guztiekin, 16:00etan, eta ekainerako jaialdi bat ari dira antolatzen.

**2004TIK AURRERA**

2004ko Euskararen Eguna antolatzeko sortu zen Berba, Bergarako Euskaltzaleon Bilgunea. AEK, EHE eta Jardun elkarteek sortu zuten eta harrezkero lanean dihardute euskararen normalizazioa hainbat esparrutara heltzeko. Kontzientziazioa, erabilera, jarrera aktiboa, iraunkortasuna eta konpromisoa dira beste helburu batzuk. Bergarako euskaltzaleak biltzen ditu Berbak, iraunkorra da eta edozeinendako dago zabalik.




**BERBA** Iñigo, Jon eta Amagoia, Berba bilguneko hiru kide. O.E.



O.E.

## Zubiaurre 2 bota dute etxebizitzak eta zubia egiteko

Zubiaurre kaleko bigarren ataria bota dute aste honetan, etxebizitza berriak eta zubi bat egiteko. Zubiak erreka gurutzatuko du, Zubiaurre, Martoko eta San Antonio auzoak gero egingo duten tranbiarekin lotzeko. Zubia egiteko lan horiek tranbiarenarekin batera egingo dituzte. Etxebizitzak egiten, ordea, laster hasiko dira. Oraindik ez dute zehaztu lanak noiz hasiko dituzten, baina adjudikatuta daude dagoeneko eta ahalik eta azkarren hasiko dituzte.

**JAIA** > KILOMETROAK 2007

# Ibilbide laua izango du Kilometroak '07k

## Datorren astean harremanetan jarriko da Aranzadi ikastola hainbat sektorerekin, eta irudia eta arropa diseinatzen hasiko dira berehala

**O.E.**> BERGARA

Gipuzkoako Ikastolen Federazioak aste honetan eman dio Aranzadiri Kilometroak 2007 jaia antolatzeko behin betiko baimena. Aurtengo Kilometroak jaia egiten dutenean, urriaren 1ean, jasoko du Aranzadik testigua, baina aurretik hasiko dira lanean. Datorren astean federazioko ordezkariekin eta herriko hainbat sektorerekin bilduko dira.

Aranzadi ikastola berehala hasiko da Kilometroak '07 jaia antolatzen. Laster irudia lantzen hasiko dira eta arropen salmenta antolatzeari ere berehala ekingo dio.

**ZIRKUITU LAUA**

Duela 15 urte, 1991. urtean antolatu zuen lehendabiziko aldiz Aranzadik Kilometroak jaia. Orduko ibilbidea aldapatsua izan zen, baina 2007ko jaikoa laua izango dela aurreratu dute. "Ibilbidearen proposamena bidali genion federazioari eta dagoeneko esan digute onartu dutela", dio Dorleta Mendibil ikastolako irakasleak.

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
**Tel.:** 943 76 19 04
**Faxa:** 943 76 43 03
**Sakelakoa:** 656 78 64 84

etxalar
kafetegia
kruasantegia
Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

**ONDAREA** > UDAL ARTXIBOKO ARGAZKI FONDOA

# Airetik egindako 600 argazki erosteko eskaintza Udalari

Paisajes Españoles enpresak hegazkinetik egindako Bergarako ehunka argazki ditu

Bergararen fisonomia zelan aldatu den jakiteko oso baliagarriak dira

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Paisajes Españoles enpresak eskaintza bitxia egin zion Bergarako alkate Victoriano Gallastegiri. Enpresa horrek airetik egiten ditu argazkiak eta 1961etik gaur egunera arte hegazkinetik Bergarako udalerriari egindako 600 bat argazki batu ditu.

Argazki sorta hori 18.000 euroren truke (BEZa ere batu behar zaio) saldu gura dio Udalari. Argazki horietan, besteak beste, udalerriko erdigunea, lurzoruak, enpresak, auzuneak, errepideak, kirol instalazioak eta beste jasotzen dira. Are gehiago, azken lau hamarkadetan egindako argazkiak direnez, udalerriak izan duen bilakaera ondo antzeman daiteke.

**ERABAKIA HARTU BARIK**

Udaleko Hirigintza Sailak ondo aztertu gura du gai hori Udal Artxiboaren arduradunarekin. GOIENKARIAk jakin duenez, aukeretako bat da argazki guztiak erosi beharrean horietako batzuk eskuratzea. Udaleko ordezkariek oraindik ez dakite argazki bakoitza sortaren eskaintzan baino garestiago erosi beharko duten, baina aukeraketa bat egitea aproposagotzat hartu dute. Dena dela, erabakia hartu bezain laster aditzera emango dugu.

Udal ordezkariek argi dute argazki horiek Udalak dituen fondorako oso baliagarriak direla. Are gehiago, Hirigintzak ere etekina aterako lieke dokumentu grafiko horiei, edozein proiektu edo ekimen egiteko orduan, informazio hori oso baliagarria delako.



IKUSPEGI OROKORRA 1999an Bolutik egindako argazkian, Bergarako ikuspegi orokorra. BUA/AMAIA LABAIEN

DATUA

**18.000**

eurotan (BEZa gehitu beharko zaio) saldu gura du Bergarako **600 ARGAZKIEN SORTA** Paisajes Españoles enpresak. 1961etik gaur egunera arte airetik egindako argazkiak dira, eta Udalarendako oso baliagarriak dira.

UDAL ARTXIBOA ERABILI

**> HERRITARREN ARGAZKIAK**
Herritarrek argazki zaharrak eraman ditzakete, kopiatu eta udal fondoa osatzeko.

**> HERRITARREK ERABILI**
Modu berean, gura duen herritarrak udal artxibora jo dezake argazkiren bat eskuratzera, tasa txiki batzuen truke.

**UDAL ARTXIBO ERRALDOIA**

Bestalde, Bergarako Udalak argazki artxibo erraldoia dauka. Udal Artxiboko arduradun Arantzazu Oregiren esanetan, 16.000 argazkitik gora dituzte jasota.

Horietako asko iraganean bilduma partikularretakoak ziren edo kultura etxean aurkitutakoak dira. Horien artean, Oregik nabarmendu ditu Valleko konde aita eta semearenak (XIX. mendekoak), Agirrolea argazki dendakoek Espainiako gerra aurretik egindakoak, Roman Larrañagak 60ko eta 70eko hamarka- dan egindakoak eta Juanito Idigorasenak, besteak beste.

Argazki altxor hori gordetzeko euskarriak ere mota askotakoak dira: kristalezko plakak, negatiboak, positiboak, diapositibak, digitalak...

**HERRITARREN DOHAINTZAK**

Bestalde, Oregik jakinarazi digu bergarar ugari joaten direla artxibora euren argazkiak eramatera. "Ia egunero etortzen da herritarren bat etxean dituen argazki zaharrak ekartzera. Asko eskertzen dugu. Horiei esker, Bergarako ohituren, gizartearen, bizimoduaren eta arlo askoren informazioa gordetzeko aukera dugu".

Artxiboko arduradunak argazkiak eskaneatu edo kopiatu ondoren, bueltan eramaten dituzte. Horrez gain, Udalari argazkiok erabiltzeko aukera emateko hitzarmen bat egiten dute herritar horiekin.

**ARGAZKI GUZTIAK ESKURAGARRI**

Modu berean, inork argazkiren bat behar badu, artxiboan eskura dezake. Horren truke, tasa bat ordaindu beharko du.

**IKASTAROAK**

## Txotxongilo eta hankapalu ikastaroa

**I.B.** > BERGARA

Udalak txotxongiloak egin eta erabiltzen ikasteko eta hankapaluetan ibiltzeko ikastaroak antolatu ditu. Biak hala biak 11 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude, eta plazak mugatuak dira.

Txotxongiloen ikastaroa martxoaren 18tik apirilaren 8ra egingo dute, zapatuetan. Irakaslea Taun-Taun taldeko Iñaki Mata izango da eta kultura etxean egingo dute.

Hankapaluena, berriz, maiatzeko zapatuetan egingo dute, eta irakaslea Mikel Ibartzabal izango da. Zabalotegiko pilotalekuan eta kalean ibiliko dira. Izena emateko, jo kultura etxera.

> LEHIAKETA

### Mendekoste jaietako azala egiteko lehiaketa abiarazita

Udalak Mendekoste jaietako azala sortzeko lehiaketa jarri du abian. Horma-irudiak honako leloa izan beharko du: *Pentekoste jaiak 2006*. Teknika libre izango da, eta lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira apirilaren 28a baino lehen. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du.

> ERAKUSKETA

### Menchu Galen margolan erakusketa datorren astean

Irungo Menchu Gal margolaria oso ezaguna da Espainiako Estatuan. Are gehiago, Gipuzkoako Aldundiaren Urrezko Domina jaso zuen. Hortaz, luxuzko erakusketa egingo dute Aroztegi aretoan datorren egubakoitzetik (hilak 17) apirilaren 30era bitartean.

GAK
Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak
Era guztietako garbiketak
Zuen komunitateko administrazioa
Konponketa orokorrak
Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.
Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

**2006KO ARATUSTEETAKO KALE-ANIMAZIOKO SARIDUNAK:**

# “ZEZENZALEAK”

# 160 eurotako bonoa

Bedelkarreko jatetxe eta tabernetan erabiltzeko




# Debagoieneko txirrindularitza

**Txirrindulari taldeen GEHIGARRIA martxoaren 20an Asteleheneko Goienkarian**

Taldeen argazkiak txirrindulari guztiekin • Erreportajeak • Iritziak

Asteleheneko Goienkaria
**GEHIGARRIAK** | **Gorde egingo dituzu.**

**Urtean zehar etxean jasotzeko, egin zaitez harpidedun.**

**36 €**

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**

09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, aste bukaera osoa

FUTBOLA > ERREGIONALA

# Elgoibar taldea hartuko du Bergarak

Seigarren postuan dagoen Elgoibar izango da asteburuan Agorrosinen. Aurrekoek kale noiz egingo duten zain dago Bergara

**XABIER URTZELAI**> ARRASATE

Asteak joan eta asteak etorri, aurrean dabiltzan Zumaiakok eta Urolak ez dute kale egiten (52 puntu), eta Bergarako (48 puntu) entrenatzaile Josu Zubia hasi da arduratzen: "Orain arte, 63 edo 64 puntu nahikoa izan dira Preferentera igotzeko, baina martxa horretan jarraituz gero, aurten 70 puntu beharko dira gora igotzeko; garesti egon behar du aurten goiko kategoriara igotzeko txartelak".

Bergarak lau aste barru izango du Zumaiakoren bisita, eta Urolaren kontra ere jokatu behar dute. Alde horretatik, badago aurrekoak harrapatzeko aukera. Lehenago, baina, Elgoibar eta halako taldeei jarri behar zaie arreta: "Kontuz Elgoibarrekin, talde ona da-eta. Euren zelaian 3-0 galdu genuen, baina egia da dena izan genuela kontran: penaltia huts egin, bi baloi langara bidali... Eta, eurak iritsi ziren bakoitzean gola egin ziguten. Dena dela, ondo dakite goian dauden taldeei min egiten, Zumaiakori, besteak beste".



**ASIER** *Tiri*, kontrarioari iskin egin guran. GOIENKARIA

> ESKIA

## Formigalera eta Alpeetara joateko irteerak gertu

Pol-Pol Mendi Elkarteak gertu ditu martxoaren 24an, 25ean eta 26an Formigalera egingo duen eski irteera eta baita Aste Santuan Alpeetara (Tignes) egingo duena ere. Hala, dagoeneko izena eman daiteke, elkartean bertan. Argibide gehiago 943 76 48 51 telefono zenbakian.

> MAHAI-FUTBOLA

## Zapatuan egingo dute Bergarako kanporaketa

Euskal Herriko mahai-futbol federazioak antolatuta, bihar, hilak 11, egingo dute txapelketako Bergarako kanporaketa. Hala, esku hartzeko bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. Saria, Las Vegasera bidaia.



JOSE INAZIO ALBISUA

## Bergarako ziklistak ere errepidean

*Asteleheneko Goienkaria*-n ikusi ditugu Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldekoak Dorletan. Ez ziren izan, baina, domekan egin zuen eguraldi txarrarekin errepidera atera ziren bakarrak. Bergarako Txirrindularitza Elkartekoak ere animatu ziren taldean lehenengo kilometroak egitera. Denboraldi hasierak agintzen du bizikletan poliki hastea, eta lehenengo kilometroak ondo neurtzea. Ohitura jarraituz, Dorletako Amari lore eskaintza egitea da lehenengo hitzorduko helburua; etorriko dira kilometroak.

## labegaraieta

### EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Agirrebeña - Guri Guri | **0-3** |
| Komando Piperrak - Irubide | **4-0** |
| Txakurra - Paco Cia | **2-14** |
| Mongatxurra - SDTNT | **12-4** |
| Pub Irish - Teatekh | **3-2** |
| Fit Automotion - Pirulotarrak | **2-14** |
| Kalaveras - Santana Rivers | **6-4** |
| Belengua - Niu Tim | **3-5** |

### PARTIDUAK

**Martxoak 11, zapatua (barruan)**

| | | |
|---|---|---|
| **11:00** | Mongatxurra - Teatekh. | **Agirrebeña** |
| **12:00** | Agirrebeña - Komando P. | **Mongatx.** |
| **16:30** | Guri Guri - Paco Cia | **Egurre** |
| **17:30** | Alls Black's - Egurre | **Paco Cia** |

**Martxoak 12, domeka (barruan)**

| | | |
|---|---|---|
| **09:30** | Kalaveras - Errotagain | **A ze flaxa** |
| **10:30** | Pub Irish - A ze flaxa | **Errotagain** |
| **11:30** | Fit Automotion - Santana | **Irubide Jat.** |
| **12:30** | Irubide - Paco Cia | **Santana Rivers** |
| **16:00** | Guri Guri - Txakurra | **Alls Black's** |
| **17:00** | Agirrebeña - Alls Black's | **Guri Guri** |
| **18:00** | Egurre - Makanaki | **SDTNT** |
| **19:00** | SDTNT - Teatekh | **Makanaki** |

### SAILKAPENA

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Alls Black's | 45 | 16 |
| **2.** | Guri Guri | 40 | 15 |
| **3.** | Kalaveras | 39 | 17 |
| **4.** | Agirrebeña | 39 | 17 |
| **5.** | Teatekh | 38 | 18 |
| **6.** | Errotagain | 36 | 16 |
| **7.** | Mongatxurra | 34 | 18 |
| **8.** | A ze flaxa | 31 | 17 |
| **9.** | Makanaki | 28 | 16 |
| **10.** | Niu Tim | 27 | 18 |
| **11.** | Pub Irish | 25 | 18 |
| **12.** | Pirulotarrak | 21 | 17 |
| **13.** | Paco Cia | 21 | 17 |
| **14.** | Komando Piperrak | 19 | 17 |
| **15.** | Egurre | 19 | 15 |
| **16.** | Santana Rivers | 17 | 17 |
| **17.** | Belengua Taberna | 16 | 17 |
| **18.** | Irubide Jatetxea | 10 | 16 |
| **19.** | SDTNT | 9 | 18 |
| **20.** | Fit Automotion | 3 | 17 |
| **21.** | Txakurrak | 3 | 17 |

## Federatuek ezin dute txapelketan esku hartu

Antolatzaileek argi eta garbi utzi dute: futbolean edo areto futbolean dabiltzan kirolari federatuek ezin dute txapelketan parte hartu. Dagoeneko harrapatu dute talderen bat edo beste, eta oraindik ez dute erabaki zein neurri hartu, baina eman dute oharra, ez dadila berriro ere errepikatu. Horrekin batera esan, SDTNT eta Pirulotarrak taldeek joan den asteko partiduetara ez azaltzearren hiru puntuko zigorra jasoko dutela. Ondo dakite hurrengoan kanporatu egingo dituztela.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES
BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

**mingainari tiraka**

**Manuel Campos** > La Exquisita txurro-dendakoa

# "Txurroak eskuz egitea da sekretu bakarra"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

**Logroñokoa da Manuel Campos, baina herriz herri ibiltzen da txurroak saltzen. Azken hilabetean Bergarako Fraiskozuri plazan izan da, eta hau izango du azken asteburua, berriz jaietan bueltatu artean. Harekin izan gara txurroei buruz berba egiten; baita txurroak probatzen ere.**



**Txurroak esaten duten bezain azkar egiten dira?**
Ez, ez da hain lan erraza ere. Teknika beharrezkoa da eta baita osagai onak ere. Gainera, dena eskuz egiten dugu.

**Txurroak txokolatearekin ala bakarrik?**
Neguan jendeak txokolatearekin jatea nahiago du; udan, berriz, gabe. Nik neuk txurroak bakarrik jaten ditut.

***De churro* gauza asko irteten zaizkizu?**
Lanean ez. Txurroak ongi egiteko ikasi egin behar da. Niri emaztearen gurasoek erakutsi zidaten, eta nik ondorengoei.

**Zuenean egunero jaten dira txurroak?**
Baten bat beti probatzen dut, nola irten diren jakiteko. Ura oso garrantzitsua da txurroendako eta toki batean edo bestean ezberdinak ateratzen dira.

**Zenbat txurro mota saltzen duzue?**
Ohikoez gain, kremaz edo txokolatez beteak, txokolatezko txurroak, asteburuetan *porrak*, *buñueloak*... Niri betikoak gustatzen zaizkit gehien.

**Jendea txurroen usainera etortzen da. Zuek ez zaudete nazkatuta usainarekin?**
Ohitu egin gara, eta guk ez dugu usaina sumatzen lanean ari garenean.

**'Txurrero baten makila baino erreago dago', dio esaerak. Zerk erretzen zaitu?**
Lanarengatik etxetik urruti eta batetik bestera ibili beharrak. Hala ere, orain nahiko finkatuta nago ibarrean eta astia dudanean kalean ere gustura ibiltzen naiz.

**Zein da txurro onak egiteko sekretua?**
Ahalik eta osagai onenak erabiltzea eta dena eskuz egitea. Bestalde, momentuan egin eta bero jatea komeni da.

**kanpotarrak bergaran**

**Asmaa Elghoulbzouri** > Etxekoandrea Marokoarra da

# "Gustura bizi naiz Bergaran; jende jatorra aurkitu dut"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

**Orain senarra dena hemen bizi zela eta, ezkondu ostean etorri zen Bergarara Asmaa, aurrez pare bat hilabete Aretxabaletan egin eta gero. Bi urte eta erdi daramatza Bergaran, eta, etxeko lanak egiteaz gain, gaztelaniako eta ingeleseko eskoletara joaten da.**

Maroko iparraldekoa, Tetuan hirikoa da Asmaa, eta senarra hemen bizi zenez harekin etorri zen Bergarara.

Goizez etxeko lanetan jarduten du eta arratsaldez gaztelania eta ingelesa ikasten. "Bizilagun batek eman zidan helduen eskolaren berri, eta gustura nabil bertan. Euskara ikasten ere jardun nuen, baina denbora laburrean. Baliteke noizbait berriz hastea".

**BERGARAN POZIK**

Bergaran gustura bizi dela esan digu Asmaak, nahiz eta ez zen berak esperotakoa. "Bi hilabetez Aretxabaletan bizi izan nintzen, eta hain herri txikia izanik zaila egin zitzaidan, ni hirikoa bainaiz. Beraz, Bergarara etorrita pozik nago. Ezagutzen dudan jendea oso jatorra da. Badira modu arraroan begiratzen didatenak, baina gutxiengoa dira".

**"Bergarako lasaitasuna eta mendiak gustuko ditut; hala ere nahiago ditut hiriak eskaintzen dituen aukerak"**



Asmaa Elghoulbzouri.

Bergarako lasaitasuna gustatu zaio gehien eta baita mendiak ere. "Udaberri aldean gustatzen zait mendi aldera joatea, San Martzialera, esaterako. Tetuanen ez nintzen joaten denborarik ez nuelako. Hala ere, nahiago dut hiria. Aukera gehiago eskaintzen dituelako".

Marokon familia, lagunak eta ohiturak utzi ditu, eta hori egin zaio gogorrena. Baina hemen ere jarraitzen ditu zenbait ohitura: "Ramadan hilabetea, jai erlijiosoak... hemen ere ospatzen ditut, baina familia urruti dela zailagoa da beti".

Noizbait bere herrialdera itzuliko bada ere, oraingoz hemen geratzeko asmoa du Asmaak eta lan egin nahiko luke.

**bere ustez**



Jon Suinaga

# Perzebe kalea 13. zenbakia, Bergara

*Pepe Gotera* eta *Otilio*, Ibañezen pertsonaia ospetsuak, gustura moldatuko lirateke Bergarako udaletxean.

Zinemaren ixtea *txapuzaren* eredu bat da, zeren eta kultur behar bat betetzen zuen. Defizitario izateagatik ixtea herriko farolak gastu bat suposatzen duelako kentzea bezalaxe da. Seminarioko eliza egokitzea nahi dute auditorio berri bezala... Txikia gelditzen den lokala!

Arau subsidiarioek *Rompetechos*-ek eginak dirudite.

**"Bergarako arau subsidiarioak Rompetechosek egindakoak direla dirudi"**

Boluri irteera berri bat emateko herri erdia hankaz gora jartzea nahi dute, Errekalde, bi etxe, Zabalotegi eta Mariaren Lagundiko berdegunea eta gimnasioa hondatuko lituzkete... Prezio handiegia zalantzazko beharrendako!

1.200 etxebizitza berri Bergaran eraikitzea nahi dute, gehienak libreak eta ez babestutakoak. 700 etxebizitza hutsik daude herrian eta horiek betetzea konponbide egokiagoa izango litzatekeela uste dut.

Bitartean aparkaleku faltaren problema konpontzeko proposamen eskasak.

*Mortadelo* eta *Filemon* kontratatu behar dira, Udalaren eta eraikitzaileen artean harreman susmagarria ikertzeko!

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32


JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

# Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

**hemen bada**
# giro!















































SAILKATUTA Digitalizatu ostean, sailkatu egiten ditu argazkiak Amaia Murgiondok, ahalik eta informazio gehien eta ahalik eta artxibo osatuena izateko. M.A.

**KULTURA** > ARGAZKI ARTXIBOA

# Herriko argazkiak gordeko dituen artxiboa egiten dabiltza

Herriari eta herrian ateratako argazki guztiak batuko dituzte

Herritarrek eurenak eraman ditzakete gordetzeko, eta baita artxibokoak eskatu ere

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Aretxabaletako argazki taldeak dauka Udalaren argazki artxiboaren ardura. Argazki zaharrak batu eta berriak ateratzen dituzte taldeko kideek: Manolo Urtubi, Jose Ramon Intxauspe, Jose Ramon Elkoro eta Javi del Fresnok.

**DATU BASEA OSATZEN**

Taldeko hiru kide Urtubi, Elkoro eta orain urte eta erdi hil zen Alberto Etxebarria 1998a inguruan Juan Antonio Rodriguez alkatearengana joan ziren proposamenarekin: argazki artxiboaren ardura hartuko zuen taldeak, materialaren gastua bere gain hartuz gero Udalak. Hitzarmena sinatu eta argazkiak batzen hasi ziren. "Aretxabaletako argazki guzti-guztiak batu gura ditugu; horretarako Kutxa fundazioari, Paisajes Españoles enpresari eta beste hainbati erosi dizkiegu. Herritarrenak ere gura ditugu, baina hori aurrerago izango da", dio Urtubik, argazki taldeko presidenteak.

Zazpi urte geroago argazki taldea konturatu zen argazki asko zituztela jasota, baina guztiak digitalizatu egin behar zirela, datu basean sartu eta informazioarekin osatu. Hori guztia egiten Amaia Murgiondo aretxabaletarra dabil. Sei hilabete egin zituen iaz, eta orain, otsailean hasita, beste urtebete egingo du artxiboa osatzen: "Paperean ditugun argazki zaharrak eta diapositiba eran ditugun berriak eskaneatu egiten ditugu digitalizatzeko, datu basean sartu gero eta argazkiaren gainean dauzkagun argibide guztiekin osatzen dugu", dio Amaiak.

DATUA

## 3.329

**ARGAZKI BAINO GEHIAGO**

Argazki artxiboa osatzen dabil Udala, eta dagoeneko hiru mila argazkitik gora ditu sailkatuta. Paperean eta diapositibetan dituen argazkiak digitalizatzen dabil, eta herritarren argazkiak ere jaso gura dituzte.

Argazki bakoitzak bere orritxoa dauka datu basean. Hala, bilaketa hainbat eratara egin dezake Amaiak, egilea edo gaia sartuta, esaterako, eta argazkiarekin batera informazio osagarria agertuko zaio: urtea, argazkiko pertsonaiak edo zein bildumatakoa den.

"3.329 argazki ditugu datu basean sartuta. Askoz argazki gehiago daude sartzeko, baina lehenengo sartutakoak izendatu eta txukundu behar ditugu, bestela sekulako nahastea sortuko zaigu", dio Amaiak.

**XX. MENDE HASIERAKOAK**

Argazki zaharrak zein oraingoak, guztiak gordetzen dituzte artxiboan. "Joan zen astean bertan ekarri zizkidan Ramon Erañak aitaren argazki zahar batzuk, gerra garaikoak dira", dio Amaiak. Justino Uribesalgoren argazkiak eta Copreci lantegiak emandakoak daude bilduma zaharren artean. Hain zuzen, Justino Uribesalgorenak dira datu basean sartuta dituzten zaharrenak, 1934koak. Hala ere, horiek baino zaharragoak daude, XX. mende hasierakoak.

Zaharrak asko dira, baina oraingoak ere makinatxo bat dituzte: "Herriko auzo guztiak ditugu; ez hori bakarrik, baserri guzti-guztiak ditugu argazkitan", dio Urtubik. Eta, hain zuzen, hura izan da azken urteotan artxiboko argazkilaria. Herrian izan diren aldaketak ere jaso ditu kamerarekin: "Urte gutxian aldaketa asko izan ditu gure herriak, eta dena daukagu jasota. Hemendik aurrera datozen aldaketak jasotzeko ere gertu gaude".

**HERRITARREN ZERBITZURA**

Herriko txoko eta paisaiak bakarrik ez dituzte jasoko, jai, ospakizun eta kultura ekitaldiak ere gordeko dituzte. Hala, Kultura Sailak ateratakoak sailkatu beharko ditu Amaiak hurrengo. Lan guztia egindakoan herritarrei eskatuko dizkiete etxean dituzten argazkiak. "Eskaneatu eta itzuli egingo dizkiegu hondatu barik", dio Urtubik zein Amaiak.

Argazki artxiboa, gainera, aretxabaletarren zerbitzura dago, eta argazkiak eska ditzakete herritarrek. Fitxa bat daukate gertatuta taldeko kideek eta bertan zein argazki gura dituzten eta zertarako zehaztu behar da. Iralabarri plazan dauka bulegoa Aretxabaletako argazki taldeak, 6. atartearen alboan, eta Amaia Murgiondo 08:00etatik 15:00etara bitartean egoten da.

**Manolo Urtubi** > Argazki taldeko presidentea eta argazkilaria

## "Material barik geratzean erosiko dugu kamera digitala"



M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA

**Argazkilaria da, eta artxiboan dauden argazki asko atera ditu; bereak zituenak ere eman dizkio Udalari. Aldean ez badarama gertu izango du beti kamera.**

**Zelako kamerarekin ateratzen dituzu argazkiak?**

Argazki taldeak daukan kamera berezia da, 6x6 formatuko diapositibak ateratzen ditu. Formatu horrek kalitate hobea ematen du gero paperean.

**Ez duzue pentsatu kamera digitala erabiltzea?**

Bai, baina ona gura izanez gero ordaindu behar da 5.000 euro-edo. Dugunarekin jarraituko dugu, baina badakigu laster material barik geratuko garela.

**Zenbat argazki ateratzen dituzu urtean?**

Ez dakit, ez dut zenbatzen, 50en bat argazki-film aterako nituen…

**Argazkiak ateratzeko herriko paraje polit bat.**

Urkulu esan behar, eta auzo batzuk. Eraikinei dagokienez badutugu dorretxe eta jauregi batzuk, baina sarri atera izan ditugu.

**Argazki asko eskatzen dizkizuete herritarrek?**

Bai, hasi dira. Aretxabaletako Udalak eta enpresa batzuek egutegiak egiteko eramaten dituzte, eta orain hildakoen gomutagarriak egiteko eskatzen dizkigute askok.

**INTERNET** > UDALAREKIN HARREMANAK

# Herritarrek Internet bidez egin diezaiokete eskaerak Udalari

Norberaren datuak kontsultatu, eskaerak egin edo kexak azal ditzakete herritarrek Udalak jarritako 'www.aretxabaleta.com' helbidean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Zerbitzu berria jarri du abian Udalak hil honetan, herritarren eskaera eta kontsultak arintzeko asmoarekin. Udaletxera bertara joan beharrean hemendik aurrera Internet bidez egin ditzakete aretxabaletarrek kontsulta asko, *www.aretxabaleta.com* helbidean sartuta: bizileku eta bizikidetzako ziurtagiriak eta lan txikietarako baimenak eskatu, errolda eta ordaindutako zergak kontsultatu, eta beste hainbat kontu. Udalaren gaineko kexa eta iradokizunak bidaltzeko aukera ere badago.

**UDALETXEAN ESKAERA**

Kontsulta horiek egiteko, baina, beharrezkoa da identifikazio pertsonala edukitzea; hau da, Izenpe txartela izatea edo pasahitz sistema erabiltzea. Martxoaren 2az ezkero udaletxean eska daiteke Izenpe txartela. Astelehen, martitzen eta eguenetan 09:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara Villabonako Olatz Agirre egoten da harrera-lekuan, eta edozein argibide gura izanez gero hurreratu besterik ez dute interesatuek. Txartela eskatzeko baldintza bakarra 16 urtetik gora izatea da, eta norberak joan behar du eskaera egitera NArekin. Oraindik oso herritar gutxi hurreratu da eskaerak egitera.

**IZENPE TXARTELA**

Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek adostutako txartela da Izenpe. Sinadura digitala dauka, hau da, sinadura juridikoaren balioa daukana, eta txartel irakurgailu baten laguntzarekin Internet bidez tramiteak egiten dituzte erabiltzaileek. Orain arte liburutegiko zerbitzuetarako bakarrik erabil zitekeen: kontsultak egin, mailegu epeak luzatu… Baina orain, Udalarekin harremanetan jartzeko ere erabiliko dute aretxabaletarrek. Gainera, administrazioarekin egin beharreko paper kontuetarako ere baliagarria izango da: errenta aitorpenak egin, errentaren gaineko zergak kontsultatu, eta beste hainbat.

## Margo laru eta gorriarekin egin diote eraso batzokiari

Asteon, margo laru eta gorria bota diote Aretxabaletako batzokiari, eta pintada egin; *PNV ez zuritu zuen burua, españoles* zioen pintadak. Martitzen gauetik eguaztenera bitartean egin zioten eraso, eta zikinduta azaldu zen eguazten goizean batzokia. Durana kalean bizi diren hainbat bizilagunen esanetan, eguazteneko 02:30 aldera ertzainak etorri ziren herrira batzokiari egindako erasoa ikustera. Eguazten eguerdirako, ostera, estali egin zuten pintada margo zuriarekin.

Azkenaldian erasorik jasan ez badu ere, ez da batzokiari margoa botatzen dioten lehenengo aldia.




M.A.

**EUSKARA**

## Umeei masajea emateko ikastaroa

**M.A.** > ARETXABALETA

Ume txikiei masajea ematen erakutsiko diete gurasoei bihar. Loramendi Euskara Elkarteak antolatu du ekitaldia eta Anartz Berezibarrek emango du ikastaroa. Udaletxe zaharrean elkartuko dira, 10:30ean, eta edonor ager daiteke.

**MALAWI HIZPIDE**

Datorren eguenean, martxoak 16, Afrikako Malawi herrian bizikletarekin bizitako pasadizoak kontatuko dizkiete hainbat lagunek udaletxe zaharrera hurreratzen direnei. 19:00etan izango da berbaldia eta diapositiba emanaldiak osatu egingo du hitzez esandakoa.

Bestalde, martxoaren 31n, egubakoitza, Arrasateko Sexologia Zerbitzuak iaz antolatutako Sexmetraia lehiaketako film laburrak emango dituzte. Yera Sanchez aretxabaletarrak saria jaso zuen, eta bere lana aurkeztuko du 21:30ean, udaletxe zaharrean.

> OSOKO BILKURA

### Arau subsidiarioak aldatzea onartuko dute astelehenean

Datorren astelehenean, martxoak 13, ohiko osoko bilkura egingo du Aretxabaletako udalbatzarrak. Hainbat gai eztabaidatuko dituzte, tartean bi hitzarmen: bata Ortubos enpresa eraikitzailearekin eta bestea Foru Aldundiarekin, aretxabaletarren gaineko informazioa jaso ahal izateko. Arau subsidiarioak aldatzeko lehen pausoak ematen hasiko dira, gainera, hainbat lurri izendapena aldatu eta urbanizagarri izateko.

> PARROKIA

### Garizumako elizkizunak egiten dabiltza parrokian

Martxoaren 1ean eman zioten hasiera kristauek Garizumari, eta ordutik hona, domeka guztietan bezperak otoitz egiten dituzte Agustindarren komentuan, 18:30ean; edonork egin diezaieke lagun bertako mojei. Egubakoitzetan, ostera, mezaren ordez gurutze-bidea egiten dabiltza, parrokian, 19:00etan. Bestalde, elizbarrutiak Garizumarako hausnarketa orriak gertatu ditu, eta parrokian daude eskuragarri.

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14
Badator udaberria!

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**Araitz Garaita** > Hezitzailea

# "Garrantzitsua da gurasoen eta umeen arteko komunikazioa, eguneroko kontuen gainekoa"

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Udaleko Prebentzio Sailak *Iraintzea hitzez jotzea da* erakusketa antolatu du 11 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako. Astelehenean hasi eta egubakoitzera bitartean udaletxeko ganbaratik pasatuko dira Araitzen azalpenak entzuteko. Gurasoendako, ostera, *bullying*-aren gaineko berbaldia egingo dute martitzenean, martxoak 14, 18:00etan.**



Juul izeneko mutiko ilegorriaren ipuina kontatuko die Araitzek gazteei. M.A.

***Juul* izeneko mutiko baten gaineko erakusketa azalduko diezu gaztetxoei.**

Bai, ile gorria daukan mutiko bat da *Juul*. Ile gorria daukalako iraintzen hasiko dira gainerako umeak eta *Juul*ek kendu egingo du ilea. Gorputzeko atal bat iraintzen dioten bakoitzean kentzen doa atal hori, azkenean buruarekin bakarrik geratu arte. Beste umeek buru horrekin futbolean egingo dute bukaeran.

**Zer diote ipuinaren gainean?**

Kuriosoa da helduendako oso gogorra delako, eta umeendako ez hainbeste. Ipuinetik abiatuta irainaren kontua landuko dut, euren arteko harremanen gaineko hausnarketa egiteko. Bukatzeko maitegrama izeneko jokoa egingo dugu, elkarri ezaugarri positiboak aurkitzea hain zuzen.

**Zeinek dauka arazo larriagoa iraintzen duenak edo iraindua denak?**

Zaila da hori esatea. Irainduak oso txarto pasatzen du eta jasanezina bihur daiteke egoera. Hala ere, iraintzeko joera markatua duten umeak ez daude ondo. Sarritan eurei gertatzen zaien erantzuna da. Horregatik arriskutsua da biktima eta erasotzaile eran lantzea gaia; beste dinamika batzuk behar dira.

**Gure gizartean iraintzea normaltzat daukagu. Ez da hala?**

Bai, umeen artean ikusten dena nagusion artean dagoena da. Etxean edo kalean ikusten badute besteen gainean gaizki esaka jardutea zilegi dela edo oihuka berba egiten badugu normala da umeak horretara ohitzea. Irainak jotzeak beste min egiten du.

> **"Arriskutsua da biktima eta erasotzaile moduan lantzea gaia, beste dinamika bat behar du"**

> **"Garrantzitsua da gurasoen artean arazoak elkarbanatzea, elkarri entzutea"**

**Gurasoek berbaldia dute.**

Bai, *bullying*-aren inguruan da, baina ez dut neuk emango. *Juul* erakusketa gurasoei ere erakutsi izan diet, eta sarritan kontzientzia gehien duten gurasoak datoz. Neure ustean garrantzitsua da gurasoen artean halako arazoak elkarbanatzea, elkarri entzutea, benetako arazoak dituen norbait egon daitekeelako. Oso garrantzitsua da, gainera, komunikazioa guraso eta umeen artean, ez bakarrik zerbait gertatzen denean, eguneroko kontuen gainean berba egitea.

**Lehen baino *bullying* kasu gehiago daudela uste duzu?**

Ez dut uste gehiago direnik, irainak aldatzen doaz bizimodua bezalaxe, eta beste kontu batzuk ikusten dira –irudiari eta arropari zortzi urterekin hastea garrantzia ematen–, baina ez gehiago. Telebistak batzuetan alarmismo itzela sortzen du, baina ez da arazoa konpontzeko modua, egunerokotasun eta komunikaziotik egin behar da lan.

**Zela konpondu arazoa?**

Eskolan, etxean eta guraso artean landu behar den arazoa da, eta sekula ez esan umeen kontuak dira, norberak ikusten duelako umea txarto dagoen edo ez.

> KARATEA

## Eskola kiroleko Gipuzkoako Txapelketa zapatuan

Eskola kiroleko Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatuko dute, domekan, 09:30ean, kirol etxean. 11 eta 12 urteko alebinek eta 13 eta 14 urteko infantilek jardungo dute txapelketan. Debagoieneko neska-mutikoekin batera Eibar, Azkoitia, Irun eta Donostiatik datozenak hurreratuko dira gure kirol etxera. Odilo Vazquezek zuzentzen duen Aretxabaletako karate taldeko kide bakarrak jardungo du txapelketan, gutxienez gerriko berdea izan behar dutelako parte-hartzaileek.

> IGERIKETA

## Taldeak osatu zain daude umeendako ikastaroa hasteko

Umeendako igeriketa ikastaroa antolatu zuen orain aste batzuk Udaleko Kirol Zerbitzuak, baina taldeak ezin osatuta dabiltza abian jartzeko. 1999 eta 2001 bitartean jaiotako umeek eman dezakete izena; horretarako kirol etxera deitu besterik ez dute gurasoek. Ordu erdiko saioak egingo dituzte astean behin edo birritan, eta hainbat ordutegi daude aukeran. Lehenengo taldeak lehenbailehen hasi gura du ikastaroa Pedro Balentziagaren esanetara.

> MULTIFITNESSA

## Jarri dute abian jarduerak batzen dituen gimnasia

Multifitness izeneko gimnasia jarri dute abian kirol etxean, eta, hain zuzen, joan zen astean hasi zen lanean Goienasport enpresako Bixen Calzon lehenengo taldearekin. Spinninga, aerobika, stepa, tonifikazioa, GAP (gluteoak, abdominalak eta hankak) eta beste hainbat jarduera batu dituzte multifitness delakoan. Taldea lanean hasita egon arren oraindik izena eman dezakete interesatuek, kirol etxera deituta.

**bere ustez**



Arrate Arkauz

## Baina gurean ere gerta daiteke

Oliba gozagarria da baina ez beti. Orain bi aste ume bat oliba hezur bat eztarrian trabatu eta ito omen zen. Dena ondo doanean dena da gozo, eta "niri ez zait gertatuko" pentsatzen dugu. Baina gurean ere gerta daiteke.

Lehen sorospeneko ikastaroa antolatu dute Pausokan. Aurreko berbaldi batean kontatu ziguten larrialdietara doazen kasu asko ekidin daitezkeela oinarrizko praktika batzuk gogoan izanda. Sarritan ondo etortzen dira guraso elkarteetako foroak norberaren esperientziak kontatzeko. Esaterako, sukarrak eragindako konbultsioak, zirrara sorrarazten du edonorengan, baina medikuek diotenez, ez ohi du gerorako eraginik izaten. Gauza da ez baduzu sekula zer den entzun sustoa mundiala dela. Umearen organismoak ez du gorputzeko tenperatura aldaketa kontrolatzen eta konbultsioak sortzen ditu; dardara izaten du eta joanda bezala geratzen da. Eta normalean bere onera etortzen da.

> **"Larrialdietako kasu asko ekidin daitezke oinarrizko praktika batzuk gogoan izanda"**

Horrelako kasuen berri izateak asko laguntzen du eta zer esanik ez sorospeneko ikastaroa egina izateak. Onena norberari ez tokatzea, baina halakoetan izaten dugu indarrik egoeratik onik ateratzeko. Mila esker, Maite.

**Iber**

**Loteria**
**Paper denda**
**Liburuak**

Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es



IBAIAK Ingurumenarekin lotuta, eskoriatzarrak gehien arduratzen dituen gauzetako bat da ibaien egoera. I.B.

**INGURUMENA** > AGENDA 21 EKIMENAREN BARRUAN PAUSO GEHIAGO EMAN DITUZTE

# Udalerriaren egoera aztertu eta egitekoak zehaztu dituzte

Ingurune enpresa dabil hainbat herritako egoera aztertu eta egin daitezkeen hobekuntzak azaltzeaz gain, elkarte eta udalak inplikatu guran.

**IKER BARANDIARAN**> ESKORIATZA

Atzo, eguena, Agenda 21 ekimenaren batzarra egiteko ziren osoko bilkuren aretoan. Herriko elkarte, erakunde eta bestelakoen ordezkariak zeuden gonbidatuta Ingurune enpresakoen azalpenak entzuten. Enpresa horrek udalerriaren diagnostikoa egin du. Ez hori ba-karrik; baita datozen urteetarako akzio plana ere.

Agenda 21en helburua da ingurumenaren zaintzearekin bat egiten duen gizateriaren eta bizi-kalitearen hobekuntza bultzatzea. Ezertan hasi aurretik, udalerriaren iraunkortasunerako diagnostikoa egin dute. Eskoriatzaren hainbat alor aztertu dituzte: biztanleria, ekonomia eta lana, bizikidetza, lurralde antolamendua, ondarea, mugikortasuna eta ingurumena, besteak beste.

**KUTSADURA ETA ENERGIA**

Egindako azterketaren arabera, herriko kutsadura iturri nagusiak honako hauek dira: ibilgailuen zirkulazioa (hazten doa autoen kopurua eta erabilera); industria (lau industria daude Atmosfera Potentzialki Poluitu Dezaketen Aktibitateak katalogoan: Fagor Ederlan, Fagor Etxetresna Elektrikoak, Mirvat eta Talleres de Eskoriatza, baina ez daude arriskutsuen artean); eta etxebizitza eta merkataritza iturriak (gasifikazio indize altua dute), hain zuzen ere.

Bestalde, azterketaren egileek nabarmendu dute herrian energia berriztagarriak garatzen dabiltzala. Hain zuzen ere, eguzki termikoaren hiru instalazio daude, eguzki fotovoltaikoaren 20, eta bestelakoak ere.

**INGURUMENAREKIN AKTIBOAGOAK**

Eskoriatzarrak "erdizka pozik" daude herrian bizi edo lan egiten, eta poztasun txikien eta, hortaz, ardura handien ematen dieten gaiak honako hauek dira: etxebizitza izateko aukera, kalitatea eta prezioa. Horren ostean, nekazari arloaren egoera eta gizartearen barruan dauden desberdintasunak eta pobrezia.

Ingurumenari dagokionez, oinezkoendako ekipamenduen desegokitasuna eta ibaien kutsadura nabarmendu dituzte. Horrekin lotuta, ibarreko datuekin alderatuta Eskoriatzan ingurumena hobetzeko jarrera aktiboagoa dago herritarren artean.

**APUSTU OREKATUAREN ALDE**

Hortaz, gizarte ongizatea bultzatzeaz gain, biodibertsitatea babestu eta hobetu gura dute; hiriguntza orekatuaren alde apustu egin; eta baliabide naturalen kudeaketa hobetu, besteak beste.

**UMEAK**

## Ludoteka estreinatu eta jaia egingo dute

Santa Anan jarri duten zerbitzua 3 eta 12 urte artekoei zuzenduta dago

**I.B.**> ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute ludoteka berria. Santa Anan dago 3 eta 12 urte bitartekoendako zerbitzua, eta Ludolan enpresak kudeatuko du. Ospakizun jaia umeei eta haien gurasoei zuzenduta dago, eta 17:30etik 19:30era bitartean egingo dute Luis Ezeiza eskolako patioan. Denetatik egongo da: puzgarriak, jostailu erraldoiak, tailerrak, eta abar.

Horrez gain, ludoteka ikusteko bisita gidatuak egingo dituzte, eta Udaleko Gazteria Sailak bideratutako galdetegia erantzun dutenen artean zozketa egingo dute 18:30ean.

**13TIK 18RA, EKITALDI ASKO**

Astelehenetik (hilak 13) 18ra arte ludoteka zabalik egongo da egunero bazkide direnendako eta baita gainontzeko lagunendako ere. 13an, ludoteka apainduko dute; 14an, askaria (merienda) izango dute; 15ean, jolas zirkuitua; 16an, marrazki lehiaketa; eta 17an, eskulanak egingo dituzte, hain zuzen ere.



Txikienek gozatu egingo dute.



**AZPIEGITURAK** > AUTOBIDEAREN GAINEAN HOBEKUNTZAK ETA KONPONBIDEAK EGITEKO

# Udala eta Bidegi, autobidearen gainean berba egiteko batzartuta

Gaurko, egubakoitza, Bidegik eta Udalak batzarra deitu dute. Azaroan Bidegik eten egin zituen autobidearen gaineko bigarren faseko batzarrak, eta gaur berrartzekotan dira

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, goizean egitekoa zen Bidegiren eta Udalaren arteko batzarra, 10:00etan. Iaz, azaroan egin zuten azkeneko batzarra Udalak eta autobideko lanen ardura duen Aldundiko Bidegi erakundeak. Baina azken horrek, Bidegik, eten egin zituen batzarrak, Udalaren webgunean agertzen zen informazio bat faltsua zela argudiatuta.

Elkarrizketen bigarren fase horretan Udaleko alderdi politikoen ordezkariak eta Bidegiko ordezkariak batu ziren, eta momentuz hala jarraituko dute. Aurretik, lehenengo fasean, Eskoriatzako kaltetuen udal batzordea zen Bidegirekin batzartzen zena, baina Bidegi batzorde horrekin haserretu egin zen eta batzarrik ez egitea erabaki zuen. Horren ostean, Udaleko taldeetako ordezkariekin batzarrak egiteko konpromisoa hartu zuen.

Batzarra Euroestudios enpresak Eskoriatzako udaletxean eguenetan erabiltzen duen gelan egingo dute.

**LANTZEKO GAI UGARI**

Bi aldeek gai-zerrenda propioa prestatu dute batzarrean adosteko, baina puntu askotan bat egiten dute.

Asmoa da elkarrizketak utzi zituzten lekuan berrartzea. Hortaz, lehenik eta behin aurretik adostutako etxeko-lanak gainbegiratu beharko dituzte, zein puntutan dauden jakiteko. Horrekin batera, lanek aurrera egin duten neurrian, bidean irten diren beste kontu batzuk argitu beharko dituzte.

Hain zuzen ere, beste gai askoren artean lanek eragindako zaraten neurketen aktak jaso gura dituzte; Ingeoban txostena aztertuko dute; Agarregoi, Agarrebe, Arrupe eta Biriñaorako sarbideak gainbegiratuko dituzte; eta Antontxu etxearen egoera aztertuko dute.

Horrez gain, aurreikusitako eta orain arte egin dituzten zabortegien gainean jardungo dute; baita aldatutako bigarren proiektuaren gainean; eta ingurumen txostenaren 0 egoera delakoaren gainean ere. Bestalde, biaduktuei, horien euskarrien sarbideei eta tunelei ere eman beharko diete eskatzen duten arreta. Gai asko diren arren, premia ere halakoa dela azpimarratu dute.

**HIRIGINTZA** > DORLETA AUZOA ERABERRITZEKO LANAK

# Eguaztenean hasi zituzten Dorletako eraberritze lanak

2 miloi euro inguruko aurrekontua dute eta 2007ko otsailean bukatuko dituzte

**I.B.** > ESKORIATZA

Herenegun, eguaztena, hasi zituzten Dorleta auzoa eraberritzeko lanak. 2 milioi euro inguruko aurrekontua dute eta Fonorte enpresak egingo ditu. Asmoa da lanak 10 hilabetean egitea eta 2007ko otsailerako bukatzea.

Lanen helburua da auzoa berriro urbanizatzea eta, besteak beste, zerbitzu guztiak aldatzea (ura, elektrizitatea, telekomunikazioak...) eta zolaketa egitea (espaloi guztiak bi metroraino zabaltzea, hain zuzen).

Horrekin batera, argitasuna eta uren kanalizazioa hobetzeko asmoa daukate. Horrez gain, lanak baliatuko dituzte lur azpiko edukiontziak jartzeko eta umeendako kulunkak konpontzeko.

Bestalde, Udalak auzotarrei jakinarazi die auzo guztian San Juan eta Aranburuzabala kaletarantz espaloiak jarriko dituztela eta aparkaleku publikoak ia bikoiztu egingo dituztela. Hain zuzen ere, gaur egun 56 bat daude, eta lanak egin ostean 110 izango dira.

**ERREKA PAREKO BIDEA MOZTU**

Lanen lehenengo fasean, errekaren pareko bidea 7 edo 8 hilabetean moztuko dute, uraren eta zerbitzuen berrikuntzaren zati nagusia egiteko. Hortaz, aipatutako asteetan inguru horretako aparkalekuak kendu egingo dituzte, eta zirkulazioa tarteka beste kaleetatik desbideratuko dute. Umeen kulunka eta jokogunea ere itxiko dute, baina maiatzeko lehen bi asteetarako zabaldu gura dute.

Bestalde, Dorletako auzotarrek etxeetako fatxadak berrituko dituzte. Hortaz, bestelako lanekin koordinatu beharko dute.



**BIZI-KALITATEA** Lan horiekin auzotarren bizi-kalitatea hobetuko da. I.B.

**EUSKARA**

# Euskararen planarekin, antolaketa berria

**I.B.** > ESKORIATZA

Udaleko Euskara Saila burubelarri dabil Euskararen Biziberritze Planarekin. Plana onartu zutenetik hainbat ekimen abiarazi dituzte, eta herriko eragile gehienak inplikatzeko saiakeran dabil.

Astelehenean, euskalgintzaren eragile diren elkarteek batzarra egin zuten: Luis Ezeiza, Almen, Jose Arana, HUHEZI, ludoteka, gaztelekua, Leintz Eskola Kirola, Axtroki, Aitxorrotx kultura elkartea, Euskaltegia, Udala eta Gazte Batzarrak, besteak beste.

**BATZARREN MAIZTASUNA**

Helburua zen planaren lehentasunak zehaztu, herriko elkarte gehiago inplikatu eta batzarren maiztasuna eginbeharren arabera zehaztea.

Bestalde, plan barruan egindako Bide-lagun ekimena bide onean doa. 11 guraso dabiltza euskara ikasten.




**Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak**

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com





**LIZARRAGA-UZARRAGA** Bidea egiteko Antzuolako Udal Etxegintzatik bideratuko dute dirua. GOIENKARIA

**UDAL AURREKONTUAK** > AURTEN INBERTSIO GUTXI

# Udalak 2.581.386 euroko aurrekontua aurkeztu du

Inbertsio nagusiak Antzuolako Udal Etxegintzatik bideratu dituzte; gainontzeko inbertsioak oso txikiak dira: 48.500 eurokoak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Martxoaren 10ean zen onartzekoa udalbatzarra aurtengo udal aurrekontua. Proposamenaren arabera, 2.581.386,28 euro da aurrekontua. Hala, iazko aurrekontuarekin alderatuta zertxobait gora egin du; izan ere, 2.460.054 euro izan zen.

Udalean jakinarazi digute aurten udal aurrekontuko zati txiki bat baino ez dutela bideratuko inbertsioetara: 48.500 euro, hain zuzen ere.

Kopuru horretatik diru gehien, 41.000 euro, hirigintzarako izango dira. Autobus markesinak ipintzeko (20.000 euro) eta koadro elektriko eta instalazioetarako (12.000 euro), batez ere. Inbertsio horietaz gain, barandetarako eta galdaragintza lanetarako izango dira 1.000 euro eta beste horrenbeste Kalegoiko espaloien tratamendurako. Elizako konponketetarako, berriz, 1.000 euro emango ditu Udalak. Bestalde, 6.000 euro plano topografikoak eguneratzeko erabiliko dira.

Gizarte atalean, Olarango errotulaziorako 2.500 euro inbertituko ditu Udalak. Kiroletan, 2.000 euro futbol zelairako eta liburutegirako, berriz, 3.000 euro izango dira.

**ANTZUOLAKO UDAL ETXEGINTZA**
Aurten inbertsio txikiak egotearen arrazoia da Udalak inbertsio handienak Antzuolako Udal Etxegintza enpresara bideratu dituela. Antzuolako Udal Etxegintzak aurten 2.003.897 euroko aurrekontua izango du. Horietatik, 1.930.730,31 euro inbertsioetarako erabiliko ditu.

Inbertsio handiena kultura etxean egingo du: 1.162.892 euro; Uzarraga-Lizarragako biderako 607.454,34 euro izango dira; eta 160.383,97 euro alde zaharra urbanizatzeko eta oinezkoendako ipintzeko.

Alkateak esan du aurrekontu horrekin baliabideei ahalik eta etekin handien atera nahi zaiela.

## Aurrekontuak eta inbertsioak

| | AURREKONTUA | INBERTSIOA |
|---|---|---|
| Zor publikoa | 107.716 € | - |
| Gobernu organoak | 56.565 € | - |
| Administrazio orokorra | 384.367 € | - |
| Gizarte Segurantza eta Sustapena | 314.910 € | 2.500 € |
| Hezkuntza | 68.744 € | - |
| Etxebizitza eta Hirigintza | 1.028.757,28 € | 41.000 € |
| Komunitate Ongizatea | 147.595 € | - |
| Kultura | 244.958 € | - |
| Kirolak | 57.771 € | 2.000 € |
| Liburutegia | 15.193 € | 3.000 € |
| Euskara | 84.881 € | - |
| Gazteria | 44.490 € | - |
| Nekazaritza | 25.439 € | - |
| **Guztira** | **2.581.386,28 €** | **48.500 €** |

> ERRETIRATUAK

### Hitzaldia eta irteera antolatu dituzte datorren asteetarako

Erretiratuen elkarteak antolatuta hitzaldia izango da hilaren 16an, Olaranen, 18:00etan. Idoia Arrillaga podologoak pertsona nagusien oinetako arazoez jardungo du. Bestalde, erretirauendako irteera antolatu dute martxoaren 22rako. Zumaian eliza eta herria bisitatu ostean, bueltan merienda egingo dute Loiolako Uranga hotelean. Joan nahi dutenek hilaren 17an eta 18an eman beharko dute izena, elkartean, 18:00etatik 19:00etara bitartean, 10 euro ordainduta.

> TELEBISTA

### Goiena Telebista 40. frekuentzian sintonizatu behar da

Antzuolan Goiena Telebistako seinalea hobetzeko zenbait egokitzapen egin dituzte. Hori dela eta, zenbait egunetan ezin izan da Goiena Telebista ikusi. Bada, lanak amaituta, GOITBren seinalea Antzuolaraino zabaldu da. Ikusi nahi dutenek 40. frekuentzian sintonizatu beharko dute telebista. Hori egin eta ikusten ez bada, teknikariarekin harremanetan jarri beharko dute, zenbait egokitzapen egin beharko baititu teknikariak antenan.

> PRESOAK

### Karmen Irizarri omenaldia martxoaren 18an

Datorren martxoaren 18an egingo diote omenaldia Karmen Irizar preso ohiari. Ekitaldi politikoa 19:00etan izango da, Zurrategin, eta ondoren manifestazioa egingo dute. Gauean afaria izango da, frontoian. Martxoaren 4rako txartela erosi zutenak txartel berarekin sar daitezke; gainontzekoek Bergaran Pol-Pol eta Arrano tabernetan eta Antzuolan Larrea eta Arin tabernetan eros ditzakete.

**bere ustez**



Ainhoa Ugarteburu

## Mapa mundixan ez gara agertzen

Behin maletak egitten dittuzunian eta herrialde berrixa aukeratzen dozunian, ez da bueltarik egoten.

Ingelesa ikastera etorri eta airez aldatu biharrez, agertu nintzan ni oin dala lau hilabete Dublinen.

Lehenengo sorpresak eta lan topatzian estuasunak gainditu eta gero, Europa osoko jendia ezagutzeko aukeria euki dot, eta baitta mila topiko apurtzeko be.

Italianoz hitzik esaten ez daben italianuak, frantsez jatorrak, banku konturik ez dauken suizuak, Finlandiako beltzak...

**"Europa osoko jendia ezagutzeko aukeria euki dot; baitta mila topiko apurtzeko be"**

Baina balio izan dost baitta be bestiak gutaz dauken ideia ezagutzeko. Ez gara existitzen. Hori da euskaldunon topikua.

Nere lagun danak, leku bat dauke mapa mundixan, herrialdia txikixa izen edo haundixa izen. Eta ez badakizu oso ondo nun dagon euren herrixa, mapan jartzen dotsue, eta hor egoten da, beste herrialdiengatik bereiztuta, beste kolore batez pintauta.

Akaso mapan gure lekua jartzian alde indar gehixau egin biharko ginuke gure artian kolpeka akabau baino. Mapan agertzeko eskubidian alde desagertu aurretik.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak
Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**KIROLA** > PILOTALEKUKO LANAK AURRERA

# Apirilaren hasieran zabaldu nahi dute frontoia, berritu ostean

Harmailetan berogailua ipiniko dute; beroa, baina, ez dute pilotariek sumatuko. Gainera, porlanaren gainean material isolatzailea jarriko dute



**KRISTALAK** Harmailen atzeko aldean kristal berriak ipiniko dituzte, koloretakoak. I.A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Udan hasi zituzten pilotalekua eta kirol instalazioak berritzeko lanak, eta martxa onean doaz.

Pilotalekuan egingo dituzte berrikuntza nagusiak. Frontisa eta kantxa zabaldu egingo dituzte: 1,50 metro eta 0,50 metro, hurrenez hurren. Ezker paretaren altuera 0,87 metro igoko dute; eta sabaiko habeak kurbatuak direnez, frontoiaren erdian ia bi metroko altuera hartu ahal izango du pilotak. Lurra eta kontrakantxa berritu eta margotu egingo dituzte, beltzez, telebistako emanaldietarako.

**BEROGAILUA**
Frontoian egingo duten berrikuntza nabarmenetariko bat da harmailetan berogailua ipintzea. "Beroa ikusleek baino ez dute sumatuko, ez pilotariek. Euskal Herrian ez dago sistema hau erabiltzen duen estalitako beste frontoirik", esan digu Patxi Basaurik. Harmailetako beste berrikuntza bat da porlanaren gainean material isolatzailea ipintzea.

Teilatuan egurrezko habeak, isolatzailea eta teilak ipini dituzte beroa mantentzeko.

Sarreretan ate bikoitzak egongo dira eta harmailen atzeko kristalak berriak izango dira, koloretakoak.

Kirol instalazioetan ere izango da berrikuntzarik: aldageletan ur instalazioa berritu dute eta sauna kanpoan berogailua ipini.

Lanak martxa onean doaz eta kristalak eta harmailetako material isolatzailea ipintzea, lurra berritzea eta frontoi guztia margotzea baino ez da falta. Alkateak esan digunez, gauzak okertu ezean apirilaren 8an zabalduko dute Udal Pilotaleku berritua.

**ELKARTASUNA**

## Saharari laguntzeko konpromiso zehatzak

Aralarrek eskatu du Udalean elkartasuna adierazteaz gain ekintzak ere egiteko

**I. A.** > ELGETA
Otsailaren 22ko udalbatzarrean adierazpen instituzionala onartu zuten, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 30.urteurrena zela-eta.

Hala ere, Aralarrek esan zuen adierazpena onartu ez ezik, ekintzak egiteko konpromisoa ere hartu beharko lukeela Udalak. Eta eskaria onartu ez zenez, Aralarrek gai honen gaineko proposamena aurkeztuko du hurrengo Ongizate batzordean.

Proposamen horretan jasotzen da, besteak beste, errefuxiatu kanpamenduetako egoera azaltzeko hitzaldi bat antolatzea; Elgeta Saharako herriren batekin senidetzea; Udalak bat egitea Oporrak Bakean programarekin, herriko familiek oporretan Saharako umeak hartzeko aukera izan dezaten; eta Udalak 600 euroko urgentziazko laguntza ematea, Tindoufeko kanpamenduetan uholdeek eragindako kalteei aurre egiteko.

**HEZKUNTZA** > GURASO TAILERRAK ABIAN DIRA

# Bederatzi guraso ari dira eskolan ikasten

Gurasoek eguneroko bizipenak elkarrekin trukatu ahal izango dituzte, hausnarketa-saioen bidez eta eztabaidak eginez

**I.A.** > HERRIA
Seme-alaben tokian jarri eta herriko bederatzi gurasok ikasteari ekin diote asteon. Hala ere, ez pentsa ikasgai berak landuko dituztenik, gurasoendako propio gertatutako gaiak baizik.

Guraso elkarteak tailerrak antolatu ditu adin txikiko umeak dituzten familiendako. Gurasook martxoko hiru eguaztenetan elkartuko dira, eskolan, 21:00etatik 22:00etara bitartean.

**HELBURUAK**
Tailer hauek hausnarketa eta eztabaida-gune modura antolatu dituzte. Gurasoek egunerokotasunean gertatzen zaizkien bizipenak elkarrekin trukatu ahal izango dituzte honela.

Helburu nagusiak dira ohiko egoeren eta familia funtzionamenduaren gaineko hausnarketa egitea; familiaren etapak aztertzea; familia barruko zein inguruarekiko komunikazioa erraztea; haurren eta gazteen eboluzio ezaugarriak ezagutzea; familietan ohikoak diren egoerak eta zailtasunak identifikatzea eta hauei aurre egiteko baliabideak jasotzea; eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan gurasoen parte-hartzea bultzatzea.

Asteon lehen saioa egin dute, eta oraingoak amaituta baliteke aurrerago gehiago antolatzea.

> KIROLA

### Urbia eta Aizkorrira irteera asteburu honetan egingo dute

Egokik mendi bizikleta irteera antolatu du martxoaren 19rako. Joan nahi dutenek martxoaren 14a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Bestalde, joan zen domekan Urbia eta Aizkorrira egitekoak ziren irteera eguraldi txarrarengatik bertan behera utzi zuten; eta martxoaren 12an egingo dute.

> ESPALOIA

### Aulki berriak eta oihala ipini dituzte Kafe Antzokian

Kultur ikuskizunetarako egurrezko aulkiak ordezkatu eta 150 aulki berri erosi ditu Udalak. Aulkiak Espaloian egongo dira. Eta oihala ere (teloia) ipini dute Espaloian; izango da antzerki saioetarako eta gertatzen dihარduten magia mostrarako ere. Aulkien eta oihalaren kostua 23.507 euro izan da.

> GAZTETXEA

### Batzar berezia gaur, hamar urtean lanean jardundakoekin

Gaztetxearen urteurrena dela eta, gaur, barikua, berbaldia egingo dute. Bertan hizlari izango dira hamar urteotan gaztetxetik pasa diren lagunak. Asanbladaren sorreraz eta okupazioaz, funtzionamenduaz, ekintzez eta batzarrez jardungo dute, besteak beste. Hitzordua 21:30ean da.

RECYDE
AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA



BONBAK Terrazan dauden makinak ere erretiratzen dabiltza, baliteke-eta haien azpitik pasatzea ura kultura etxera. U.M.

**HIRIGINTZA** > KULTURA ETXEA KONPONTZEN

# Ikusi dute ur-filtrazioak konpontzeko bide bakarra dela terrazako zoru osoa aldatzea

Joan den astean hasi zituzten lanak eta laster bukatuko dituztela espero dute

Kultura etxea eraiki zutenetik agertu zaizkie itoginak, batez ere bi gelatan

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Orain arte ezin izan dute asmatu zergatik eta nondik sartzen zen ura kultura etxera. Bazekiten teilatuko terrazatik sartzen zela. Baina justu nondik ez. Gauzak horrela, terraza guztia altxatu eta zoru berria ipintzea erabaki dute. Hala adierazi digu obrak egiten dabilen Palmiro enpresako aparejadore Juan Carlos Villamorrek: "Behin baino gehiagotan egin ditugu konponketak, hiru bider edo bai, baina sekula ez dugu arazoa non zegoen aurkitu. Jakina, logikoena zen terraza osoa altxatu eta kito. Baina ahalegindu gara arazoa konpontzen ahalik eta gastu gutxienarekin. Azkenean, ezin genuenez, terraza altxatzea eta azpian asfaltozko zoru berria ipintzea erabaki dugu". Horrez gainera, terrazan dauden bonbak ere erretiratuko dituzte.

**LANAK ZATIKA EGINGO DIZUTE**

Lanak egiteko 15 bat egun-edo behar dituzte. Baina zatika egin behar dituzte, eta ondorioz, luzaroago joko dute. Izan ere, terrazapean zoru berria ipini eta gero, zoru hori benetan iragazgaitza den edo ez jakiteko egun batzuk itxaron beharko dituzte.

Bestalde, zorua konpontzeaz gainera, barruan kaltetuta dauden paretak margotuko dituzte.

**UDALAK KEXUA AURKEZTU DU**

Esandako moduan, Gasteizko Palmiro enpresa dabil kultura etxea konpontzen. Hau da, kultura etxea egin zuen enpresa bera, erantzukizun zibila berarena da-eta. 2001eko ekainean bukatu zuten eraikina, eta harrezkero itoginak izan dituzte. Jakina, horrek herritarren eta Udalaren kexuak eragin ditu. Obrak egin ostean, berriz, arazo guztiak konpontzea espero du Villamor aparejadoreak.

**IPUIN LEHIAKETA**

## Sarien banaketa martxoaren 24an da

Iaz baino herritar dezente gehiagok parte hartu du: guztira, 21ek

**U.M.** > ARAMAIO

Txirritola Ipuin Lehiaketan parte hartu duten 21 lagunen artean sei aukeratu beharko ditu epaimahaiak, irabazle moduan. Hain zuzen ere, adinaren arabera banatuta, DBH mailako bi lagun sarituko dituzte, LHko bigarren zikloko beste bi lagun eta LHko hirugarren zikloko beste bi. Haien izenak jakinaraziko dituzte datorren martxoaren 24an egingo duten sari banaketan. Ekitaldia izango da kultura etxean, 18:30ean. Epaimahaia, berriz, osatuko dute kultura arloan dabiltzan hiru aramaioarrek: Divina Arriolabengoak, Arantza Ibabek eta Juan Luis Nafarratek.

Gasteizko Arriaga liburu-dendan gastatzeko bonoak emango dizkiete sei lagun horiei.

Partehartzeari begiratuta, berriz, eskolan egin zuten deialdiari esker, iaz baino dezente lehiakide gehiagok parte hartu duela esan digute Txirritolatik.

**PATAGONIA BERBAGAI**

Bestalde, Txirritola Euskara Elkartetik jakinarazi digute datorren martxoaren 16an, eguena, Patagoniaren gaineko hitzaldia eta diapositiba emanaldia antolatu dutela. Hitzordua 19:00etan da, kultura etxean. Ataungo (izena) Joxe Ramon Agirre *Marron*-ek berba egingo du.

## Andere Arriolabengoa eta bere taldea, kanporatuta

Oso ondo jardun arren, Zuiako Koadrilako hiru lagunek osatutako Gorbeia taldeak ez zuen aurrera egin ETB1eko *Mihiluze* saioan. Atzo, eguena, ziren emititzekoak lehiaketaren atal hori. Argazkian ikusten den moduan, Andere Arriolabengoa aramaioarrak eta Zigor Enbeita eta Gorka Iturriaga Izarrakoek jokatu zuten 18.000 eurorengatik Gorbeia taldearen izenean.




ETB

> NEKAZARITZA

### Bazkalekuak ustiatzeko eskaerak egiteko epea zabalik

Aramaioko mendietan dauden bazkalekuak ustiatu nahi dituzten abeltzainek martxoaren 31ra arteko epea dute eskaerak egiteko. Honako frogagiria eraman beharko dute: bere izenean zenbat abere dituen jasotzen duen AFAko Abere Erregistroa.

Agiri hori martxoaren 31ra arteko epean aurkeztu ezean, Udalak pentsatuko du pertsona horrek ez duela interesik mendiak ustiatzeko. Hortaz, bere abereak beste leku batzuetara eraman beharko ditu; bestela, legeak ezartzen dituen zigorrak aplikatuko dizkiote.

> OBRAK

### Eguraldiak onera egin bezain laster bukatuko dituzte lanak

Aspaldian geldi daude Zabola eta Untzilla auzoen arteko errepidea konpontzeko lanak. Excavaciones Arrasate dabil obra hori egiten. Enpresako kudeatzaile Santi Berezibarrek jakinarazi digunez, zoladura botatzea besterik ez zaie falta bukatzeko, "baina eguraldi honekin ez du merezi". Esan digunez, eguraldiak hobera egin bezain laster zolatuko dute: "Lau bat egunean botata dugu asfaltoa"; halaber, gaineratu digu egun horietan eten egin beharko dutela zirkulazioa. Zolatzeaz gainera, besteak beste, errepideko zuloak eta arekak konpondu dituztela esan digu.

**GURASOAK** > UDABERRIRAKO EKINTZAK ANTOLATZEN

# Zuhaitz Eguna, udaberriari ongietorria eta mendi irteera egitea erabaki du Gurelek

Azken urteotan eskiatzera joan badira ere, udaberrian aurten mendi aldera egingo dute irteera. Apirilaren 1ean izango da, eta Urbasa, Opakua edo Gorbeia hautagaiak



**MENDI IRTEERA** egingo dute apirilaren 1ean, zapatua, eskiatzera joan ordez. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Batzarra egin zuen joan zen egubakoitzean Gurel elkarteak. Udaberrian antolatu gura dituzten ekintzak zehazten joatea zuen helburu batzarrak. Irteera eta data guztiak ez zituzten zehaztu, baina bai zer egin gura duten.

**ZUHAITZAK ETA LOREAK LANDATU**

Udaberria gainean dugula jakinik Zuhaitz Eguna egitea erabaki zuten. Asteburu honetan bertan egitea aipatu zuten, baina Udalarekin adostekotan geratu ziren. Azken horren iritziz, ostera, agudotxo izango da zapatua, basozainarekin egin behar dutelako berba zuhaitzok nondik ekarri eta non landatu erabakitzeko. Martxoaren 25ean udaberriari ongietorria ospakizuna egingo dute, eta loreak landatuko dituzte herriko hainbat tokitan; Goiko plazan, esaterako.

Udaberrian, gainera, irteera egitea dute ohitura eta azken bi urteotan eskiatzera joan dira. Aurten mendira izango da irteera. Apirilaren 1ean egingo dute eta Urbasa, Opakua edo Gorbeia aipatu arren erabaki barik utzi zuten. Udako irteera, ostera, ekainaren 3an eta 4an egingo dute, eta hiru hautagai dituzte: Lekeitio, Gorliz edo Donostiako Aquariumean gaua pasatzea.

**EMAKUMEAK**

## Bazkaria Emakumeen Eguna ospatzeko

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Emakumearen Nazioarteko Eguna pasatu berri, Gatzagako Sorginak emakume taldeko kideek ere ospatu gura dute. Azken urteotan egindako legez, bazkaria egingo dute Gure Ametsa jatetxean, eta ia 30 emakumek eman dute izena. Sarrerako jakiak, itsas zapoa eta erredondoa saltsan eskainiko dizkiete jatetxean; tarta eta xanpaina ere izango dituzte ospatzeko.

Bazkalostean zozketa egingo dute aurtengo hiru isuskiak zeini eman, eta esan behar da dagoeneko emakume gutxi geratzen direla herrian isuski barik. Jolasak egingo dituzte gero; iaz barre galantak eragin zizkieten jolasek eta aurten errepikatu egin gura dituzte. Eta eguna dantzan bukatuko dute Gure Ametsara hurreratzen diren Sorginak taldeko emakumeek. Bazkalostean, gainera, aurtengo bidaia nora egin eta beste ekintzarik antolatu gura duten eztabaidatuko dute.

ILUNPEAN

Sorkun solaskide

**Egubakoitzean, martxoaren 10ean**
22:15ean

**Aurkezlea:**
Oihana Elortza

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

ILUNTZEAN
**Ile apaindegia:** Azul de Rizos
**Jantziak:** Udalaitz






**ITXAROPENA** Eguazteneko erorikotik lehenbailehen errekuperatu gura du; apirileko klasikoetarako gertu egoteko. GOIENKARIA

**TXIRRINDULARITZA** > PARIS-NIZA KLASIKOA DOMEKAN BUKATUKO DA

# "Erortzerakoan abiadura handian gindoazen"

Eguazten gauean izan ginen Markel Irizar ziklista oñatiarrarekin; erizaindegitik bueltan harrapatu genuen: "Sekulako kolpea hartu dut, sekulakoa"

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Paris-Niza lasterketako lehenengo etapetan aurrean ibili da Markel Irizar, inoiz baino gusturago. Samuel Sanchezendako lan egitea zen helburu nagusia, baina indartsu zegoela ikusita, Markelek esperantza zuen tropelaren anonimotasunetik ihes egiteko, aurrealdean ibiltzeko. Horren gainean berba egiteko asmoa genuen, telefonoa hartu zigun arte. Masajistarenetik bueltan gustura egongo zela esan genion brometan, baina erizaindegitik atera berri zegoen: "Gorputz osoa dut minduta, erredura handiekin. Helmugara iristeko 30 kilometro inguru geratuko ziren; aldapa beheran bi lasterkarik aurrera egin dugu. Abiadura handian gindoazen, 70 kilometro ordura bai; bihurgune batean, bestea barrualdetik sartu eta elkarrekin topo egin eta gero hantxe joan naiz, lurrera. Sekulako kolpea hartu dut, sekulakoa". Zorionez, ez zuen ezer hautsi: "Erredurak ditut eskuetan, hanketan, ukalondoetan... Bihar, baina, atera egingo naiz".

**INOIZ BAINO INDARTSUAGO**

"Indartsu nengoen, igoeretan batez ere; gazte mailatik ez nuen horrela igotzen. Handia da gero, ezin zorte txarra atzean utzi". Bada, proba amaitzeko asmoa zuen Markelek.

**MENDIKO ESKIA** > PIERRA MENTA

## Oñatiarrak mendiko eskiko proba klasikoenean

Iban eta Arkaitz Letamendi anaiek eta Aitor Otxoak hartuko dute esku Alpeetako proban

**X.U.** > OÑATI

Atzo hasi zuten domekara arte iraungo duen Pierra Menta eski lasterketa ezaguna (Beaufortoin ibarrean). Lau egun, lau etapa eta sekulako maldak, bai gora eta baita behera ere (10.000 metro). Hala, tarte askotan eskiatzaileek goranzkoan baino beheranzkoan izango dituzte zailtasun handiagoak. Bikoteka jokatuko dute proba, eta 170 bikotek baino gehiagok hasi zuten atzo lasterketa hori; guztiak ez dira helmugara iritsiko, seguru. Euskal ordezkarien artean izango dira Iban Letamendik eta Fernando Monasteriok osatuko duten bikotea, batetik, eta Arkaitz Letamendik eta Aitor Otxoak osatuko dutena, bestetik.



Gorputzaldi ona eta teknika landua beharrezkoak dira. WWW.ALPINE-GUIDES.COM

# Emakumea eta kirola

Emakumeei buruz gizartean hedatuak dauden hainbat aurreiritzi eta uste okerrak dira

Egungo gizartean, oraindik ere emakumezkoek kiroletan duten parte-hartzea gizonezkoena baino txikiagoa da. EAEn federatzen diren bost lagunetatik lau gizonezkoak dira eta bat emakumezkoa. Egoera desorekatu horren arrazoiak honako hauek dira, besteak beste: denborarik ez edo denborarik ezaren pertzepzioa, familiako eginkizunen banaketa desorekatua, lehentasun ezberdinak, estereotipo sozialak, presio sozial eta kulturalak, ohitura falta, konfiantzarik eza, kostu ekonomikoei aurre egiteko zailtasun handiagoa eta zaletasunei egokitutako eskaintza eskasa.

**ESTEREOTIPO FEMENINOAK**

Emakumezkoek estereotipo femeninoekin lotutako kirolak egitea begi onez ikusita dago; koordinazioa, oreka, malgutasuna, erritmoa edo sormena eskatzen dituzten kirolak egitea, alegia. Aldiz, beste begi batzuekin ikusita daude gihartsua, boteretsua, lehiakorra, bortitza edo ausarta izatea eskatzen duten kirolak.



**HEZKUNTZA** Kirol jardueraren izaera hezitzailea azpimarratu behar da.

Urtetan eta urtetan uste oker asko eduki izan ditu gizarteak; adibidez, emakumezkoek gaitasun eskasagoa dutela kirolerako. Horrek, ordea, ez du justifikazio biologikorik; emakumezkoek kirol gutxiago egitea inguruneak eragindako ondorioa da gehienbat: familian jasotako *feed-back*-ak, gizarte-itxaropenak eta hezkuntza formalak berak eragindakoa.

**BERDINTASUNERANZKO PAUSOAK**

Jende askoren lanari eta ekimenei esker, emakumeak kirolera ere normaltasunez hurbiltzea lortzen ari da gizartea, goi mailako emakume kirolariei esker zein ariketa fisikoa eguneroko aisialdiko osagai bihurtu den emakumeei esker.

Arlo horretan ere berdintasuneranzko urrats sendoak egiten ari dira asko.

Emakumeen parte-hartzea suspertu behar da, eta horretarako, kirolaren ikuspegia aldatu egin behar da eta lagundu egin behar da emakumearen berdintasunaren aldeko borrokan.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Euskadiko gazteen liga**
Aloña Mendi - Zalla
Domeka. 16:45. Azkoagain.

**Preferente maila**
Zestoa - Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Zubiaurre.
Mondra - Pasajes
Domeka. 16:30. Atxabalpe.
Irun - Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Gal.

**Lehen erregionala**
Bergara - Elgoibar
Zapatua. 16:15. Agorrosin.

**Bigarren erregionala**
Dunboa Eguz. - Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Irun.
Antzuola - Beti Ona
Zapatua. 16:30. Estala.

**Ohorezko mailako gazteak**
Ordizia - Mondra
Zapatua. 16:00. Altamira.
Mariño - Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Irun.
Vasconia - Bergara
Zapatua. 15:30. Martutene.

**Lehen mailako gazteak**
Bergara - Amaikak Bat
Zapatua. 18:15. Ipintza.
Arizmendi Aretx. - Orioko
Zapatua. 16:00. Ibarra.
Antoniano - Antzuola
Zapatua. 17:30. Zarautz.

**Bigarren mailako gazteak (Igoera fasea)**
Arrasate - Gure Txokoa
Domeka. 12:00. Atxabalpe.

**Kadeteen ohorezko maila**
Beasain - Aloña Mendi
Zapatua. 15:00. Igartza.
Bergara - Hernani
Zapatua. 11:30. Ipintza.

**Kadeteen lehenengo maila**
Arizmendi Aretx. - Arrasate
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Kadeteen bigarren maila (igoera fasea)**
Arizmendi Aretx. - Bergara
Domekan. 12:00. Ibarra.

**Ohorezko mailako infantilak**
Lagun Onak - Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Azpeitia.
Aurrera Ond. - Arizmendi Ar.
Domeka. 12:00. Ondarroa.

**Infantilen lehenengo maila (igoera fasea)**
Arrasate - Sanse
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.
Lazkao - Bergara
Zapatua. 11:00. Arizti Handi.

**Infantil txiki (txapeldunen fasea)**
Reala - Arizmendi Aretx.
Zapatua. 12:00. Zubieta.

**Emakumezkoen Liga, igoera fasea**
Bergara - Arizmendi Aretx.
Domeka. 17:00. Ipintza.
Beti Ona - Mondra
Zapatua. 17:15. Errenteria.

**Emakumezkoak, Kopa**
Aloña Mendi - Ilintxa
Domeka. 11:45. Ibarra.

**Emakumezkoak, kadete maila F8**
Arizmendi Aretx. - Elgoibar
Domeka. 11:00. Almen.
Arizmendi Arras. - Bergara
Zapatua. 11:00. Almen.

**Alebin maila**
Anaitasuna - Bergara
Domeka. 09:30. Azpeitia.
Aretxabaleta - Lengokoak
Domeka. 10:30. Ibarra.
Arrasate - Touring
Domeka. 12:00. Atxabalpe.
Aloña Mendi - Ostadar
Domeka. 10:00. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**Nazional B maila**
Eskoriatza - Laskorain
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Gipuzkoako liga**
Aloña Mendi - Pasaia
Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
Rehau - UDA Mercedes
Zapatua. 17:00. Donostia.

**Gazte maila**
Eskoriatza - Deutsche
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

**SASKIBALOIA**

**Lehen maila**
Askartza - Mugarri Alkesa
Domekan. 18:00. Leioa.

**Gipuzkoako ligako senior maila (gizonezkoak)**
Kevian Sport - Aloña Mendi
Zapatua. 20:15. Donostia.
Candy BKE - Alde Zaharra
Zapatua. 19:15. Labegaraiet.

**Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)**
STL Bilintx - Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako junior maila (gizonezkoak)**
Mugarri Alkesa - Hernani
Gaur. 19:30. Musakola.
Aloña Mendi - Zarautz
Domeka. 09:00. Zubikoa.
BKL Caf - Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Beasain.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)**
Mugarri Alkesa - Gros Xake
Zapatua. 10:00. Musakola.
Goierri - Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Urretxu.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)**
Graficas Ilba - Eskoriatza
Domeka. 12:00. Zarautz.
Bergara - Alde Zaharra
Zapatua. 16:00. M. Lagundia

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko kadete maila (emakumezkoak)**
Loj. Elgoibar - Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Elgoibar

**Lehen maila territoriala**
Arrikrutz Oñati - Ormaiztegi
Zapatua. 17:30. Zubikoa.
Ford Mugarri Arr. - Donibane
Domeka. 11:30. Iturripe.
Urnietako - Bergara
Zapatua. 19:45. Udal Kirol.

**Gazte maila**
Gatz Museoa Jakion - Usurbil
Zapatua. 16:30. Iturripe.
Aloña Mendi - OET BKL
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Gazte mailako Udaberri Txapelketa (emakumeak)**
Arrasate - Pulpo
Domeka. 10:00. Iturripe.
Verkol Aloña - Bergara
Zapatua. 15:30. Zubikoa.

**Gipuzkoako Txapelketako kadete mailako azken fasea**
Arrate - Aloña Mendi
Zapatua. 19:00. Eibar.

**XAKEA**

**Ohorezko maila**
Arlutz - Orvina
Zapatua. 16:00. Aretxabalet.

**Lehen maila**
Arrasate - Oberena
Zapatua. 16:00. Altamira.

**Gipuzkoako lehen maila**
Zarautz - Arrasate
Zapatua. 16:00. Zarautz.

**Gipuzkoako big. maila**
Arrasate San And. - Fortuna
Zapatua. 16:00. Altamira.
Bergara - Fortuna
Zapatua. 16:00. Bergara.

**Gipuzkoako hirug. maila**
Atletiko zaleak - La Salle
Zapatua. 16:00. Bergara.

**PILOTA**

**Elgetako Lau t'erdiko ETB Kantxa Txapeketa**
Gaur. 22:15. Aramaio.
Zapatua. 16:30. Aramaio.
Zapatua. 16:30. Eskoriatza.

**Bergaran, Eskola mailako Udaberri Txapelketa**
Gaur. 19:00. Udal pilotalek.

**Bergaran, Udaberri Txapelketa barruan**
Bergara - Andazpe
Gaur. 21:00. Udal pilotaleku.

**Arrasaten, San Juanetako Txapelketa barruan**
Gaur. 19:00. Uarkape.
Benjamin, alebin eta infantil mailako norgehiagokak.

**Aretxabaletan, Udaberri Txapelketa barruan**
Gaur. 19:30. Iturrigorri.
Aretxabaleta - Anorga
Aretxabaleta - Zumaia



**Norgehiagoka erabakigarria Askartzaren kontra, Leioan**
Mugarri Alkesak igoera faseko norgehiagoka garrantzitsuenetakoa jokatuko du domekan; zaleak eurekin joango dira Leioara.

**UNIBERTSITATEEN ARTEKO TXAPELKETA** > MU BIGARREN

# EHUk irabazita ere, MUkoek aurreikuspenak bete dituzte

Mondragon Unibertsitateko ikasleek pilotalekuko kiroletan agindu zuten, eta baita errugbian ere, EHUri 37-3 irabazita



**JIPOIA** MUkoek ez zuten askorik behar izan EHUkoen defentsa zulatzeko. X.U.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Eguaztenean egin zuten Unibertsitateen Arteko 6. Txapelketa, Debagoieneko kirol guneetan. Aurten ere EHUk erakutsi du bera dela indartsuena, baina MUkoek aurreikuspen guztiak bete dituzte. Kirol zerbitzuetako arduradunekin izan gara berbetan: "Antolatzaile ikuspuntutik, pozik egoteko arrazoiak ditugu. Ikasleek jokatu beharreko norgehiagoka ia guztiak jokatu zituzten, eta horrekin batera, izan genituen azken momentuko aldaketei ondo egin genien aurre. Adibidez, Musakolako pilotalekuan hezetasun handia zegoen, eta federazioko epaileek esan zuten han ez zegoela jokatzerik; eta, Iturripen jokatu zituzten norgehiagoka horiek".

Arazoren bat edo beste ere izan zuten: "Orokorrean, norgehiagoka guztietan lehia polita izan zen, istilu barik. Areto futboleko norgehiagokan, baina, EHUko jokalariek hika-mika sortu zuten, eta norgehiagoka hori bertan behera uztea erabaki zuen kirol horretako arduradunak. Horrekin batera, pena galanta hartu genuen EHUko waterpoloko taldea ez zela etorri ikusita-koan; ahalegin handia egin genuen kirol horretan, baina ezertarako ere ez".

**ERRUGBIAN, ERREPASOA**

Pilotalekuan, Mondragon Unibertsitatekoak jaun eta jabe izan ziren: frontenisean, eskupilotan, paletan... ez zuten kontrariorik izan, ezta squashean ere. Hori, baina, ez zen sorpresa izan, bazekiten-eta ordezkari onak zituztela. Errugbiko taldeak eman zuen sorpresa handiena, EHUri 37-3 irabazita.

Garagartzako zelaiak txarto egoteko asko behar ez badu ere, azken egunotan botatako euriak ez zuen lagundu. Hala, mele jokaldietan geratu zen argi nork agintzen zuen. Bultza indartsu eginez MUkoek metroak eta metroak irabazi zituzten, eta hainbat jokalditan EHUkoen defentsa goitik behera zulatu zuten. Hori bai, aterako jaurtiketak gehiagotan landu beharko dituzte.

> PILOTA

### Elgetako Lau t'erdiko ETB Kantxa Txapelketa asteburuan

23 urtez azpiko txapelketako lehenengo norgehiagokak jokatuko dituzte gaur eta bihar. Elgetako pilotalekuan konponketa lanak egiten dabiltzanez, gaurko eta biharko norgehiagokak Eskoriatzan eta Aramaion jokatuko dituzte. 108 pilotarik hartuko dute esku txapelketan.

> MENDIA

### Mendi Astea egingo dute Aloña Mendi elkartekoek

Xabi Ormazabalen omenez, *Elurretako lehoinabarren bila* izeneko ikus-entzutekoarekin hasiko du Aloña Mendik Mendi Astea, martitzenean. Horrekin batera, Karlos Vieirak (hilak 15) eta Josune Bereziartuk (hilak 17) ere emanaldia egingo dute. Mendiko eskiko eta eskaladako ikastaroak ere egingo dituzte.

eteo
ETEO, KOOP. E.
GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK
ESKAINITAKO TITULUAK
IDAZKARITZA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
NAZIOARTEKO MERKATARITZA
MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINGA
ATE IREKIAK MARTXOAREN 14an 18:00etan
Zatoz gu ezagutzera!
AUTOBUS LINEA BERRIA (2 ibilbide):
• Azpeitia-Azkoitia-Elgoibar-Eibar-Oñati
• Zornotza-Durango-Elorrio-Oñati
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA · HETEL · CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA
Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 71 80 09 • Fax: 943 71 81 62
informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu

# GOIENKARIA e-posta berriak

Aldatu egin ditugu posta elektronikoak. Hauek dira berriak:

| | |
|---|---|
| **Goienkaria** | goienkaria@goiena.com |
| **Asteleheneko Goienkaria** | astelehena@goiena.com |
| **Kultura** | kultura@goiena.com |
| **Kirola** | kirola@goiena.com |
| **Arrasate** | arrasate@goiena.com |
| **Bergara** | bergara@goiena.com |
| **Oñati** | oinati@goiena.com |
| **Aretxabaleta** | aretxabaleta@goiena.com |
| **Eskoriatza** | eskoriatza@goiena.com |
| **Antzuola** | antzuola@goiena.com |
| **Aramaio** | aramaio@goiena.com |
| **Elgeta** | elgeta@goiena.com |

**Hartu kontuan!**



**> LITERATURA**
*Zazpi bekatu nagusiak* aztergai HUHEZIko Literatura Astean > **44**



**> MARKY RAMONE**
Arrasateko 3.60 aretoan izango da eguenean, hilaren 16an > **45**

**> IZASKUN OJANGUREN**
Oso gaztetan hasi zen gitarra jotzen eta abesten. Musika beti izan du zaletasun handia. Bestalde, txikitatik zekien haur hezkuntzan lan egin gura zuela. > **50**





**HEMENGO GAZTEAK...**

# Atzerrian ikasten eta lanean

**HITZALDIA**
Mertxe Bilbaok gaiaren gaineko hitzaldia egingo du gaur Bergarako kultura etxean

**EUROPA NAGUSI**
Gazte gehienek Ingalaterrara jotzen dute, baita Irlandara edo Alemaniara ere

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*Lan egin eta ikasi atzerrian* izenburuko hitzaldia egingo du Mertxe Bilbaok gaur, egubakoitza, Bergarako kultura etxean, 19:00etan. Gazte Informazio Zerbitzuak antolatutako hitzaldia da gaurkoa eta bereziki 18 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago.

Nagusiki Europako hainbat herrialdetan unibertsitate ikasketak edo hizkuntza ikastaroak egin ahal izateko eta lana topatu ahal izateko hainbat pista emango ditu Mertxe Bilbaok. Gaurko hizlaria Busturian jaiotakoa da eta Turismo ikasketak egin zituen. Era berean, Ingalaterran emandako urteetan multimedia sistemen gaineko ikasketak egin zituen. Bi urtez Zarauzko Gazte Informazio Bulegoan lanean aritutakoa da Mertxe Bilbao, 2003tik 2005era, hain zuzen ere.

Atzerrian ikastera edo lan egitera iaz joandako gazte gehienek Ingalaterrara jo zuten. Europako gaine-

(44. orrialdean jarraitzen du)

## HEMENGO GAZTEAK, ATZERRIAN IKASTEN ETA LANEAN

(43. orrialdetik dator)
rako herrialdeei dagokienez, Irlanda, Frantzia, Alemania, Eskandinaviako herrialdeak eta Holanda dira jomuga arrakastatsuenak. Era berean, Erasmus plangintzari esker Italiara eta Greziara joandakoak ere dezente dira.

**ESPERIENTZIA ABERASGARRIA**

Atzerrira joateko orduan arrazoi nagusia zera izaten da: beste hizkuntza bat, beste kultura bat, bizi izateko beste modu bat ezagutzea. Halaxe esan digu Mertxe Bilbaok: "Erabakia oso pertsonala da eta askotan ez dakizu zer aurkituko duzun. Norberaren jarrera eta hizkuntza erabakigarriak izaten dira. Hizkuntzak erabat marka dezake atzerrian izango duzun esperientzia eta trebetasunak baino gehiago lotsarik ez izateak baldintzatuko du hori. Hobe lotsak alde batera lagatzea. Berdin jendearekiko tratuan. Jarrera irekia izatea da onena, beste herrialde bateko bizimodura ahalik eta ondoen egokitzeko. Jeneralean oso esperientzia aberasgarria gertatzen da denboraldi baterako atzerrira joatea, gauza asko ikasten dituzulako".

1997tik 2001era bitartean Ingalaterran, Londresen bizi izan zen Mertxe Bilbao. Ikasteaz gain, tarte horretan hainbat lanbidetan aritu zen: dendari, zerbitzari, gaztelania irakasle, teleoperadore, antzerki areto bateko langile...

Atzerrian aldi baterako lanak bilatzen dituzten enpresak daude, gestioak egitearren diru kopuru bat kobratzen dutenak. Beste aukera bat da nor bere kabuz joatea eta atzerrian lan bila hastea (badira doaneko zerbitzuak eskaintzen dituzten agentziak hainbat herrialdetan). "Egunkarietan eta aldizkarietan gauza interesgarriak topa daiteke kasu horietan, eta bestela *knock knock*, ate joka ibiltzeak funtzionatzen du zenbaitetan...", diosku Mertxek. Europako Batasuneko araudiak dioenez, langile orok dauka edozein herrialdetan lan egiteko eskubidea. Hala ere, Mertxek azpimarratzen duenez, "garai batean Ingalaterran zegoen erraztasun handiagoa lana topatzeko. Gaur egun Irlandan ere bai, Eskandinaviako herrialdeetan baita... Baina horietan hizkuntzaren handicapa egon daiteke...". Edozelan ere, *www.eures.net* helbidean Europako enplegu bulegoak biltzen ditu, eta lan eskaintza eta lan eskaria aurki daiteke bertan. Era berean, bestelako informazio lagungarria ere badator.

Bestalde, Europako Boluntario zerbitzua gomendatzen die Mertxek gazteei. Gizarte-ekintzako Gazteria Programaren bitartez, Europako Legebiltzarrak eta Europako Batasuneko kontseiluak aukera ematen die 15 eta 25 urte bitarteko gazteei gazte-taldeen trukeak egiteko eta Europako hainbat herrialdetan boluntario lanetan aritzeko. Era berean, auzolandegiak antolatzen dituzte, besteak beste. Helbidea honako hau duzue: *www.gazteaukera.euskadi.net*.

Europako Elkartearen webgunean (*www.europa.eu.int*) curriculum ereduak topa ditzakezue. Lana eta praktiken gaineko argibideak topatzeko oso helbide interesgarria da, Mertxe Bilbaoren arabera.

### HAINBAT HELBIDE

**> ATZERRIAN LANA BILATZEKO**
www.aseproce.org

**> AU-PAIR ENPRESAK**
www.au-pair-box.com
www.aupairsearch.com
www.aupair-world.net

**> LAN ESKAINTZAK, HEZKUNTZA AUKERAK, OSTATUA ETA BESTELAKOAK**
www.eures.net

**> LANA BILATZEKO WEBGUNEAK**
www.jobpilot.com
www.joberve.com
www.planetecruit.co.uk

**> HEZKUNTZA ETA IKASKETAK EUROPAN**
www.europa.eu.int/ploteus/portal

**> GAZTEAK EUROPAN**
http://europa.eu.int/youth

**> IKASKETAK, LANA, OSTATUA**
www.iagora.com

**> GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA**
www.gipuzkoa.net/gazteria
Telefonoa: 900 110 111

**SANEAMENDU ETA OBRA TEKNIKARIA**

SANEAMENDU ETA OBRA TEKNIKARI bat bitarteko funtzionario izendatu nahi da aldi baterako.
**Baldintzak:**
- Arkitekto teknikoa edo injineru teknikoaren titulua.
- Euskara: 3.HE, derrigorrezkoa

Interesdunak aurkeztu behar dira **apirilaren 6an** goizeko **9:30etan** Udaletxean probak egiteko.
**Oinarriak**: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Pertsonal Saila


Kirmen Uribe. GOIENKARIA


Hasier Etxeberria. ZALDIERO


Unai Elorriaga. ZALDIERO


Harkaitz Cano. GOIENKARIA

**LITERATURA** > HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAREN ESKUTIK

# Zazpi bekatuak izango dituzte mintzagai Literatura Astean

Inbidia, sabelkeria, handikeria eta nagikeria aztertuko dituzte Kirmen Uribek, Hasier Etxeberriak, Unai Elorriagak eta Harkaitz Canok

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatuta, Literatura Astea izango da martxoaren 20tik 23ra. Aurtengo ekitaldirako *Zazpi bekatu nagusiak* izan da aukeratutako gaia. MUko Hizkuntza Saileko Arantza Ozaetak esan digunez, Javier Revertek eman zien jardunaldiok bekatuen gainean antolatzeko ideia: "Iaz, *Literatura eta bidaia* zen goiburua, eta Javier Reverteri etortzeko gonbidapena egin genion. Bidaien gainean berba egiteaz nekatuta zegoela eta bekatuez berba egiteko gogoa zuela esan zigun. Azkenean ez dugu ekartzerik izan, baina Atxagak esaten duen moduan ideia *fotokopiatu* diogu, behinik behin".

**ZAZPI BEKATU**

Gai horren harira, izen handiko idazleak etorriko dira Eskoriatzako fakultatera. Bekatuak eta idazleak lotzeko orduan ez da arazorik egon: "Kirmen Uribek inbidia aukeratu zuen eta gainerakoak nik proposatu nizkien: Hasier Etxeberriari sabelkeria (gula), sukaldaritzako gaiak landu izan dituelako askotan; Unai Elorriagari handikeria, bere pertsonaiak umilak eta apalak direlako, ikusezinak ia, justu handikeriaren kontrakoak; eta Harkaitz Canori nagikeria, jostalaria delako, umorearekin primeran moldatzen delako", diosku Ozaetak. Santo Tomas Aquinok *zerrendatutako* zazpi bekatuetatik, hira eta zekenkeria kanpo geratu dira, haragikeria mahai-inguruan jorratuko baitute.

**MAHAI-INGURUA EGUENEAN**

Hain zuzen, Literatura Asteari hasiera emateko, eguenean, hilaren 17an, mahai-ingurua egingo dute Arrasateko Monterron jauregian, 19:00etan. *Bekatua eta haragikeria* izenburupean, Aizpea Goenagak, Iñigo Lamarcak eta Jabier Muguruzak hartuko dute parte eta Ana Urkiza arituko da moderatzaile lanetan.

### Literatura Astearen egitaraua

| | HIZLARIA/GAIA | NON/NOIZ |
|---|---|---|
| Martxoak 20, astelehena | Kirmen Uribe / Inbidia | HUHEZI / 19:00 |
| Martxoak 21, martitzena | Hasier Etxeberria / Sabelkeria | HUHEZI / 19:00 |
| Martxoak 22, eguaztena | Unai Elorriaga / Handikeria | HUHEZI / 11:30 |
| Martxoak 23, eguena | Harkaitz Cano / Nagikeria | HUHEZI / 19:00 |

**MUSIKA** > MARKY RAMONE, TEXASKO LOWER CLASS BRATS ETA BERTAKO PUNK-ROCKA

# Ramones taldeko bateria jotzaile Marky Arrasaten

Gaur, egubakoitza, Texasko Lower Crass Brats punk eta oi! taldea; zapatuan, NCC, Lobo Electrico eta Obligaciones; eta eguenean, Marky

**IKER BARANDIARAN** > DEBAGOIENA

Datozen egunetan, ohi den moduan, hainbat musika kontzertu egingo dituzte ibarrean. Gehienetan punk doinuak izango dira. Hain zuzen ere, eguenean, hilaren 16an, XX. mendeko rock musikaren ikur izan den Ramones taldeko bateria jotzailea Arrasateko 3.60 aretoan izango da. Marky Ramone ez zen Queens-eko (NY) talde ezagunaren lehenengo bateria jotzailea ezta bakarra izan, baina bi aldi luzetan bete zuen eginkizun hori eta hark grabatu zituen disko gehienak. Formazio ezagunenetik bizirik gelditzen den bakarra da eta ez dio inoiz jotzeari utzi, Intruders, Speedkings eta bestelako taldeekin. Euskal Herrian aurten egingo duen emanaldi bakarrenean Ramonesi ederto egokitzen zaizkion bi taldek esku hartuko dute: Arrasateko Los Cretinos-ek beso azpian diskoa dutela eta Gasteizko Los Gramones-ek, Ramonesen kalko ikaragarria. Hitzordua 21:00etarako egin dute.

**TEXASTIK PUNK-OI! TALDEA**

Hori baino lehenago, gaur, egubakoitza, Arrasateko areto berean Texasko (AEB) Lower Crass Brats-ek joko du. *La naranja mecanica* filma eta The Adicts ikurtzat daramatzan laukoteak Ingalaterrako punk eta oi! estiloak maite ditu. Emanaldi indartsuak egiten duten ospea dute. Eurekin batera Agressive Combat eta Afonia arituko dira, 22:30ean.

**HEMENGO PUNK-ROCK LABELA**

Hurbilagoko punka entzuteko eta ikusteko aukera izango da bihar, zapatua, Elgetako Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. Donostiako Nuevo Catecismo Catolicok eskarmentu handiko punk-rock indartsu eta dotorea egingo du; Tolosako Lobo Electricok rocka eta glama nahastuko ditu ikuskizunean parekorik ez daukan *frontman*-arekin; eta Gasteizko Obligacionesek punk-rocka jarrera *makarra*-z jantziko du.



**GONBIDATUAK** Markyren taldearekin batera, Los Cretinos (argazkian) eta Los Gramones taldeek joko dute. GOIENKARIA

**DANTZA** > 'TXIMELETA' IKUSKIZUNA

# Domekan, Biarrizko Junior baletaren ikuskizuna Elgetan

**I.B.** > ELGETA

Etzi, domeka, Biarrizko Junior baletak *Tximeleta* dantza ikuskizuna egingo du Elgetako Espaloia kafe antzokian, 19:30ean.

Ikuskizun horrek ordubete iraungo du eta hiru koreografiaz osatuta dago: Gäel Domengerrek idatzitako *Itxuraldatu gaua*, Schonberg-en musikarekin; eta Thierry Malandainek idatzitako *Beltxargaren heriotza* eta *Boleroa*, hain zuzen ere. Azken horietako musika Saint Saëns eta Ravelek idatzi dute, hurrenez hurren.

**12 DANTZARIK OSATZEN DUTE**

Dantza talde junior hori 12 lagunek osatzen dute. Ehun lagunen artean aukeraketa egin zuten eta 12 horiek hartu zituzten. Ikuskizuna prestakuntza profesionaleko proiektuaren fruitua da. Lehenengo emanaldia 2005eko azaroaren 17an egin zuten, Donostiako Gasteszena aretoan. Eta ordutik gaur arte dozena bat emanaldi egin dituzte.

**DONOSTIAKO UDALA ETA ALDUNDIA**

Biarrizko baleta oso ezaguna da, eta punta-puntako konpainiatzat dute Europa osoan. Sortu zutenetik hainbat ikuskizun egin dituzte, horietako batzuk ibarrean. Esaterako, joan den urtean Arrasaten *Errusiako baletari omenaldia* ikuskizuna egin zuten.

Junior taldea Aldundiaren eta Donostiako Udalaren ekimenez sortu zuten, eta Thierry Malandainek gidatzen duen konpainiak begi onez hartu zuen gaztetxoendako ekimena.

*GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA*
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
*Boni Laskurain 3 BERGARA*
**943 76 35 71**
ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



## Krema garestien eta merkeen arteko ezberdintasuna

Maria Isabel: zer desberdintasun dago krema garesti eta merke baten artean? Askotan ez dakit zein aukeratu; erosterakoan beti garestiena eskaintzen didate kontuan hartu gabe krema hori niri komeni zaidana den edo ez. Mari Angeles.

Desberdintasuna oso handia da; dena dela, desberdintasuna zein den jakiteko ondo esplikatu beharra dago. Laborategi garrantzitsu batek beti dauka produktu garrantzitsu bat (imajinatzen duzu Cristian Dior edo halako jostun bat kalitate txarreko arropa saltzen?) Dior-ek ondorengo ziurtasunak ematen dizkizu: zure neurrikoa den arropa oso ondo geratuko zaizula, ehuna ez dela kolorez aldatuko eta botoiak ez direla jausiko. Biek janzten gaituzte, baina emaitza ez da bera. Beste adibide bat: zilarrezko eraztunak eta urre zuriko eraztunak; urre zuriko eraztunari ez zaio distira inoiz joango; zilarrezkoari, aldiz, bai.

Produktu ona edukitzeak ondorengoa esan nahi du: ia seguru ez dizula alergiarik sortuko (betiere erabiltzeko agindua zuzena izan bada, zure azalaren egoera, zure adina eta beharrak kontuan hartuta) eta formularen printzipio aktiboak puruak direla ondorengo substantziekin: polipeptidoarekin, proteinarekin, bitaminarekin eta nutrizio eta birsorkuntza substantzia altuekin. Garraiobide elitista batekin substantzia zelularen barnera eramaten dute. Azalak dituen horma naturalak pasatzen saiatzen dira azalaren barnean sartzeko eta geruza sakonenetara heltzeko.

Jakina da produktu on batek kalitatezko materia, printzipio aktibo batzuk eta landutako elaborazioa erabiltzen dituela. Substantzia aktiboaren kontzentratua askoz ere handiagoa da; beraz, produktua eraginkorragoa izango da.

Dendan dagoenak beti produktu garestiena eskaintzen badizu, ezjakina delako da, seguruenik ez daki zer den kosmetika profesionala eta ez daki pertsona bakoitzaren beharrak baloratzen. Profesional on batek oso ondo daki zure beharrak zeintzuk diren eta zer komeni zaizun; gainera, zuk ulertzeko moduan azalduko dizu; horrela, zuk erabakiko duzu zein erosi nahi duzun.

Giartzu zentroaren ordutegia: 09:00etatik 22:00etara, zapatuetan 10:00etatik 13:00etara (udaberriko ordutegia).



**Maria Isabel Hurtado**
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

INMOBILIARIA KOROSTI
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 66 m². Oso ondo.
- Ibargarai 106 m². Oso ondo.
- Espoloia 156 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- S. Pedro 78 m². Ganbara. Berrituta.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Garajea.
- Bidekurutzeta 65 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Bolu 85 m². Ondo.
- Iparragirre 76 m². Ondo.
- Zubiaurre 80 m². Ondo.
- Artekale 74 m². Ondo.

**Antzuola:**
- Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
- Duplexa. Erdialdea. Oso ondo.
- Sagasti 90 m². Eguzkitsua.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
**Zarugalde 1 Arrasate**
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

**BERGARA:**
- Bidekurutzeta 55 m². Oso ondo.
- Erdialdean, duplexa 93 m². Berria.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Martoko 60 m². Berritzeko.
- Ibargarai 106 m². Berria.
- Iparragirre 165 m². Berritzeko.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Bolu 84 m². Oso ondo.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Martoko 45 m². Ondo.
- Boni Laskurain 92 m². Oso ondo.
- Ozaeta 74 m². Ondo.

**ELGETA:**
- 70 m². Berritzeko.

**SORALUZE:**
- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Duplex berria erdialdean.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoa. 90 m2. Bi balkoi. Garaje itxia. Erdi jantzia. 607 63 48 88.

**Aretxabaleta.** 84 m2. Hiru logela, jan-egongela, sukaldea, bi komun, garajea bi autorendako eta trastelekua. Jantzita. Etxeak 10 urte ditu. Telefonoa: 635 75 13 66.

**Arrasate.** Bi logela ditu eta guztiz jantzita dago. Berehala bizitzera joateko moduan. 144.000 eurotan (24 milioi pezeta) salgai daukat. 943 77 13 02.

**Arrasate.** Ezebizitza salgai Zerrajera kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. Bi garaje ditu. 660 70 13 80.

**Arrasate.** Hiru logela, berogailua, komuna eta berritua. 174 mila euro (29 milioi pezeta). 610 70 23 86.

**Arrasate.** Makatzenan etxea salgai. 943 79 98 90.

**Arrasate.** Negoziagarria. 649 55 98 10.

**Bergara.** 75 metro koadro. Hiru logela, egongela terrazarekin, komuna eta sukaldea. Txokoa eta bi aparkaleku ere baditu. 600 46 58 02.

**Bergara.** Erdigunean, 79 m²-ko etxebizitza salgai. 685 75 78 16.

**Bergara.** Ortuibar. Eraikuntza berria. 97 m². Hiru logela, bi komun. Dena kanpoaldera begira. Erdi jantzia. Trastelekua. Terraza eta arropa garbitzeko txokoa. Garaje itxia aukeran. 661 46 30 75.

**Bergara.** Telesforo Aranzadi. 140 m². Berrituta. Telefonoa: 699 75 45 46.

**Elgeta.** Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta ganbara. Igogailua ere badu. Prezio ona. 645 71 76 25.

**Elorrio.** Etxebizitza salgai. Hiru logela, jangela eta komuna. Berritua. 162.274 euro. 610 20 01 14.

**Otxandio.** Etxebizitza salgai alde zaharrean. Duplexa da. Bi komun, bi logela, egongela eta sukaldea. 100 metro koadro ditu. 656 72 43 58.

**Oñati.** Duplexa salgai erdigunean. Estreinatu gabea. Terraza dauka. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Etxe agentziok, ez deitu. Telefonoa: 627 21 87 49.

**Soraluze.** 35 metro koadro. Logela bat, sukaldea, eta egongela eta komun txiki bana. 15 milioi pezeta. 943 77 21 18.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Capbreton (Landak).** Homemobile bat errentan ematen da. Bi logela dauzka. Hondartzatik gertu. Guztiz jantzita, terraza eta lorategia. Aste Santurako, Pazko asterako eta udarako. Ekonomikoa. La Civelle campinga (3 izar). 665 73 40 09 edo 943 77 18 49.

**Costa Sancti** Petri-Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan, La Barrosa hondartzatik oso-oso gertu. Deitu gauez. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Eskoriatza.** Erdialdean. Berria. Arratsaldeko 6etatik aurrera deitu. 652 70 08 00.

**Vera (Almería).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bergara eta Arrasateko 30 urte inguruko 3 neska langile etxebizitza bila gabiltza. Maite. 665 73 17 66.

**Arrasate** edo inguruko herriren baten etxebizitza hartuko nuke errentan. Pablo. 676 02 95 19.

**Bergara.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. 630 93 16 39.

**Bergara.** Brasilgo anai-arreba batzuek etxebizitza hartuko lukete errentan. 659 98 20 17.

**Oñati.** Bi neskak etxebizitza hartuko genuke errentan. Telefonoa: 605 70 41 18.

### 105. ETXEAK OSATU

**Oñati.** Euskadi etorbidean etxea osatzeko neska bat behar da. 605 74 52 02.

**Oñati.** Lagun bat behar da etxea osatzeko. Bi mutil eta neska bat bizi dira. Logela ikusgarria, sukaldea zeharo jantzita, bainu bi, berogailua. Prezio: 140 euro hilean gehi gastuak. Garikoitz. 605 74 52 02.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia saldu edo emango nuke errentan. Erdialdean. Ekonomikoa. 685 72 16 52 edo 943 77 18 49.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Ibargarai kalean. 18 m2. 943 76 37 09.

**BERGARA**
**Depor tabernan zerbitzaria edo sukaldari laguntzailea behar da**
**629 26 88 51**

**ARETXABALETA**
**Sukaldari laguntzailea behar da aste bukaeratan lan egiteko.**
**652 70 82 46**

**BERGARA**
**Esperientziadun zerbitzaria behar da egubakoitz gauetarako eta zapatu arratsaldetarako eta gauetarako**
**943 76 15 59 (Bittor)**

**ARETXABALETA**
**Geroa-Cafe tabernan zerbitzaria eta sukaldaria behar dira.**
**696 16 83 06**

**ANGIOZAR**
**Ortzi erretegia alokatzen da.**
**943 78 22 80**
**665 72 24 46**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Emakumea behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskaraz jakitea baloratu egingo da. Telefonoa: 692 71 39 24.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara.** Emakume gaztea gertu edadetuak gauez zaintzeko. Telefonoa: 626 40 68 29.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 659 82 85 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 615 75 41 44.

**Bergara.** Bi neska gertu daude denetariko lanak egiteko: garbiketa, etxeko lanak, nagusiak zaindu, tabernetan... 659 84 72 92 edo 605 70 63 82.

**Bergara.** Mutila gertu lanerako. 679 25 92 24.

**Bergara.** Mutila lan egiteko gertu: garbitzen, pertsonak zaintzen... 647 19 36 95.

**Bergara.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko, astelehenetik eguenera, goizez edo arratsaldez. 647 09 26 16.

**Bergara.** Neska euskalduna uztailean umeak zaintzeko gertu. 628 23 23 18.

**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 92 40 86.

**Debagoiena.** Emakume bat gertu orduka lan egiteko. 626 40 68 21.

**Debagoiena.** Emakume bat prest dago ostalaritzan lan egiteko edota haurrak zaintzeko. 676 62 02 74.

**Emakumea** gertu edozein lan mota egiteko. 646 32 93 18.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Gaztelaniazko eskolak hartuko nituzke zapatu arratsaldeetan. Nina. 690 37 75 63.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Entzumen arazoak edo beste behar bereziren bat dituzten umeei eskola partikularrak emango nizkieke. Entzumen eta Hizkuntzan diplomaduna naiz eta zeinuen hizkuntza dakit. 605 74 78 40 edo 943 79 88 27.

**Oñati.** Klase partikularrak ematen dira, OHO eta DBH. Urte askoko esperientzia. Telefonoa: 943 78 28 43.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A4** 1.5 TDI autoa salgai. SS-BJ. Beti garajean. Telefonoa: 609 01 70 81.

**BMW 318 I** autoa salgai. 145 ZP. Bilstein motelgailuak. Ihes-hodi eta errubera berriak. 9.000 euro, negoziagarriak. Deitu telefono honetara: 635 71 04 55.

**CBR** 600F motorra salgai. 14.000 km. Osagarriak ere badauzka. Deitu telefono honetara: 651 70 90 06.

**Ford Escort.** Kolore zuria, SS-AC matrikuladuna. 600 Euro. Ondo zaindua. Deitu telefono honetara: 943 78 17 14.

**Ford Sierra XR 2.0i 4x4** autoa salgai. Oso egoera onean. Prezio interesgarria. Telefonoa: 605 75 96 11.

**Mercedes Vito 112** 68.000 Km. Deitu telefono honetara: 620 17 80 47.

**Opel Corsa** 1.7 DI autoa. 2002. urtekoa. 6.300 euro. (Juan Luis). Deitu telefono honetara: 637 83 76 64.

**Opel Corsa** autoa salgai. 600 euro. Deitu telefono honetara: 943 71 50 72.

**Peugeot 106.** Zazpi urte. 2.100 euro. Ondo zainduta. Deitu telefono honetara: 636 52 35 99.

**Renault** Scenic Fairway autoa salgai. 1.4. 95 ZP. 2002koa. Oso egoera onean. Familientzat egokia. 653 70 62 17.

**Toyota Celica** 1600 STI autoa salgai. 130 ZP. Koni motelgailuak. 2.500 euro. Telefonoa: 635 71 04 55.

**Volkswagen California** salgai. 1993koa. Estra asko ditu. Egoera oso onean dago. 14.500 €. Deitu telefono honetara: 656 72 34 97.

**Yamaha** Fazer 600 motorra salgai. 1998koa. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 649 17 67 74.

**Yamaha** YN 50 motorra salgai. Oso egoera onean. Telefonoa: 637 55 14 40.

### 602. EROSI

**Renault Clio** autoa erosiko nuke. Modelo zaharra. Urdina. Deitu telefono honetara: 645 72 25 24.

## 7/ ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katua** opari egingo nuke. Etxeko katua da. Gauez deitu. 943 76 58 12.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Autokarabana.** Ondo zaindua. 625 70 84 20.

**Gurpil bi** salgai. Errepideko bizikletentzako, Mavic Cosmos markakoak. Ondo daude. 661 33 85 63.

**Moto-kroserako peto** integrala salgai. M neurrikoa. Hebo markakoa. Kolore beltza. Prezio interesgarria. 645 72 25 24.

**Motozerra** salgai. 036 modeloa. Gutxi erabilitakoa. Deitu telefono honetara: 680 58 28 50.

**Ordenagailua** salgai. Berria. 943 79 60 88.

**Playstation II** salgai. Berria, 150 euro. Deitu telefono honetara: 629 41 73 48.

**Solarium** horizontala salgai. Prezio interesgarria. 15:00etatik 22:00etara deitu. 943 79 18 36.

**Umeentzako kotxe-kapota.** Bilbao modeloa. Silver Cross marka. Ondo zainduta. Telefonoa: 615 74 13 47.

**Vaporetto** Polti Lecoaspira 910 xurgagailua (aspiradora). 652 73 12 61.

### 802. EROSI

**Nintendo DS** bat erosiko nuke, bigarren eskukoa, egoera onean dagoena. Deitu iluntzean. 943 76 02 88.

### 807. AURKITU

**Erlojua** aurkitu nuen Irizar pasealekuan. 943 76 19 03.

### 808. BESTELAKOAK

**Gasteizera autoan** joaten naiz egunero, Arrasatetik 08:00etan irtenda. Autorako lagunen bila nabil. 697 41 66 24.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Natura,** basa-bizitza eta mendia maite badituzu, eta honetaz gozatzeko lagun bat behar baduzu, ez pentsatu bi aldiz eta deitu, hortik zehar joateko. Amaia. 615 70 34 62.

**Martxoaren 13a: 079 zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
**txokoa**

# Sariak astero!

Astelehenean, martxoak 13, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

**078 zozketako saridunak**

**Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzarendako bi).**
- Juan Jesus Iturrikastillo Atorrasagasti (Elgeta)
- Veronica Familiar Carrasco (Bergara)

**Bi gonbidapen Elgetako ESPALOIAN izango den dantza ikuskizuna ikusteko: Biarritz Baleta (juniorra). (Saridun bakoitzarendako bi).**
- Espe Zubizarreta Zabaleta (Arrasate)
- Anparo Bengoa Ezkibel (Aretxabaleta)

**079 zozketako sariak**

**EIBAR - NASTIC TARRAGONA**
futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.
(Saridun bakoitzarendako bi)




- Bi gonbidapen ELGETAKO ESPALOIAn izango den BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOAren kontzerturako. (Saridun bakoitzarendako bi)

**Baldintzak**

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
**902 36 38 51**
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
**36 euro**
2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

## hildakoak

- **Lorentzo Beitia Ugarte.** Oñatin, martxoaren 1ean. 74 urte.
- **Kristina Aizpurua Odriozola.** Oñatin, martxoaren 2an. 92 urte.
- **Nieves Ezkurra Aranburuzabala.** Eskoriatzan, martxoaren 6an. 74 urte.
- **Felix Arantzabal Arantzabal.** Eibarren, martxoaren 4an. 87 urte.
- **Tomas Zabaleta Abasolo.** Eskoriatzan, martxoaren 6an. 74 urte.
- **Maria Teresa Bergara Iturbe.** Bergaran, martxoaren 6an. 75 urte.
- **Antonio Altzelai Guridi.** Oñatin, martxoaren 6an. 94 urte.
- **Pedro Migel Lopez Otxoa Egileor.** Arrasaten, martxoaren 7an. 71 urte.
- **Elisabete Azkarate Larrañaga.** Antzuolan, martxoaren 7an. 71 urte.
- **Estefania Lopez Agileta.** Leintz-Gatzagan, martxoaren 7an. 73 urte.
- **Francisco Martin Pizarro.** Bergaran, martxoaren 7an. 71 urte.

## joan zaigu

### Felix Arantzabal Arantzabal



*Angiozarko itsua*

**Soinujolea**

Bergarako Angiozar auzoko Anguleta baserrian jaio zen 1919an Felix Arantzabal, *Angiozarko itsua* izenez ezagunagoa.

Anaiek soinu txikia jotzen zutela eta bera ere ikasten hasi zen, baina soinu handiak, akordeoiak egin zuen ezagun. Euskal Herriko makina bat erromeria girotu zituen 60ko hamarkadan batez ere. Plazetan ez ezik txapelketetan ere ibili zen eta baita baten irabazi ere.

Soinu txikiaz eta handiaz gain, biolina eta pianoa ere jotzen zituen, nahiz eta itsua izan. Umetan geratu zen itsu istripu baten ondorioz eta hortik zetorkion ezizena.

Musikari handia, eta gizon apala ezagutzen zutenen esanetan. 86 urte zituela joan zen martxoaren 4an. Bere doinuak oroimenean baino ezingo dira gorde, garaiko medioak urriak izanik ez baitzuen diskorik grabatu.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero 18.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 85 €.



ESKELA

### Milagros Heriz Arantzabal

Arrasaten hil zen 2006ko martxoaren 6an, 70 urte zituela.



*Beti egongo zara gure bihotzean,*
*Gero arte tia Mila.*

Zure lobak: Jesus Mari, Jose Julio, Juan Ramón, Dorleta, Izaskun, Izar, Esti (Titu), Agurtzane, Iñigo, Arkaitz eta Itsaso.
Arrasaten, 2006ko martxoaren 10ean.

ESKER ONA

### Milagros Heriz Arantzabal

Arrasaten hil zen 2006ko martxoaren 6an, 70 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Mila esker zun laguntzagatik
Arrasaten, 2006ko martxoaren 10ean.

ESKER ONA

### Elisabete Azkarate Larrañaga

Antzuolan hil zen 2006ko martxoaren 7an, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Antzuolan, 2006ko martxoaren 10ean.

URTEURRENA

### Felix Mujika Pedrejon



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Juan Jose Garmendia Berezibar

*Yanyo*

VII. urteurreneko meza



*Gogorra izango da onartzea*
*gehiago ez zaitugula ikusiko*
*baina bizitzen garen artean*
*ez zaitugu, ez, ahaztuko.*

Zure lagunak.
Arrasaten, 2006ko martxoaren 10ean.

URTEURRENA

### Genaro Altzerreka Areitio



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 12an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Joseba Uribe-Etxeberria



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 12an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataialtzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Jabier Olalde Igartua



Bigarren urteurreneko meza domekan, martxoaren 11n, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Ramon Larringan Arantzabal

Bigarren urteurreneko meza domekan, martxoaren 12an, 12:30ean, Apatamonasterioko San Pedro Apostol elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Mikel Elortza Colinas



VII. urteurreneko meza eguenean, martxoaren 16an, 20:00etan, Oñatiko Bidaurretako elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## bila bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| [argazkia] | [argazkia] | [argazkia] | Berandu / Setati, tematsu | | Aintzira / IRUDIKO HERRIA | | Gingondoa-ren fruituak / Ugaritasun atzizkia | |
| [argazkia] | [argazkia] | [argazkia] | | | | | | |
| [argazkia] | [argazkia] | [argazkia] | Nafarroako udalerria / Hamar aldiz ehun | | | | | |
| Kristauen liburua / Birikietako tuberkulosi | | Isil / Azalekoa ez dena | | | | | Gramoa / Adur, elder | |
| | | | | Nafarroako herria / Gurdia | | | | |
| Pilota handi / Baterakor | | | | | | Pluralaren marka / Zakurra | | |
| | | | | | | | | Modu atzizkia (alderan-tziz) |
| Jainko grekoa / Ontzi estu eta arina | | | Nekazaritza-orga / Oxigenoa | | | | | |
| | | | | | Euskara irakasten du | | | |

LUMA



## umore giroan

Kike Amonarriz

**Arazoei aurre egiteko moduak**

Jacques Chiraci idazkari berria jarri diote. Zorrotzaren sona du inguruko langileen artean eta tentu handiz zuzentzen omen zaizkio.

Euria lagun, bisita batzuk egitera abiatu zen Jacques auto ofizialean. Autotik ateratzean, lur busti labainkorrean irrist egin zuen; baina bere bi besoak luzatuz kolpea ekidin eta eskuekin palanka eginez, berriro zutitzea lortu zuen.

- Ene, Jainkoa! —oihukatu zuen idazkariak ikusitakoa.

Eta Chiracek:

- Lasai. Aurrerantzean presidente edo nahi baduzu Jacques dei diezadakezu.

## sudoku

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 4 | | 3 | | | | 1 | |
| | 7 | | | | | 5 | | |
| | | 3 | | 2 | | | 6 | 7 |
| | 2 | 4 | 9 | | 7 | | | 3 |
| | | | | | | | | |
| 3 | | | 5 | | 1 | 9 | 8 | |
| 6 | 8 | | | 9 | | 4 | | |
| | | 5 | | | | | 9 | |
| | 1 | | | | 4 | | 2 | |

## jeroglifikoa

Kontuz...



## hizki salda

Realeko zazpi jokalari

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | U | R | U | B | N | A | R | A |
| A | R | E | B | K | S | J | I | E |
| S | A | L | O | N | S | O | E | L |
| A | N | A | N | O | D | O | S | E |
| E | G | H | N | I | T | S | G | U |
| D | A | G | R | D | H | E | O | O |
| A | B | R | F | U | L | A | D | N |
| S | A | S | T | U | B | O | T | E |
| G | T | L | A | B | A | K | A | A |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| [argazkia] | [argazkia] | [argazkia] | | B | | L | | G |
| [argazkia] | [argazkia] | [argazkia] | T | E | M | A | T | I |
| [argazkia] | [argazkia] | [argazkia] | | L | U | K | I | N |
| | B | | M | U | T | U | | G |
| T | I | S | I | | R | A | L | A |
| | B | A | L | O | I | | E | K |
| E | L | K | A | R | K | O | R | |
| | I | O | | G | U | R | D | I |
| K | A | N | O | A | | A | E | K |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 4 | 8 | 3 | 7 | 6 | 2 | 1 | 9 |
| 2 | 7 | 6 | 8 | 1 | 9 | 5 | 3 | 4 |
| 1 | 9 | 3 | 4 | 2 | 5 | 8 | 6 | 7 |
| 8 | 2 | 4 | 9 | 6 | 7 | 1 | 5 | 3 |
| 9 | 5 | 1 | 2 | 3 | 8 | 7 | 4 | 6 |
| 3 | 6 | 7 | 5 | 4 | 1 | 9 | 8 | 2 |
| 6 | 8 | 2 | 1 | 9 | 3 | 4 | 7 | 5 |
| 4 | 3 | 5 | 7 | 8 | 2 | 6 | 9 | 1 |
| 7 | 1 | 9 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 | 8 |

**Jeroglifikoa:** Begia ubeltzean.
Begia U beltzean


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | U | R | U | B | N | A | R | A |
| A | R | E | B | K | S | J | I | E |
| S | A | L | O | N | S | O | E | L |
| A | N | A | N | O | D | O | S | E |
| E | G | H | N | I | T | S | G | U |
| D | A | G | R | D | H | E | O | O |
| A | B | R | F | U | L | A | D | N |
| S | A | S | T | U | B | O | T | E |
| G | T | L | A | B | A | K | A | A |


## bono fotoa



**Euskalerriaren Adiskideen Elkarteaz gain (1770-1875), bi erlijio-ordena ere aritu izan dira hainbatetan berreraiki den Bergarako eraikuntza honetan, bata 1597tik 1767ra eta bestea 1880tik 1930ra. Zeintzuk dira bi ordena horiek?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..........

..........

IZEN-DEITURAK ..........

TELEFONOA..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

**Skip detergentea**

36 dosi + 5 doan

**9,49 €** 1.579 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**OLATZ AKIZU**rendako (Bergara) eta **LUCIA ARANA**rendako (Arrasate) izan dira 30 euroko erosketa-txartelak. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Naparrena (Aretxabaleta).**

**Izaskun Ojanguren** > Musikaria

# "Gitarra jo eta abesten dut gustuko dudalako, ez jendeak entzuteko"

Izaskun Ojanguren oso gaztetan hasi zen gitarra jotzen eta abesten. Danbaka lehiaketa antolatu zutenean izena emateko konbentzitu zuten eta sailkatzea lortu zuen. Horren ostean, Eskola Txikien abestian esku hartu zuen. Musika beti izan du zaletasun handia, eta horrez gain, umeekin ere asko ibiltzen da. Txikitatik zekien haur hezkuntzan lan egin gura zuela.









JOSETXO ARANTZABAL

IKER BARANDIARAN > ELGETA

**Izas bakarlaria sorpresa atsegina izan zen Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketan. Harengana jo dugu, zertan dabilen jakiteko. Elgetan gustura bizi da eta sarri mendira jotzen du txakurrekin paseatzera edo gitarra jotzera.**

**Gitarra batekin beso azpian jaio zinen edo geroago etorri zitzaizun musikarekiko zaletasuna?**

Geroago etorri zen, 11 urte nituenean. Orduan hasi nintzen osabaren gitarra jotzen. Hasieran lagunok elizan abesten genuen. Etxean gitarra neukanez, nire kontu ikasten ibiltzen nintzen. Bururatu zitzaidan hitz batzuei musika jartzea, eta gaur arte. 13 urte nituenean, gitarra akustikoa opari egin zidaten, oraindik erabiltzen dudan bera.

**Etxekoei eta lagunei *pelmada* handia eman diezu?**

Ez. Ama gustura egoten zen eta ahizpa nirekin batera kantuan ibiltzen zen. Bestalde, bizilagunak ez ziren kexatzen. Eta lagunek askotan esaten didate gitarra eramateko.

**Bada musika egitera bultzatu zintuen disko edo talderen bat?**

Ez. Denetatik entzuten dut, baina nik, batez ere, gitarra jotzen dut gustuko dudalako, ez jendeari egiten dudana erakusteko. Nik ez daukat jende aurrean jo beharrik gustura aritzeko.

**Barrenak husteko balio du?**

Bai. Haserre nagoenean gelan gitarrarekin sartzen naiz, eta hura jota askoz hobeto sentitzen naiz.

**Askok esaten dute triste edo haserre daudenean abestiak idazten dituztela...**

Nik abesten ditudan kantu gehienak lagunek idatzi dituzte, baina badakit askotan hala idatzi dituztela. Nik ere sentimenduen gainean idazten dut. Esaten didate abesti tristeak egiten ditudala, baina hori da barrenetik irteten zaidana.

**Zein izan zen jende aurrean abestu zenuen lehenengo aldia?**

Hilabete gutxi egin nituen Elorrioko Nola Bestela izena zeukan taldean; rocka egiten genuen, eta nik gitarra akustikoa jo eta abestu egiten nuen. Behin bakarrik jo nuen, *Egin* egunkariaren alde Elgetan egin genuen desfilejaialdian, hain zuzen. 14 bat urte nituen, eta bakarka beste hiru abesti jo nituen: *Euskalerrian euskaraz*, Mikel Markezen bat...

**Egia da lotsati samarra zarela eta lagunek bultzatzen zaituztela jotzera?**

Ez naiz hain lotsatia, baina jende askoren aurrean jo behar dudanean oso urduri jartzen naiz. Hasiera izaten da gogorrena; gero, aurrera egiten dut. Koadrilakoek beti lagundu izan didate, baita Donostiako etxebizitzako lagunek ere.

**Zelako esperientzia izan zen Donostian bizi izatea?**

Mundiala. Etxetik kanpo bizi izatea, lagun berriak egitea, neure burua gehiago ezagutzea eta lan egiteko aukera izan nuen.

**Umeen hezkuntza ikasten ibili zinen, ala?**

Bai. Umeak asko gustatzen zaizkit. Betidanik jakin dut umeen hezkuntzan lan egin gura nuela. Titulua eskuratu nuen, praktikak egin ditut eta Donostiako haurtzaindegi baten hiru hilabete lan egin dut. Bestalde, aspalditik nabil umeak zaintzen.

**Eskola Txikien abestian eta Danbaka lehiaketan esku hartzea garrantzitsua izan zen?**

Bai, biak hala biak oso esperientzia politak izan ziren. Ez neukan Danbakan izena emateko asmorik, baina Matxurako Gorkarekin apustua egin nuen. Hala ere, ez naiz damutzen esku hartu izanaz. Oso ondo pasa nuen. Eskola Txikiena ere oso polita izan zen. Hainbat lagun ibili ginen horrekin bueltaka eta behin baino gehiagotan eskolara jo genuen umeei kantua erakustera. Biek oso oroitzapen onak ekartzen dizkidate.

**Gustura bizi zara Elgetan?**

Donostian oso gustura bizi nintzen, denetatik neukan, baina ni Elgetan oso pozik bizi naiz, mendiarekin, lagunekin...

**Izaten duzu denbora txakurra paseatzeko?**

Hiru txakur daukagu etxean: *Mendi, Laika* eta *Txati*. Denbora badut mendira eramaten ditut. Txakurrekin edo gitarrarekin, biekin ezinezkoa da.

**Laster bueltatuko zara taula gainera?**

Badut asmoa bueltatzeko, baina lasai hartu gura dut. Laster abestiak idazten hasiko naiz.

PERTSONALA

**Herria:** Elgeta. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Haur hezkuntza. **Zaletasunak:** Mendia, eskiatzea, musika, lagunekin egotea, lekuak ezagutzea... **Gona luzeak edo motzak?** Biak, baina gurago motzak. **Urtaro gogokoena?** Udaberria, eguraldi eta haize aldaketagatik. **Inoiz esan dizuten gauza politena?** "Begi politak dituzu, malenkoniatsuak". **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Korsikara joango nintzateke berriro. **Ze taldekin joko zenuke gustura?** Ruper Ordorikarekin. **Inoiz ez duzu ahaztuko:** Lagun baten traizioa.

**KOMUNIKALDIAK >** Komunikazio korporatiboa izan dute aztergai gaur MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatutako jardunaldian. Pili Kaltzada (Donostia, 1970) izan da hizlarietako bat.

# Gizarte-erantzukizuna: erronka eta aukera

Enpresen Gizarte-Erantzukizuna (EGE) da enpresek bere solaskide edo interestaldeekiko harremanetan gizarte eta ingurumenaren esparruetako ardurak txertatzea. Oro har, gaur egun onartzen da enpresaren zereginak bi planotan neurtu behar direla. Batetik, enpresaren egiteko behinena errentagarria izatea da, arrakasta horren eskutik etorriko direlako, etortzekotan, gizartearentzako onura zuzenak: lanpostuak sortuko ditu enpresak, eta kalitatezkoak akaso, eta zergak ordainduta herri osoaren garapenarentzat ekarpen garrantzitsuak egingo ditu. Bestetik, enpresak gizartean jokatzen duen zereginari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio, enpresa-egiturak garapenaren eragile aktibo direla ohartuta. Horixe da, hain zuzen, enpresaren kudeaketan azken bolada honetan gertatu den aldaketa garrantzitsuena. Halakoan, ISO ziurtagiriak zaharkituta geratu ziren harrera-geletan zintzilik, eta *urrezko Q* eta EFQMren ikurren bila abiatu ginen arrapaladan, bezeroen eta lehiakideen aurrean nork lehenago erakutsi.

Gizarte-erantzukizun korporatiboa eredu horien guztien oinordekoa da; aurrekoen irakasbideak aplikatzeaz gain, enpresaren barru eta kanpodimentsioak integratu egiten ditu, aurreko joerek ez bezala.

Kultura herritarraren hedatzearekin erabat lotuta dago. Herritarrok, izan ere, kontzientzia hartu dugu gure indarraz. Gure baloreekiko bat datozen kontsumo-ereduak saritu egiten ditugu, eta deitoragarriak iruditzen zaizkigun praktikak gaitzetsi. Nekazaritza ekologikoaren aldeko joerak nabarmendu egiten ditugu, eta irabaziak haurren esplotazioan oinarritzen dituzten enpresen joera salatu egiten dugu.



**Pili Kaltzada** > Kazetaria

**"Gure enpresa-ehundurak gainditzeke dauka komunikazioaren asignatura oraindik"**

**JOERA BERRIETARA EGOKITU**

Joera hauek guztiek aldaketa sakonak eragin dituzte jadanik enpresetan, kudeaketa-ereduetan bereziki. Enpresa-komunikazioaren esparruan nozitu dira aldaketok aparteko indarrez, eta besteak beste, barne-komunikazio eta motibaziorako programetan nabarmendu da aldea. Bidea, alabaina, egiteke dago. Komunikazioa balore hauek guztiak transmititzeko lanabes egokia da, baina joera berrietara egokitu beharra begi-bistakoa da enpresa txiki eta ertainetan. Diziplina arteko taldeak sortuko dira barne-komunikazioaren esparruan (inoiz baino nabariagoa delako giza baliabideen kudeaketa eta komunikazio-sailen arteko lankidetzaren beharra) eta mundu mailako estandarrak betetzera zuzenduko dira komunikazio korporatiboan diharduten lan-taldeen ahaleginak. Horiek berehalako ondorio garrantzitsuenak izango dira, ez apika bakarrak.

Gure enpresa-ehundurak gainditzeke dauka oraindik komunikazioaren asignatura. Joera hauek guztiak derrigorrez egin behar den berrikusketa estrategikoa bizkortzeko baliagarria izan daiteke. Nolanahi ere, gizartearen onurari begiratzen dion kudeaketa-eredu honek arrakasta izango badu, ezinbestean elkarlana bultzatu beharko da. Batetik, erakunde publikoek lehentasunezko laguntzak eskaini beharko diote txikiegia den enpresa-egiturari eta, bestetik, herritarrok eragile aktibo bihurtu behar dugu. Presiorako lantresna demokratikoena izan daiteke kontsumoa.



**ENPRESA-KOMUNIKAZIOA** Esparru honetan nozitu dira aldaketak. GOIENKARIA

## teknologia berriak

> MUSIKA APARAILUA

### Futbolzaleei zuzenduta, baloi itxurako MP3 aparailua kaleratu dute Singapurren

Mundu zabalean futbolak duen jarraitzaile kopurua ikusita, Singapurko konpainia batek baloi itxura duen MP3 aparailua kaleratu du. Shiro AS aparailuak 37 cm-ko diametroa dauka, sei botoi txikirekin. Kantuak gordetzeko GB bateko kapazitatea dauka, 240 abesti inguru gordetzeko bezain beste, hain zuzen ere. FM irratia ere badauka Shiro ASk. Diseinu aldetik deigarria den arren, baloiak bote eginez gero ez da oso erosoa izango.
*http://tinyurl.com/gz36t*




Shiro AS aparailu txikiak 240 abesti inguru gordetzeko kapazitatea dauka.

> ORDENAGAILU ERAMANGARRIA

### Fujitsu Siemens Lifebook Q2010 modeloa, arin-arina eta teknologia aurreratuenarekin

Kilo bat besterik ez du pisatzen Fujitsu Siemens Lifebook Q2010 ordenagailu eramangarriak. Titanioarekin eta magnesioarekin eginda dago, eta, itxura dotorea izateaz gain, teknologia aurreratuena eskaintzen du: Wi-Fi, USB bi portu, GB bateko RAM memoria, bluetooth, Intel Centrino Mobile prozesadorea, hatzmarka irakurlea, 12 hazbeteko pantaila eta UMTS, HSDPA, EDGE eta GPRS integratuta.
*http://tinyurl.com/fm6o5*



DIN A-4 formatuan, pare bat cm-ko lodiera dauka Fujitsu markako ordenagailu eramangarriak.

> ARGAZKILARITZA

### Argi baldintza eskasetan argazkiak ateratzeko moduko kamerak, hainbat etxeren eskutik

Hainbat etxek argi baldintza txarrenetan argazkiak ateratzeko aukera eskaintzen duten kamerak kaleratu dituzte. ISO 3200 pelikula fotografikoen pareko sentsoreekin dabiltza kamera horiek. Gaueko argazkiak atera daitezke flashik gabe eta figurak ez dira lausoak aterako. Atera diren modeloan artean, Fujifilm Finepix, Olympus Stylus 810 (*Bright Capture* teknologiarekin) eta Panasonic etxeko Lumix TZ1 dituzue. Azken hori, hain zuzen ere, 10X kamera txikiena da.




Panasonic etxeko Lumix TZ1 argazki kamerak argazkiak hainbat formatutan ateratzeko aukera ematen du.


**Zure negozioaren erakusleihoa Interneten**

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**azabarte@goiena.com ·**
**943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /argi-plastik /arregi /atai /azkarate
/joseba /BZ-sistemas /dragon-oriental /ezkutuorly
/gallastegi /garaia /guztizeder /irudisport /korozabaleta
/merkeopari /multiopticas /ohiak /okipark /vitoria
/pando /udalatx /udalaitz /gorkataxi /elejalde
/maulanda /mayte

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.



## berriak

> PROGRAMAZIOA

### Marijo Deogracias kazetariak 'Berbaire' saioa utzi du

Goiena Telebistak programazio berria estreinatu zuenetik Marijo Deogracias kazetari antzuolarrak aurkeztu du *Berbaire* saioa. Oraingo astetik aurrera, berriz, Eusko Legebiltzarrean hasi da lanean Marijo eta GOITB utzi egin behar izan du.

Oraingo astean Gorka Etxabek aurkeztu ditu martitzeneko eta egueneko bi mahai inguruak. Aurrerantzean, berriz, beste baten gidaritzapean egingo da saioa.

> ARTXIBOAK

### Arrasate Telebistaren artxiboa digitalizatu du Goienak

Arrasate Telebistaren (ATB) artxibo aberatsa digitalizatzea erabaki du Goiena kooperatibak Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Orain 17 urte abiatu zen Arrasateko telebista eta ordutik hona grabatutakoak DVD formatura pasatzen ari dira. Batez ere, Super-V formatuan dauden zintak ari dira pasatzen DVD formatura.

Hain justu ere, Arrasateko Udalak jarritako bekadun bat ari da lana egiten.

> ARRASATE IRRATIA

### Martxoaren 8aren barruan, hainbat testigantza

Eguaztenean izan zen Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna; hori dela-eta, asteon hainbat lagunen testigantzak jaso ditugu. Horrela ezagutu ditugu, besteak beste, Araitz Garai, Arrasateko Udaleko obren ikuskaria eta Ane Leibar, hiru alabaren ama eta Fagor Ederlan lantegiko Erosketa saileko langilea. Asteburuan berreskuratuko ditugu Garaik eta Leibarrek esandakoak.

> IGO AUTOBUSERA!

### Pello Zabalarekin hegazti migratzaileak irratian berbagai

Martitzenetan, hamabostean behin hurbiltzen da Arrasate Irratiko *autobusa* Arantzazura Pello Zabalarengana, han dugu-eta meteorologiaren geltokia.

Datorren martitzenean, hilaren 14an, azkenaldian sarritan entzuten dugun hegazti gripea dela-eta, hegazti migrazioaz jardungo digu frantziskotarrak. Parte hartu nahi izanez gero, ondo telefono zenbakira deitu dezakezue: 943 71 17 31.

**'KITMAR ORDIZIA-MONTE CIENCIAS'** > ZAPATUA, 15:45

# Ohorezko mailako errugbia zapatu arratsaldean gurean

Goierritarren eta sevillarren arteko neurketa ikusteko aukera izango da Goiena Telebistan

**GOIENKARIA** > BERGARA

Kitmar Ordiziak Sevillako Monte Ciencias taldea hartuko du Ordiziako Fernando Trevijano zelaian. Hain zuzen, Axio Arañak zuzentzen duen taldeak ohorezko mailako azken sailkatua hartuko du, eta GOITBn ikusteko aukera izango dute gure ibarreko errugbi-zaleek.

Goierritarrek mailari eusteko ezinbestean irabazi behar dute, eta Monte Ciencias da ohorezko mailako talderik ahulena. Andaluziarren eta gipuzkoarren arteko partidua zapatuan, 15:45ean eskainiko du Goiena Telebistak.



KITMAR ORDIZIA Sevillako Monte Ciencias hartuko dute ordiziarrek. GOIENKARIA

**OLATZ PAGALDAI 'DIDJERIDU' SAIOAN** > OSTEGUNA, 22:15

# Antzezle eta gidoigile eskoriatzarra izango da protagonista nagusia

**GOIENKARIA** > BERGARA

Olatz Pagaldai eskoriatzarra izango da *Didjeridu* saioko protagonista nagusia. Eskoriatzako Inkernu tabernan egiten du lan, Bilboko Deabru Beltzak taldearekin Euskal Herrian barrena umeendako ikuskizunak egiten ditu eta Arizmendiko Almen gunean umeendako antzerki eskolak ematen ditu. Aurreiritziekin eta seriotasunekin apurtu, eta norbera eta ikusleak dibertitzea du helburu Olatz Pagaldaik. Antzerki eta gidoigintza ikasketak ditu eta filmak ikustea du gustuko. Bere bizitzako leloa da edozeini laguntzea, eta egunero ahalegintzen dela gaineratu digu. 26 urte ditu Olatz Pagaldai eskoriatzarrak, eta Goiena Telebistan musika saio bat aurkeztutakoa da. Kontuak kontu, horren guztiaren gainean arituko da datorren eguenean, 22:15ean, GOITBko *Didjeridu* saioan. Amagoia Lasagabasterrek egin zion elkarrizketa Inkernu tabernan, pintxoak eta garagardoak zerbitzatzen zituen bitartean.

## telebegi

**Unai Loidi**

## Maite errukarria

Dultze Maria du izena, 6-7 urteko neskatila da, eta umeentzako *Maite kuttuna* kulebroi mexikarrean protagonista ETB-1en. Inguru gaiztoan bizi da ume gaixoa; amarik ez daukanez harekin egiten du amets (gure garaiko Marcoren moduan); aitaren diru arazoek loa kentzen diote; mojak ditu lagun onenak eta hain da errukarria bera, ezen agurerik erretxinenaren bihotza ere biguntzeko gai baita.

Negar eragiteko produktua da, kulebroi peto-petoa, eta kexaka edo kezkatuta entzun ditut azkenaldian zenbait guraso. Negar egiten ei dute umeek *Maite kuttuna* ikusita. Asko eztabaidatu daiteke umeentzako kulebroi honek zabaltzen dituen baloreen inguruan: sexista ote den, klasista agian, kontserbadorea… Nik jakin nahi nuke gaur egungo Euskal Herriko haurrei zein garaitakoak edo zein planetatakoak iruditzen ote zaizkien telesail honetako kolegio erlijiosoak, mojak, neskatilen *internadoak*, abadeen *altzakueiloak*… Hala ere, ezer bada jasangaitzik telenobelan, bikoizketan neskatilari ipini dioten ume koitaduaren ahotsa.

## arrasate irratia

**FM 107,7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Araitz Garai, Arrasateko Udaleko obren ikuskaria; Ane Leibar, ama eta langilea; Esther Lizarralde, Emakume Txokoko teknikaria; Lorategiaren geltokian aloevera edo belarmintzari buruzko 2.kapitulua; eta beste hainbat gonbidatu.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Metereologiaren geltokia (Pello Zabala)
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 10**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albisteak **17:00** Berbaire **17:30** Eltze beroa **17:45** Gaurkoak **17:47** Ilunpean **18:15** Teknopolis **18:45** Albisteak. **19:00** Klipak. **19:15** Jazz mintegia. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Albisteak **21:15** Behazulo **21:45** Berriak **22:15** Ilunpean **22:45** Albisteak **23:15** 16 mm. **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.

**Zapatua, 11**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak bilduma **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa: Lupia marisko risotoarekin **12:15** Aretxabaletako Aratusteak **12:45** Jaun ta jabe **13:45** Didjeridu. **14:15** Klip@. Musika taldeen bideoklipak **14:45** Jazz mintegia **15:15** MKT. **15:45** Errugbi partidua: Kitmar Ordizia-Monte Ciencias **17:15** Elkartasun bideak **17:45** Marrazki bizidunak **19:15** Eltze beroa. **19:30** 16 mm. **20:00** Behazulo **20:30** Zera dio eta Motzean **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Berbaire: Mahai ingurua. **22:15** Elkartasun bideak. **22:45** 16 mm. **23:15** Erreportajea: tandem bizikleta **23:45** Emisio amaiera.

**Domeka, 12**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Klip bilduma. **11:30** Iparrorratza. Euskadi-Txina. **12:00** Didjeridu. **12:30** Eltze beroa. **12:45** Errugbia: Kitmar Ordizia-Monte Ciencias **14:15** Marrazki bizidunak. **15:15** MKT. **15:45** Ilunpean **16:15** Behazulo. **16:45** 16mm. **17:15** Eltze beroa **17:30** Marrazki bizidunak **18:45** Klip@ bi saio **19:15** Iparrorratza: **19:45** Behazulo. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean **21:00** Didjeridu. **21:30** 16 mm. **22:00** Berbaire. **22:30** Didjeridu. **23:00** Teknopolis: erreportaje saioa. **23:30** Emisio Amaiera

**Astelehena, 13**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo. **14:15** Eltze beroa. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Munduari bueltaka: Ameriketako Estatu Batuak. **15:30** M1. Eguraldia eta burtsa tartea. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ilunpean. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Didjeridu. **17:30** Motzean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire. **18:15** Jaun ta jabe. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** 16 mm. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Harmailatik **21:45** Berriak. **22:15** Harmailatik. **22:45** Albisteak. **23:15** Jazz zikloa: Elgetako gauak **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 14**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz mintegia: **14:15** Zera dio. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Harmailatik. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albisteak. **17:00** Jazz. **17:30** Danbaka. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea: Tandem bizikleta. **18:15** Munduari bueltaka: Ameriketako Estatu Batuak **18:45** Albisteak **19:00** Klipak. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Ilunpean. **21:45** Berriak. **22:15** Berbaire. **22:45** Albisteak. **23:15** Behazulo. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 15**
**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire **14:15** Musika saioa **14:30** M1 **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:30** M1 **15:35** Sendabelarrak **15:45** Gaurkoak **15:47** Behazulo **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire. **17:30** Zera dio eta Motzean: Maixa Lizarribar eta Julio Ibarra. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 16 mm **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu **19:45** Berriak. **20:15** Marrazkiak. **20:45** Albisteak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Berriak. **22:15** 16 mm: Nekane Elizondoren Itsas Arima film laburra **22:45** Albisteak **23:15** Erreportajea **23:45** Berriak. **00:15** Amaiera.

**Eguena, 16**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea. **14:15** Motzean. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak**14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Jaun ta Jabe. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Jazz mintegia.Elgetako gauak **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** 16 mm. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:15** Iparrorratza: Kongo **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Erreportajea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Jaun ta jabe. **21:45** Berriak. **22:15** Didjeridu: Olatz Pagaldai. **22:45** Albisteak. **23:00** Berbaire. **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.

# Debagoieneko
# GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

**BIDABURU AROZTEGIA**
Oñati
• Era guztietako berrikuntza lanak, leihoak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.
Zubillaga 20
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13
bidaburu.h@euskalnet.net

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Aranburuzabala 56
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

**ZUTARRI SL**
Arrasate
Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78 / Faxa.: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

## ESKAIOLISTAK

**EMILIO ESKAIOLAK**
Aretxabaleta
• Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa, sabai desmuntagarriak
Bedarretako San Migel auzunea 14, behea D
T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**JOVI**
Arrasate
• 10.000 koloreko menua
Ferrerias 36, behea
T: 943 79 12 87

**L. GONZALEZ PINTURAK**
Aretxabaleta
• Pintura orokorra, pintura papereztatua
Basabe poligonoa F-6
T: 686 113 581

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Martxoak 10-17

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

### Ea! eta Ttakunpa taldeak



ARRASATE
**> Flamenko, txalaparta, arabiar musika eta euskal hitzen fusioa**
Ea! taldeko cadiztarrek eta Ttakunpako txalapartariek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Herriko Plazan, 19:30ean. Ea!-k *Un Sentir* diskoa grabatu berri du: gitarra, txirula, txalaparta, euskal hitzak, arabiar musika… batzen dituzte hor.

### Mahaster Riverren kontzertua



ESKORIATZA
**> Hiru bergararrek talde akustikoa dute, eta Inkernu tabernan joko dute**
Fernando (Fraguel Rock), Mikel (Cool Panic) eta Azkaiter Peloxen taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 22:00etan. Allman Brothers, Bob Dylan eta Black Crowesen kantuak jotzen dituzte, eta abesti propioak ere bai.

### Emakumeak bertsotan



ARRASATE
**> Emakumearen Eguna dela eta, bertso saio berezia antolatu dute zapaturako**
Bertso saio berezia izango da Seber Altuben, 13:00etan. AEDko neska bertsolari gazteek eta Jokin Labaien, Andere Arriolabengoa eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariek parte hartuko dute. Lierni Altuna izango da gai jartzailea.

## Erakusketak

ARRASATE
**> Martxoaren 8ko kartel lehiaketako lanen erakusketa**
Emakumearen Nazioarteko Eguneko kartel lehiaketara bidali zituzten lanekin erakusketa dago Emakume Txokoan.
Astegunetan, 16:30-19:30 ordutegian, martxoaren 24ra arte.

ARRASATE
**> Iraia Artzamendiren erakusketa Harresi aretoan**
Iraia Artzamendik eskultura-lanak ipiniko ditu erakusketan Harresi aretoan gaur, egubakoitza.
Astegunetan: 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00. Martxoaren 26ra arte.

BERGARA
**> Pilar Ansoategi arrasatearraren margolanak**
Pilar Ansoategi arrasatearrak 18 margolan ditu Nahikari tabernan erakusketan. Loreen gaineko margolanak dira.
Masterreka kaleko Nahikari tabernan, hil osoan. Informazioa: *www.nahikari.com.*

OÑATI
**> Latinoamerikar emakumearen inguruko argazkiak**
*Ahots propioa duten emakumeak* izeneko argazki erakusketa dago kultura etxean. Euskadiko Elkarguneak erakundeak antolatzen du.
Hilaren 14ra arte zabalik, egunero, 18:30-20:30 ordutegian.

ARETXABALETA
**> Emakume errefuxiatuaren gaineko argazki erakusketa**
*Errefuxiatutako emakumea, erbestea eta edertasuna* izeneko erakusketa dago udaletxe zaharreko ganbaran. Leintz bailarako zenbait GKEk eta ACNURrek antolatzen dute.
Ordutegia: 18:00-20:00.

## Jaiak

ARRASATE
**> Emakume baserritar eta artisauen azoka egingo dute**
Emakume baserritarren eta artisauen azoka izango da bihar, zapatua.
Seber Altube plazan, 09:00-14:00.

ESKORIATZA
**> Ludoteka inauguratuko dute jaialdi batekin**
Ludoteka inauguratuko dute, eta 3-12 urtekoendako eta familiendako puzgarriak, jostailu erraldoiak, fotokarikaturak… egongo dira. Baita bisita gidatuak ere, eta 18:30ean, sari baten zozketa. Datozen egunotan, ekintza bereziak izango dira egunero: ludoteka apaintzea, merendola, jolas zirkuitua…
Luis Ezeiza ikastetxeko patioan, 17:30-19:30 ordutegian.

## Ikuskizunak

ARETXABALETA
**> Malawin bizikletaz egindako bidaiaren gainekoak**
Malawin bizikletaz bidaiatu zuen lagun talde batek hango diapositibak ipini eta bere esperientzia kontatuko du.
Eguenean, hilak 16, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Loramendik antolatuta.

OÑATI
**> Mendi Astea dela eta, hiru ikus-entzunezko**
Honakoak emango dituzte: *Elurretako lehoinabarraren bila*, Xabier Ormazabal mendizalearen omenezkoa (hilak 14); *Alpinismoa, izotza eta harria*, Karlos Vieira *Kanu* oñatiarrak egindakoa (hilak 15); eta *Erori eta berriz hasi*, Josune Bereziarturena (hilak 17).
Kultura etxean, 19:30ean. Aloña Mendiko mendi taldeak antolatu du.

## Musika

BERGARA
**> Hip-hop gaua girotuko du DJ Balza disko jartzaileak**
Hip-hop gaua egingo dute Ziripot tabernan. DJ Balza crew (kpk) disko jartzaileak girotuko du jaia.
Gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan, 22:30ean.

BERGARA
**> Techno jaialdia girotuko dute hainbat DJk Jam aretoan**
Techno jaia izango da Jam eta Go-Jam aretoetan. Jam aretoan Kazu Kimura, Christian Wunsch, Rumenige, Loktibrada, Kike Pravda, David Rojas, Pepote eta Domot DJak arituko dira; Go Jamen, Karlos Phazer, Ima Txill aut, Ana Sáenz, Balza eta Kaiet disko-jartzailek.
Bihar, zapatua, 23:00etan.

PROPOSAMENA

ELGETA
**> Biarritzeko Junior baletak ikuskizuna egingo du domekan**
*Mitxeleta* izeneko ikuskizuna egingo du gurean Biarritzeko Junior baletak (BBJ). Prestakuntza profesionaleko proiektuaren emaitza da ordubeteko ikuskizun hori. Joan den azaroan estreinatu zuten.
Hiru koreografiaz osatutako programa artistikoa du taldeak, Schonberg, Saint Saëns eta Ravelen musikarekin. Iparraldeko Euskal Kultur Erakundearen Batekmila proiektuan ere badago BBJ.
Etzi, domeka, Espaloia antzokian, 19:30ean.



ELGETA
**> Nuevo Catecismo Católico, Obligaciones eta Lobo Eléctrico**
Hiru talde horiek kontzertua egingo dute Espaloia antzokian. NCCk bere azken diskoko abestiak joko ditu, punk ukitu handiagoarekin; Obligaciones-ek *Prueba a gritar, prueba a llorar* laneko pop-rock doinuak joko ditu; eta Lobo Eléctrico taldeak The stooges, AC/DC eta beste talde batzuen eragina jasotzen du.
Bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 22:30ean. Sarrerak: 7 euro, 5 bazkideek.

ARRASATE
**> Ramones taldeko Marky Ramoneren kontzertua**
Ramones taldeko Marky Ramonek eta bere taldeak kontzertua egingo dute. Los Cretinos eta Los Gramnones (Ramonesen bertsioak) taldeek ere joko dute.
Eguenean, hilak 16, 3.60 aretoan, 22:00etan.

## Antzerkia

BERGARA
**> 'Modelo klowntrapublicitaria' antzezlana egingo dute gaur**
*Modelo klowntrapublicitaria* delako antzezlana egingo du Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek. Udalak eta BEKE elkarteak antolatzen dute emanaldi hori, Emakumearen Hilabeteko egitarauaren barnean.
Gaur, egubakoitza, Miguel Altuna institutuan, 19:00etan.

BERGARA
**> 'El feeling es así' antzezlana egingo du Tearto taldeak**
*El feeling es así* antzezlanak bizitzako gauza txikiei umorezko begirada egiten die. Tearto taldeak egingo du emanaldia. Ordubete ingurukoa da.
Bihar, zapatua, Tartufo jatetxean, 00:30ean. Sarrera, doan.

ARRASATE
**> 'Neska politak, artasoro alaiak' delako antzezlana**
*Neska politak, artasoro alaiak* izeneko antzezlana egingo du Agerre Teatro taldeak etzi, domeka.
Amaia antzokian, 19:30ean.

## Lehiaketak

ARETXABALETA
**> Logotipo lehiaketa antolatu du herriko gaztelekuak**
Gaztelekuarendako logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du Atxagaztek. Lanak A-4 formatuan aurkeztu behar dira, eta *Atxagazte* izena agertu behar da. Mugaeguna martxoaren 12a da.
Saria da Atxagazteko irteera guztietan doan parte hartzea.

## nire aukera



Gorka Arizmendiarrieta
Espaloia antzokiko langilea
Elgeta

### "Lagun onekin egonda, non ibili gutxienekoa da"

Egubakoitzean, lan ostean, trago bat hartzera, kontzertu batera eta gero lagunekin parranda egitera joango nintzateke gustura. Goiz erretiratu eta zapatu goizean txakurrarekin Intxortatik buelta bat ematera joango nintzateke.

Domekan, edo libre nagoen beste edozein egunetan, lagun on batekin Valladolideko upategi batera joango nintzateke, edo hango Mil Vinos delako tabernara. Denetariko ardo motak dituzte. Koadrila osoa joan ginen hara eta oso ondo ibili ginen.

**Zelako kontzertura joango zinateke?**
Denetarik entzuten dut: popa, rocka, heavya... Rockera jotzen dut gehien, baina oso gustu zabala dut musikan.

**Asteko egun onena?**
Ez naiz barikuaren zain egoten. Lanarengatik, astelehena eta martitzena asteburua bezala dira niretako. Astean zehar ere oso gauza aberasgarriak egiteko aukera dago, lagunekin.

**Poteorako herri bat?**
Poteo onenak, Elgetan, duda barik. Baina Zarautzen, Eibarren... parranda onak egin ditugu koadrilakook. Konpainia ona edukitzea da kontua: lagun onekin, lekua gutxienekoa da.

**Mendi bat?**
Intxorta. Oro har, mendizalea izan banaiz. Gauzarik oneneta-ko bat da mendia.

**Elgetazalea zara, orduan.**
Bai, gustura ibiltzen naiz hemen. Hala ere, noizbehinka irtetea ere gustatzen zait.

# Zinema

## ARAMAIO
### KULTURA ETXEA

**La vida secreta de las palabras**
Egubakoitza: 22:00.

**Madagascar**
Domeka: 17:00.

## ARRASATE
### AMAIA ANTZOKIA

**En la cuerda floja**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Mozart txakurra**
Zapatua: 17:00.

**Vete y vive**
Eguena: 20:30.

## ELGETA
### ESPALOIA ANTZOKIA

**Tarzan (espainolez)**
Domeka: 17:30.

**El hundimiento**
Eguaztena: 21:30.

## OÑATI
### KULTURA ETXEA

**Vete y vive**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Oliver Twist (euskaraz)**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**La historia del camello que llora**
Eguena: 20:00.

## EIBAR
### UNZAGA

**Munich**
Egubakoitza: 18:30, 22:00.
Zapatua eta domeka: 18:30, 22:00
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 18:30, 22:00.

### RIALTO

**Orgullo y prejuicio**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

## GASTEIZ
### GURIDI

**Tristán e Isolda**
17:30, 20:00, 22:30.

**La pantera rosa**
17:00, 18:50, 20:40.

**Syriana**
17:00, 19:45, 22:30.

**Iratxoen erregea**
17:30.

**Brokeback mountain**
19:30, 22:30.

**Lie with me**
20:00.

**El nuevo mundo**
17:30, 22:30.

**Sky high**
17:00, 19:45.

**Cargo**
17:30, 20:00, 22:30.

**La semana que viene (sin falta)**
22:30.

**Los tres entierros de Melquiades Estrada**
22:30.

### FLORIDA-GURIDI

**Truman Capote**
17:00, 19:45, 22:30.

**Buenas noches y buena suerte**
17:30, 20:00, 22:30.

**Conejo en la luna**
17:00, 19:45, 22:30.

**El castillo ambulante**
17:30.

**Transamérica**
20:00.

**Mrs. Henderson presenta**
20:00, 22:30.

**La fiesta del chivo**
17:30, 22:30.

**Crash**
17:30, 20:00, 22:30.

**Agua**
17:00, 19:45, 22:30.

### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Mrs. Henderson presenta**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

**Thai dragon**
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**La joya de la familia**
20:00, 22:15, 00:30.

**Esta abuela es un peligro 2**
16:00, 18:00.

**Terror en la niebla**
22:00, 00:30.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
16:00, 18:00, 20:00.

**Underworld evolution**
20:00, 22:15, 00:30.

**La pantera rosa**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Apostando al límite**
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

**Melissa P.**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

**Doce fuera de casa**
16:00, 18:00.

**Conejo en la luna**
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Underworld evolution**
22:50, 01:00.

**En la cuerda floja**
12:15, 17:00.

**Bambi 2**
12:15, 15:30, 17:00.

**La pantera rosa**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Buenas noches y buena suerte**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Brokeback mountain**
19:45, 22:15, 00:35.

**Munich**
22:00.

**Memorias de una geisha**
18:45, 21:30, 00:25.

**Crash**
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Syriana**
12:15, 16:30, 19:15, 21:45, 00:30.

**Tristán e Isolda**
12:15, 17:00, 19:30, 21:45, 00:15.

**Zathura**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**El nuevo mundo**
12:15, 15:30, 18:30.

**El jardinero fiel**
19:30, 21:45, 00:20.

**Sky high**
12:15, 16:05, 18:20, 20:35.

**Man thing**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

**Thai dragon**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Orgullo y prejuicio**
20:05, 22:25, 00:45.

**La fiesta del chivo**
12:15, 16:45.

**El castillo ambulante**
12:15, 15:30, 17:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

### ÁBACO BOULEVARD

**La pantera rosa**
12:10, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Bambi 2**
12:15, 16:30.

**Buenas noches y buena suerte**
12:00, 16:30, 18:25, 20:20, 22:20, 00:30.

**En la cuerda floja**
21:00, 01:00.

**Syriana**
12:15, 17:00, 19:45, 22:15, 01:00.

**Munich**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:00, 23:30.
Domeka: 12:00, 16:00, 19:00, 22:00.

**Sky high**
12:15, 16:10, 18:10.

**Brokeback mountain**
19:30, 22:10, 01:00.

**Memorias de una geisha**
12:00, 16:25, 19:20, 22:15, 01:00.

**Crash**
20:10, 22:25, 00:45.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
12:00, 16:25, 18:20, 20:15.

**La semana que viene (sin falta)**
12:00, 17:00.

**Tristán e Isolda**
12:10, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**El nuevo mundo**
12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

**Zathura**
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Man thing**
18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**En la cuerda floja** ***
AEB, 2005. Zuzendaria: James Mangold. Aktoreak: Joaquin Phoenix, Reese Whiterspoon, Robert Patrick.
136 min. Biografia, musikala.
*Johnny Cash* (Phoenix) musikariaren bizitza kontatzen du, bere hasiera umiletik, Arkansasen, rock-and-rollaren izar bihurtu eta horrek ekarri ziona errepasatuz: maitasuna, mendekotasunak... Reese Whiterspoon-ek Oskarra irabazi zuen bere lanagatik.

**Truman Capote**
AEB, 2005. Zuzendaria: Bennett Miller. Aktoreak: Philip Seymour Hoffman, Catherine Keener.
110 min. Biografia, drama.
1959an, *Truman Capote* idazleak (Seymour Hoffman) Clutter familiaren hilketaren berri jasotzen du, eta gertakizun horren gainean ikertu eta bere maisulana idatziko du. Aktore onenaren Oskar saria irabazi du Philip Seymour Hoffman-ek lan honengatik.

**Crash** **
AEB-Alemania, 2004. Zuzendaria: Paul Haggis. Aktoreak: Sandra Bullock, Don Cheadle, Matt Dillon.
100 min. Drama.
Hainbat arraza eta nazionalitateko ezezagunek elkarren berri izango dute eta elkarrekin topo egingo dute halabeharrez Los Angelesen. Euren arazoak eta drama pertsonalak azalera etorriko dira orduan. Film onenaren Oskarra irabazi du lan honek.

**El hundimiento**
Alemania, 2004. Zuzendaria: Olivier Hirschbiegel. Aktoreak: Bruno Ganz, Alexandra Maria Lara.
150 min. Drama.
Berlin, 1945eko apirila. Alemania aliatuen aurrean erortzeko zorian dago. Hitler (Ganz) eta albokoak bunker baten gorde dira. Hitlerren azken orduen kontakizuna egiten du filmak.

**Syriana**
AEB, 2005. Zuzendaria: Stephen Gagham. Aktoreak: George Clooney, Matt Damon.
126 min. Drama, thrillerra.
Golkoko petrolio-putzu baten inguruko intrigak kontatzen dira, bi esplotazio enpresak bat egiten dutenean eta AEBetatik CIAko kide bat, *Bob Barnes* (Clooney) bidaltzen dutenean hango agintari bat hiltzera. George Clooneyk bigarren aktore onenaren Oskarra irabazi du film honekin.

**La fiesta del chivo**
Espainia-Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Luis Llosa. Aktoreak: Tomas Mili, Isabella Rossellini.
132 min. Drama.
Santo Domingo, 1992. *Urania Cabral* (Rossellini) jaioterrira bueltatu da, aita hilzorian dagoela eta. Sasoi baten, Trujillo diktatorearen albokoa zen. *Urania*-k istorio hori gogoratzen du izeba eta lehengusinendako.

**Vete y vive**
Frantzia-Israel, 2005. Zuzendaria: Radu Mihaileanu. Aktoreak: Yaël Abecassis, Roschdy Zem.
140 min. Drama.
1984. urtea. Milaka errefuxiatu afrikar Sudaneko kanpamenduetara iristen dira. Aldi berean, Etiopiako juduak Israelera eramaten ari dira. Ama batek 9 urteko semea konbentzitzen du judutarra dela esan eta hara bidal dezaten.

**El castillo ambulante**
Japonia, 2004. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
119 min. Animazioa, fantasia.
*Sophie* gazteak *Howl magoa* ezagutzen du, eta horrek *Landetako Sorgina* jeloskor ipintzen du. Orduan, sorginak 90 urteko emakume bihurtzen du *Sophie*.

**Mrs. Henderson presenta**
Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Stephen Frears. Aktoreak: Judi Dench, Bob Hoskins.
102 min. Komedia dramatikoa.
Londres, 1937. *Laura Henderson* alargunak (Dench) Windmill antzokia erosten du eta aurrera ateratzen du *Vivian Van Damm* (Hoskins) enpresaburuarekin. Gerra hara iristen denean, *Henderson andrea*-k bere adorea erakutsiko du.

**La semana que viene (sin falta)**
Espainia, 2006. Zuzendaria: Josetxo San Mateo. Aktoreak: Imanol Arias, Charlie Levi Leroy.
105 min. Komedia dramatikoa.
*Teo*-k (Arias) tuning tailerra dauka, baina negozioa eta bizitza pertsonala ez doakizkio batere ondo. Lursaila erostea eskaintzen diote halako baten...



## Memorias de una geisha **

**Zuzendaria:** Rob Marshall.
**Aktoreak:** Zhang Ziyi, Ken Watanabe, Michelle Yeoh, Gong Li.
AEB, 2005.
145 min. Drama.

Oscarren irabazle nagusien etekin ekonomikoak -filmeen ikusle kopurua igoko denez- goraka egingo du agian. Dena den, Estatuan, Oscarretarako hautagaia besterik ez zenean, *Memorias de una geisha* ikusle gehien lortu zuen filma zen. Badaude arrazoi batzuk horretarako: filma izenburu bereko eleberri arrakastatsuaren egokitzapena da; horrela, liburuaren irakurleak, kontatu behar zaien istorioa gustuko izango dutela jakinean, zinema aretoetara hurbiltzen dira; *Memorias de una geisha*-ren musika, argazkia, jantziak, dekoratuak benetan ederrak dira, eta filmari oso itxura erakargarria ematen diote.

*Memorias de una geisha* erraz ikusten den melodrama dugu, nahiz bere iraupena bi ordu pasatakoa izan; baina ez du melodrama onek izan behar duten barneko intentsitate eztandagarririk lortzen. Istorioak nahiko momentu dramatikoak ditu (bi ahizpak banatu eta saldu egiten dutenean), amodio istorioa ere badago, baina momentu horiek ez dute lortzen izan behar zuten indar edo efekturik; ikusten duguna ez dago gaizki, baina ez gaitu istorioan gehiegi sartzen. Geisha famatuak izan nahi duten emakumeen arteko borrokak eta inbidiak azaltzerakoan -agertzen diren aktoreak onak dira eta emakume guztien artean sortzen diren begirada gurutzatuek istorioari bizitza ematen diote- edo dantzaren eszenan daude filmaren momentu onenak. *Memorias de una geisha* melodrama txukuna baina *light*-a da.

Antonio Zabala



ÁBACO-k ETA FOX -ek CLOUSEAU INSPEKTOREAren autoa opari egiten dizute.
La Pantera Rosa ÁBACOn ikusteagatik bakarrik, Smart Fortwo* bat irazbaz dezakezu.
Informa zaitez gure zinemetan edo www.cinesabaco.com-en


**Goienkaria**
EGOITZA NAGUSIA
132 posta-kutxa, Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2006-03-10

# Sarayren amama ere pozik!

**AGORTUTA** Ohi baino dezente gehiago saldu da aste honetan 'Interviú' aldizkaria gurean, Saray biluzik agertu delako

**SALMENTA** Sarayk konfirmatu ez digun arren, 30.000 euro inguru ordaindu omen dizkiote argazkiengatik

**TOMELLOSON** Jesus bikotekidearen herrian dago Saray eta etorkizunean 'teteria' bat jarri nahi duela esan digu

EDU MENDIBIL > BERGARA

Debagoienean eta Bergaran bereziki ohi baino dezente gehiago saldu da aste honetan *Interviú* aldizkaria. Arrazoia: Saray Leal *Gran Hermano*-ko lehiakide bergararra azalean zetorrela. Aspaldiko zurrumurrua konfirmatu egin da eta biluzik agertu da Saray, sei orriko erreportajean. Txoritxo batek esan digunez, 30.000 euro inguru ordaindu dizkiote Sarayri argazkiongatik.

**GUSTURA EMAITZAREKIN**

Aldizkaria argitaratu zen egunean, astelehenean, Jesus bikotekidearen herrian, Tomelloson, zegoen Saray. Aldizkaria erostera joatea lotsa ematen ziola eta, Jesusek eraman zion: "Kioskora joandakoan, zera esan diote: '*Que le tenemos aquí a tu novia!*'. Berari ere asko gustatu zaizkio argazkiak. Azalerako aukeratu dutena niri ez zitzaidan askorik gustatzen, baina erreportajearekin pozik nago. Gainera, *Interviú*-n azaltzea ez da edozer gauza. Amak ere deitu didate goizean zoriontzeko, argazkiak asko gustatu zaizkiela esateko".


AGORTUTA Jose Antonio Luque Bergarako San Martin plazako kioskoan. *Interviú*-ren ale guztiak saldu ditu asteon. ENEKO AZKARATE

Aipatutako erreportajea amamari eskaini nahi izan dio Sarayk: "Hura izan zen *GH*-ra joateko animatu ninduena eta orain gutxi haren urtebetetzea izan zenez... Hasieran, aldizkarikoek asmatutako titularra zela uste zuen. Ilusio handia egin dio eta oso guapa nagoela esan dit".

Bi saiotan egin zituzten argazkiak, estudioan. "Sei bat ordu eman nituen. Estilista, makillatzailea, *making-offa* egin zuena... zortzi bat lagun egongo ginen denera. Eroso sentitu nintzen eta Paco Rubio argazkilaria ere oso gustura geratu da emaitzarekin. *Lolita* baten itxura nuela esaten zidan".

Orain, *Gran Hermano*-ko lehiakideen presentzia telebistan murrizten ari da poliki-poliki. Etorkizunean *teteria* bat jarri nahi duela esan digu Sarayk: "Ama Almerian dago eta ez dakigu hara joango garen... Oraingoz, ondo gaude Tomelloson Jesus eta biok".

## ahobero

**"Pitermanek presidentea izan behar du, ez entrenatzailea. Berak entrenatu? Zer demonio? Egon dadila bulegoan, edo joan dadila hori egitera zilegi den herrialde batera"**

**Javier Clemente** > Entrenatzailea

Clementeri arrazoia kendu barik, Athleticzaleek eta Realzaleek nahiko lukete Pitermanek aulkian jarraitzea.

## iturri onetik

**Giltzen eskaera bat atzera bota dute Arabian, gurutze forma zutelako**

Bailarako lantegi bati atzera bota diote Arabiar herrialde batetik egin zioten eskaera. Antza, giltzak egitea agindu zioten Debagoieneko enpresa ezagun bati eta giltzok gurutze forma zutenez, eskaera atzera bota diote.

Mahomaren gaineko karikaturek hautsak harrotu zituzten eta badirudi ekialdearen eta mendebaldearen arteko harremanak ez direla momenturik onenean.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Heriotza inguruan

Aurten, dagoeneko hiru osaba/izeba hil zaizkit. Adinean aurrera, normalean urrundu egiten gara osaba/izebekin, eta hiru heriotzok ez naute samindu, natural hartu ditut. Baina jarri didate pentsatzeko puntua.

Halabeharrez, hiltzen ari dira gu haur ginenean guretzat heldu zirenak. Gu gara orain helduak, gaurko haurrentzat. Hauek heltzearekin batera, geuri tokatuko zaigu hiltzea.

Ze makabro! pentsatu du norbaitek honezkero. Ezetz uste dut. Bizi gara hil behar ez bagenu bezala, heriotzari bizkar emanez. Eta hurbil gertatzen denean, apurtu egiten gaitu. Hobe genuke barneratzea bizitza dela ziklo bat, eta hasiera bezala amaiera duela. Zuku gehiago aterako genioke egun bakoitzari.

## ai, ene!



**Moda diseinugileen irudimenak ez du mugarik**

Jean Paul Gaultierren azken ideia ikusi besterik ez duzue. Txakurrendako konoak modan? Hamaika ikusteko jaio ginen!

http://tinyurl.com/oz8eg


*Eraman dotoretasuna zure etxera*
gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51